

Gotzone Sagardui sailburua. GOIENA

Tabernak eta jatetxeak 21:00etan itxi beharko dituzte Oñatin, alerta gorrian dagoelako

- Alerta gorrian dauden herrietan udalerritik ez irtetea gomendatu du Eusko Jaurlaritzak
- Osasun sailburuak neurri murriztaile berriak iragarri ditu intzidentzia tasa altueneko herrietan / 2

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



Hasi orduko, geratzera behartuta

Kirol txapelketetan, saskibaloian, MU taldeak ezingo du Zarautzen jokatu eta futboleant, UDAk hiru talde ditu konfinatuta COVID-19agatik; horrek buruhaustea sortu dizkie klubei / 38

SAS



Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Jaurlaritzak azaldu duenez, intzidentzia altua dagoen udalerrietan neurri murriztaileak jarriko dituzte indarrean –bailararen kasuan, Oñatin–: bertan behera geratuko dira ofizialak ez diren kirol jarduerak –eta, hortaz, bakarka egin beharko da ariketa fisikoa–, parkeak eta terrazak 08:00etatik 21:00etara erabili ahaliko dira, debekatuta egongo da alkohola 21:00etatik 08:00etara saltzea eta ostalaritzako establezimenduak eta komertzioak 21:00etan itxi beharko dituzte –farmaziak, gasolinerak eta janaria saltzeko dendak, salbu–. Horrez gain, gomendioak ere egin ditu Gotzone Sagarduik, Osasun sailburuak; besteak beste, gorritz markatutako herrietatik ez irtetea –eta ez sartzea–, bizikidetzaren unitatearekin bakarrik egotea eta ezinbestekoak ez diren jarduerak saihestea –eta egin behar badira, toki itxiak saihestea–. Neurriak oraindik ez daude indarrean, baina gaur bertan kaleratu da oharra. Bestetik, neurriak bertan behera geratuko dira, udalerriak gorritz egoteari utzi bezain laster.

Horrez gain, bilerak sei pertsonatara mugatzeari dagokionez, EAEko Auzitegi Nagusiak ez du neurria onartu; 1986ko Osasun Publikoaren Lege Organikoa aintzat hartuta, "oinarrizko eskubideen kontra" egiten duela deritza. Hortaz, hori eta batzar publikoen nahiz pribatuen edukiera-muga oro –baita hamar lagunetara mugatzea ere– gomendioa izango da.

INTZIDENTZIA DATUA

SEMAFOROAREN SISTEMA, 5.000 BIZTANLETIK GORAKO HERRIETAN

Jaurlaritzako sistema berriak azken hamalau egunetako datuak eta 5.000 biztanletik gorako herriak hartzen ditu kontuan, eta 100.000 biztanleko zenbat kutsatze egon diren zenbatzen du. Eragiketa horren ostean, emaitzak lau koloretako multzotan sailkatzen dira: berdez 60tik beherako intzidentzia dutenak, horiz 60 eta 299 artekoak, laranja 300 eta 499 artekoak, eta gorritz 500etik gorakoak. Horrela, Jaurlaritzako sistema jarraituz, bailaran horiz dago Aretxabaleta, laranja daude Arrasate

Mugak ezarriko dituzte gorritz markatutako udalerrietan

Osasun Sailak jakinarazi duenez, pandemiak izan duen bilakaera dela-eta neurri murriztaileak jarriko ditu indarrean datozen egunotan. Debagoienari dagokionez, momentuz, behintzat, Oñatiri eragingo diote arau berriek

eta Bergara, eta, adierazi bezala, gorritz dago Oñati. Gainerako herriak ez dira sisteman sartzen, Osasun Sailak azaldu duenez, 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan ezin delako aplikatu. Hori argudiatzeko azaldu du familia berean gerta daitezkeen kutsatzeek herriko intzidentzia datua nahas dezaketela.

DATUEN BILAKAERA, BAILARAN

ASTE HONETAN POSITIBOEN HIRU ALDIZ JO DUTE GOIA DEBAGOIENEAN

Aurreko astean baino 69 kasu gehiago erregistratu dira oraingoan bailaran. Herririk herri errepasoa eginez gero, gehienak Arrasaten hauteman dira, eta atzetik izan ditu Oñati, Bergara eta Antzuola. Salbuespena izaten jarraitzen du Leintz Gatzagak, izan ere positibo bakarra erregistratu da bertan, eta hortaz, ez dago intzidentzia daturik azken asteetan.

Hala, adierazitako datuok kontuan hartuta, bailarak 1.500 kasuen langa gainditu zuen hilaren 20an. Pandemia hasi zenetik –eguzteneko datuak oinarri hartuta–, 1.563 positibo baieztatu dira Debagoienez, eta azken 500 kasuak hilabete bakarrean metatu dira; zehazki, irailaren 21etik urriaren 20ra bitartean.

Bestetik, Debagoieneko Ospitalean, koronabirusa duten hamar lagun ospitaleratuta daude, eguzteneko datuak aintzat hartuta.

Aste honetako datuen bilakara aztertuz gero, datuek goia jo dutela nabarmendu behar da;


Debagoieneko intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNEKO TASA

100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



Positibo kasuak

	Positiboak aurreko astean	Positiboak aste honetan	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko
Arrasate	27	69	669	30,33
Oñati	28	39	240	21,14
Bergara	29	37	324	21,59
Antzuola	23	26	76	34,53
Aretxabaleta	6	10	159	22,40
Aramaio	1	5	17	11,29
Eskoriatza	8	3	58	14,27
Elgeta	3	1	19	16,68
Gatzaga	0	0	1	4,00
GUZTIRA	125	194	1.563	24,17

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

egun bakarrean hautemandako zenbateko handienak erregistratu dira bailaran. Hilaren 21ean, eguztena, 43 kasu atzeman ziren; 15ean, berriz, 36 kasu; eta zapatuan, 35.

Eta bide hori jarraituz, Gipuzkoan eta Hego Euskal Herrian ere, egun bakarrean atzemandako zenbateko handienak izan dira aste honetan. Debagoienez bezala, herenegun erregistratu ziren datu kezagarrienak: 503 positibo izan ziren Gipuzkoan eta 1.626 Hego Euskal Herrian. Egun hartan, oinarritzko birsorkuntza daturik handiena ere izan zen Gipuzkoan: 1,30.

COVID-19A DELA-ETA HILDAKOAK

72 LAGUN ZENDU DIRA DEBAGOIENEAN, PANDEMIA HASI ZENETIK

Osasun Sailak emandako datuen arabera, pandemia hasi zenetik hilaren 18ra arte, 42 lagun zendu dira Arrasaten, hamalau Bergaran, zazpi Aretxabaletan, sei Oñatin, bi Eskoriatzan eta bat Elgetan. Halere, ezin da zehatz jakin zein egunetan erregistratu ziren heriotzak.

Hego Euskal Herriari dagokionez, berriz, aurreko eguztenetik herenegun arte, 78 lagun hil ziren, eta, horrenbestez, 2.580tik gora dira dagoeneko COVID-19aren ondorioz zendutakoak.

ADINEKOEN EGOITZAK

SEI EGOILIAR DAUDE KUTSATUTA BERGARAKO MIZPIRUALDEN

Bergarako Mizpirualde egoitzan, irailaren 16an hauteman zen lehenengo positiboa, eta, ordutik, 23 izatera ere iritsi dira positiboak. Eguzteneko datuen arabera, sei dira kutsatuta jarraitzen duten egoiliarak. Halere, bidean zazpi gainditu dute gaitza, eta, bestetik, zazpi izan dira zendu direnak ere. Kasu positiboak dituen bailarako egoitza bakarra da Mizpirualde.

Bestalde, Arrasateko Iturbide egoitzako egoiliarrek gunen hesitura irteteko aukera dute dagoeneko. Dena den, ezin dira elkarren artean nahastu, izan ere, azaldu dutenez, solairu bakoitza burbuila-talde bat da.



Bergarako aparkaleku bat. GOIENA



Musakolako kiroldegian, kristalak. GOIENA



Oñatiko Eltzian, kristalak. GOIENA

Haizetearen ondorioz, kalte materialak bailaran

Eguazten gaueko haize zakarrak hainbat kalte eragin zituen; zuhaitzak erori ziren, errepideak itxi zituzten, kaleko seinaleak lekutik atera zituen, baita auto batzuk hankaz gora ipini ere. Zubillagako parkeko suhiltzaileek 26 irteera egin zituzten

Karmele Uribesalgo ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak alerta laranja ezarri zuen haize-ufada zakarregatik eguazten gauerdetik goizaldeko hirurak arte, eta horrelaxe izan zen. Arrasaten, esaterako, *Barbara* denboralearen ondorioz, 103 kilometro orduko bolada maximoa neurtu zen. Horren ondorioz, hainbat kalte izan ziren Debagoiengan; besteak beste, zuhaitzak erori ziren, errepideak itxi zituzten, kaleko seinaleak lekutik atera zituen haizeak eta auto batzuk irauli zituen.

Gipuzkoako foru suhiltzaileen zat aurtengo irteera gehieneko gaua izan zen eguaztenekoa; 111 irteera egin zituzten, gehienak

zuhaitzak eta haizeak botatako bestelako objektuak erretiratzeko. Zubillagako suhiltzaileen parketik 26 irteera egin zituzten.

Kalteak Debagoiengan

Arrasaten, kalte esanguratsuenak Musakolako kiroldegikoak izan ziren. Beiratea apurtu zuen haizeak, eta, kalteen eraginez, igerilekua itxi egin behar izan zuten. Udalak azaldu duenez, ezbehar guztiak aztertzeke lanetan dihardute, ahalik eta azkarren konponbidea ezartzeko.

Bergaran, berriz, Labegaraian zuhaitz bat erori zen, eta bidegorria itxi egin behar izan zuten ingurua garbitu arte. Kanposantuko aparkalekuan zuhai-

tzetako arramak auto batzuen gainera erori ziren, eta kalteak eragin zituzten.

Oñatin ere gogor jo zuen haizeak. Ugarkalden, esaterako, Mankomunitatearen zabor bilketa guneko teilatuko panela eraman zuen, eta inguruan zabaldu. Aretxabaletan, Baster lantegiko metalezko teilatua eroan zuen. Horrez gain, Arkarazo auzoan aparkatutako karabana bat irauli zuen. Elgeta eta Kanpanzar arteko errepidea, berriz, itxita egon zen, bi zuhaitz erori zirelako.

Gainerako herrietan, batez ere, zuhaitzak eta adarrak jausi ziren, baina haizeteak ez zuen aparteko ezbeharrik eragin.

Debagoiengo hiru preso gerturatu dituzte Euskal Herrira

Joseba Arregi oñatiarra, Garikoitz Garcia aretxabaletarra eta Alizia Saez de la Cuesta gatzagarra dira

Karmele Uribesalgo ARRASATE

Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak astelehenean jakinarazi zuen ETako bost preso lekualdatuko zituela Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeren batera edo gertuko kartzelaren batera. Preso horien arten hiru debagoiendar daude: Joseba Arregi Erostarbe oñatiarra, Garikoitz Garcia Arrieta aretxabaletarra eta Alizia Saez de la Cuesta Martinez de San Vicente gatzagarra.

Joseba Arregi 1992an atxilotu zuten, Bidarten, talde terroristako buru izatea egotzita. 2000. urtean, Frantziatik Espainiara eraman zuten, eta 30 urteko kartzela zigorra betetzen ari da terrorismo, hilketa, mehatxu eta lesio delituengatik. 74 urte ditu oñatiarrak, eta beteta dauzka zigorraren hiru laurdenak. Iaz Alacantetik Asturiasera lekualdatu ostean, Donostian beteko du zigorra Arregik, bigarren graduan.

Garikoitz Garcia, berriz, hogeituro urteko espetxe zigorra betetzen egon da Valentzian, Frantziatik Portugalera armak eta lehergaiak eramatea egotzita. Preso aretxabaletarra Valentziatik Arabara lekualdatuko dute.

Azkenik, Alizia Saez de la Cuestari guardia zibil bat hiltzea egotzi zioten 2002an, eta 29 urteko kartzela zigorra betetzera kondenatu zuten. Ordutik hainbat espetxetatik pasatu ostean, Castellon II kartzelatik Logroñokora eramango dute Leintz Gatzagako presoak.

Sareren mobilizazioa, moldatuta

Bestetik, osasun egoera dela eta, Sare Herriarrak moldatu egin ditu biharko deituta zituen manifestazioa eta mosaikoa. Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurriak direla eta, kanpo ekitaldietarako zehaztuta dagoen jende kopurua errespetatuta, 600 pertsona batuko dira Donostiako Kontxako hondartzan egingo duten mosaikoan. Hego Euskal Herriko herri eta auzo gehienetako ordezkariak izango dira bertan, eta *Resolution* hitza irudikatuko dute. Kontxan egon ezingo diren herriarrei eskaera egin diete sare sozialen bitartez euren mezuak eta aldarriak plazaratzeko.

Sarek adierazi du arduraz jokatzeko dagokiela: "Gure ekimenetan eta mobilizazioetan parte hartuko duten kideen segurtasuna eta osasuna bermatzeaz gain, balizko foku baten aurrean arrastoari segitzeko zailtasunak sor ditzakeen egoera masifikatu bat ekidin nahi dugu". Dena den, mobilizazioa era sinbolikoagoan eta murriztagoan egin beharko duten arren, aldarria kalera atera nahi izan du Sarek. Salbuespenezko espetxe politikak indarrean jarraitzen duela azpimarratu dute, eta "behingoz" konponbide oso eta erreala ematea eskatu. COVID-19ak gauzak are gehiago zaildu dituela esan du Sarek; espetxeetako egoera ez ezik, senideena ere "nabarmen kaltetu" dela adierazi dute.

2020ko JARDUNALDIAK

Urriak 14 / Azaroak 26

DIGITALIZAZIOA
BIDELAGUN



ZTB

ztbergara.eus

Zientzia
Teknologia
Berrikuntza
Bergara



LABORATORIO

ENPRE-SARE



Arrasateko Markulete industrialdea, artxiboko irudi batean. GOIENA

Bilera gutxiko negoziazioa egin ostean, gustura

40.000 langilerengan eragingo du metalgintzako akordioak, eta 2023ra arte egongo da indarrean. Besteak beste, soldata igoera adostu dute. Oro har, balorazio positiboa egin dute hitzarmena sinatu duten ELA, LAB eta CCOO, baita bailarako enpresak ere

Karmele Uribesalgo ARRASATE

Gaur sinatuko dute Gipuzkoako metalgintza sektoreko hitzarmena. Joan den astean lortu zuten akordioa Adegik eta gehiengo sindikala duten ELAk, LABek eta CCOOk -UGTk ez du onartu-. Orokorrean, balorazio positiboa egin dute, eta Adegik "historikoa" dela adierazi du. 40.000 langile inguruk

gutxieneko erreferentzia bat izango dute horri esker.

Eragin orokorrekoa da hitzarmena, eta aldea enpresa-itunik ez dutenek nabaritutako dute, batez ere. Besteak beste, %9,6ko soldata igoera proposatzen du aurreko hitzarmenarekin alderatuta, eta osasun azterketak lanordu gisa zenbatuko dira. Horrez gain, akordio horri esker,

KPIa bermatuta geldituko da enpresa guztientzat.

Sindikatuak dagokienez, ELAk dauka gehiengoa; langileen %48 ordezkatzeko du. Patxi Zubizarreta ELAko Debagoieneko Industria Federazioko arduradunak azaldu du "pozik" daudela hamar urteren ostean hitzarmena eguneratzea lortu dutelako: "Urte asko dira ez zela sinatzen Gi-

puzkoako hitzarmenik, eta, edukietan atzerapausorik egin gabe, akordio bat lortu dugu".

Bilera gutxiko negoziaketa izan dela azaldu du Zubizarretak, baina "gogorra" izan dela nabarmendu: "Gure helburuak finko zeuden, eta ez genuen nahi atzerapausorik". ELAko kideak adierazi duenez, Confedebak eta Eusko Jaurlaritzak esan izan dute pandemiak eragindako krisitik atera ahal izateko beharrezkoa izango dela soldatak jaistea. Hala ere, azpimarratu du euren sindikatua ez dagoela horretarako prest. Horrez gain, aitortu du beste hainbat kontu sartu nahi zituztela hitzarmenean, baina kanpoan gelditu behar izan direla. Horietako batzuk dira lanorduen murrizketa eta bajen osagarriak.

"Gehiago lortu zitekeen"

LAB ere gustura dago sinatutakoarekin. Hori adierazi du Xabier Llodio, sindikatuko Debagoieneko Industria Federazioko kideak. Dena den, uste du gehiago lortu zitekeela. Berdintasun batzordea eratzeari garrantzi berezia eman dio LABek, eta Adegik hori sortzeko proposamena egitea izan zen hitzarmena sinatzeko arrazoietako bat. "Aukera bat da soldata arrakala amaitzeko eta emakumeen kontratazioan aurrerapausoak emateko", adierazi du Llodio. Izan ere, LABeko ordezkariak azaldu duenez, industriako langileen artean %19 dira emakumeak.

Llodio aitortu du "harri duraz" jaso zutela ELAk hitzarmena sinatuko zuen albistea. Horrez gain, adierazi du argi gelditu dela Adegik interesa zeukala akordioa "azkar" lortzeko, nahiz eta akordioa bereziki "ona" ez izan.

LABek jakinarazi du hitzarmena sinatu arren lanean jarraituko dutela. "Prekarietatea ez da amaitu", azaldu du Llodio. Hori dela eta, nabarmendu du orain enpresaz enpresa joango direla, lan baldintzak hobetzeko asmotan.

Enpresentzat ere eragina

Bailarako enpresek ere balorazio positiboa egin dute, oro har. Ander Aramburu Bergarako Lazpiur enpresako zuzendari orokorrak adierazi du egonkortasuna ematen diela hitzarmenak: "Adegi eta sindikatuak ados jartzeak lanak errazten dizkigu bai enpresei, baita langileei ere". Hala ere, Aramburuk aitortu du lehiakortasun aldetik, urtean 1.697 ordu lan egiteak "puntu txarrean" uzten dituela Espainiako eta nazioarteko beste enpresa batzuekin alderatuta.

"EDUKIETAN ATZERAPAUORIK EGIN GABE, AKORDIO BAT LORTU DUGU"

PATXI ZUBIZARRETA, ELA

"AUKERA BAT DA SOLDATA ARRAKALA AMAITZEKO"

XABIER LLODIO, LAB

"ADEGI ETA SINDIKATUAK ADOS JARTZEAK LANAK ERRAZTEN DIZKIGU"

ANDER ARAMBURU, LAZPIUR

60. urteurrenean, kanpaina berria aurkeztu du Atzegik

'Bidelagunak biltzen' du izena, eta hainbat jarduera egingo dituzte unean uneko osasun egoerara egokituta

Karmele Uribesalgo ARRASATE

Atzegik, adimen desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko elkarteak, sentsibilizazio kanpaina bat aurkeztu zuen astelehen Donostian. 60 urte bete ditu elkarteak, eta omenaldia

egin diete bidelagun izan dituzten pertsonen.

Naroa Artola Atzegiko kidea GOIENAKo *Hemen Debagoiena* saioan izan da asteon. Nabarmendu du badirudiela gizarteak asko eman diela adimen desgai-

tasuna dutenei, baina trukean asko jaso duela gogorarazi du. Azpimarratu du "aurrerapauso handiak" eman direla adimen desgaitasuna dutenen eskubideei eta aukerei dagokienez; besteak beste, duela pare bat urte lortu zuten boto eskubidea. Dena den, adierazi du oraindik ere asko dagoela egiteko.

Osasun egoerak ahalbidetzen duen neurrian, urteurrena ospatzeko asmoa du Atzegik, eta hainbat jarduera antolatuko ditu hemendik urte bukaerara.



60 urte bidelagunak biltzen kanpainako irudia. ATZEGI

Hondakinen gaikako bilketa tasa, egonkortuta

COVID-19ak eraginda 2020ko tasak "apur bat" behera egin du itxialdiko hilabeteetan. Dena den, gaur-gaurkoz, eta azken urteetako tendentziari jarraiki, hondakinen gaikako bilketa tasa %70 eta %80 artean dago Debagoieneko herri guztietan

Jone Olabarria DEBAGOIENA
Debagoieneko Mankomunitateak zehaztutako datuen arabera, gaikako bilketaren tasa %77,7koa izan zen Debagoiengan iaz. Datuok bost urte lehenagokoekin alderatuz gero, ia 20 puntu egin du gora tasa horrek, orduan %59,21koa baitzen bailarako tasa. Herriz herri aztertuz gero ere, datuak "zifra horien bueltan" kokatzen direla azaldu du Mankomunitateko hondakinen informazio bulegoko Olatz Izagirrek: "Azken urteetan hondakinen gaikako bilketan izandako aldaketan ondorioz, tasa %70etik gorakoa da herri guztietan, baina, edozelan ere, badira ezberdintasunak".

Herriz herriko egoera
Zehazki, herriko datuak aztertuta, 2019an Bergarak izan zuen gaikako bilketari dagokionez tasarik altuena, %80,75, eta baxuena, aldiz, Leintz Gatzagak, %72,98ekin. Gainontzeko herriak zifra horien artean kokatzen dira egun. Urteetan atzera eginda, 2014tik 2015era izan ziren aldaketa nabarmenenak gaikako bilketaren datuei dagokienez. Leintz Gatzagan salbu, gainerako herri guztietan egin zuen gora tasak, nabarmen Arrasaten, %37,5etik %71,56ra pasata; Aretxabaletan, %59,21etik %81,87ra pasata; eta

Elgetaren kasuan, %39,87tik %71,56ra.
Bailarako gaikako bilketaren tasak, hala ere, Gipuzkoako batz besteko datuen gainetik daudela zehaztu du Mankomunitateak; 2014an %59,21ekoa zen bailarako tasa, %43,80koa Gipuzkoakoa. 2019ko datuek erakusten dutenez, baina, azken urteetan handitu egin da aldea: %77,7koa da Debagoiengan eta %59,26koa Gipuzkoan.

Koronabirusaren eragina
Aurtengo datuei dagokienez, COVID-19ak eragina izan duela azaldu du Mankomunitateak, eta gaikako bilketak uztailera arte utzitako zifrek apur bat egin dute behera, %1 eta %2 inguru. Hala ere, Izagirrek azaldu duenez, azken hilabeteetan ohiko zifrak berreskuratzen ari dira: "Itxialdiko hilabeteetako datuetan nabaritu dugu beherakada txiki hori. Azken datuetan, baina, gora egin du apur bat bilketa tasak, eta berriz ere berreskuratzen ari dira".

"ATAL BAKOITZAREN ARABERA, KUDEAKETA KOSTUA POSITIBOA EDOTA GASTU BAT DA MANKOMUNITATEAN"

Kostua, tasaren arabera
Hondakinen sailkapen egokia egitearen garrantzia azpimarratu dute, eta gogorarazi "gaikako bilketa tasa zenbat eta handiagoa izan, tratamendu kostua ere baxuagoa" izango dela: "Atal bakoitzaren kudeaketak bere kostua du. Kasu batzuetan positiboa da Mankomunitatearentzat eta beste batzuetan kostu bat dakar. Orain momentuan, ontzi arinek eta paperekin tonako 300 eta 17 euroko sarrerak eragiten dituzte, hurrenez hurren; organikoaren eta errefusaren kasuan, aldiz, 181 eta 118 euro ordaintzen ditu Mankomunitateak tonako".

Enpresa pribatuaren esku
Kudeaketari dagokionez, Gipuzkoako hondakinen kudeaketa zerbitzura (GHK) bideratzen ditu Mankomunitateak errefusa-Elgoibarko transferentzia-planta-, organikoa-Epeleko konpost-planta- eta ontzi arinak-Legazpiko ontzi arinen sailkapen-planta-. Gainerako hondakinez kontratu bidez esleitutako enpresa pribatuak arduratzen dira: egurra eta papera Arregi Etxabe enpresara, olioia Ekogras-era, hondakin arriskutsuak Hondakin SLra, rhunkiak Emausera eta hondakinak Bañu-etxe enpresara, besteak beste.



Bi eskualdeetako ordezkariak, martitzenean, Elosuan. JOKIN BEREZIARTUA

Memoria historikoa berreskuratu guran, Elosuan elkarlanean

Debagoieneko eta Urolako sei taldetako ordezkariak agerraldia egin zuten Elosuko gazteluaren bueltan

J.O. BERGARA
Memoria historikoaren berreskurapenerako lanean diharduten Debagoieneko eta Urola eskualdeko sei taldetako ordezkariak agerraldia egin zuten martitzenean Elosuko gazteluaren bueltan, "urteurren berezia" gogora ekartzeko. Hain zuzen, zehaztu zuten, martitzenean bertan bete ziren 400 urte "Nafarroako estatuko azken egiturak suntsitu zirenetik".

Aurrenekoz, batera
Martitzeneko agerraldian, Arrasateko Zuztarrak Errotuz taldea, Bergarako Nabarraldeko elkar-tea, Oñatiko Nabarkideak taldea, Eskoriatzako Atxorrotx, Azpeitiko eta Zestoako Napar Zuzterrak eta Azkoitiko Ixaun batu ziren. "Hemen batzen gaituena Euskal Herriko eta Nafarroako estatuko hiritar bezala lapurtu zizkiguten independentzia, eskubideak

eta historiaren berreskurapena bultzatzea da".

"Lehen urratsa"
"Elosuko gaztelua egun zen leku historiko honetan bildu gara gaur Debagoiena eta Urola bailaretako hainbat herritako lantaldeak; aurretik ez genuen denok elkar ezagutzen, baina iruditzen zaigu denon arteko sare bat antolatzea interesgarria izan daitekeela. Gaurkoa lehen urrats bat da, asmo eta proposamen berrietara irekiak gaude".

Historia helburu
Elosuan egindako agerraldian zehaztu zuten, hemendik aurrerako helburu nagusia Euskal Herriko eta Nafar estatuaren historiaren berreskurapena da: "Ez gara bildu historialariak garelako, gure benetako historia ongi ezagutzea eta ezagutaraztea nahi dugulako baizik".

Gaikako bilketa tasa azken urteetan, herriz herri										
	ARRASATE	BERGARA	OÑATI	ARETX.	ESKORIATZA	ANTZUOLA	ELGETA	GATZAGA	DEBAGOIENA	GIPUZKOA
2014	%37,51	%78,91	%80,17	%59,21	%63,57	%81,58	%39,87	%91,25	%59,21	%43,80
2015	%71,56	%80,61	%80,50	%81,87	%77,5	%82,63	%75,29	%69,67	%77,11	%49,09
2016	%78,42	%79,49	%80,33	%78,80	%76,88	%83,10	%79,49	%73,70	%79,64	%50,20
2017	%78,20	%80,56	%79,87	%78,72	%76,60	%81,49	%77,80	%73,27	%79,11	%53,08
2018	%76,24	%80,74	%78,28	%75,87	%75,78	%80,51	%73,51	%74,22	%77,68	%56,90
2019	%75,91	%80,75	%78,48	%76,87	%75,82	%79,99	%73,81	%72,98	%77,70	%59,26

ITURRIA: DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Nagore Ipiña izendatu dute Huzei Fakultateko dekan

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Kontseilu Errektoreak Nagore Ipiña (Arrasate, 1983) izendatu du fakultateko dekan. Oraingo izendapenaren aurretik hainbat ardura izan ditu Ipiñak: online graduen koordinazioa, KoLaborategiko zuzendaritza eta, azken urtean, fakultateko Ikerketa eta Transferentzia arloko zuzendaritza.

Dekano berriak lau hizkuntza menderatzen ditu: euskara, ingelesa, espainola eta frantsesa. Azken sei urteetan Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Fakultateko dekan izan den Begoña Pedrosa ordezkatu du Ipiñak. Arrasatearra Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna eta Hezkuntzan dokorea da. Era berean, digitalizazioan aditua da, eta 11 urte daramatza lanean Eskoriatzako Mondragon Unibertsitatearen fakultatean.



ZABALIK

LANDER BELOKI

Etorkizuneko lana

Argitaratu berri da *World Economic Forum*-en 2020ko Lanaren Etorkizunari buruzko Txostena. Bertan, etorkizunera begira lan eta gaitasunen mapa zehatza marrazten da.

Teknologiaren erabilera handituz joango da. *Big data*-z eta merkataritza elektronikoaz gain, adimen artifiziala eta roboten erabilera ere zabaltzen joango da epe ertainera. Horrez gain, enpresa ugari beren kokapenean, balio-katean eta langile kopuruan aldaketak egiteko aurreikuspenak dituzte.

Lan errepikakorrak %15etik %9ra jaitsiko dira eta, aldiz, etorkizuneko lan berriak %7tik %13ra igo. 85 milioi lanpostu desagertuko dira gizakien postua makinek hartzearen ondorioz. Aldiz, 97 milioi lanpostu sortuko dira, gizakien, makinen eta algoritmoen arteko konbinaketa eraginkorraren ondorioz.

Hainbat gaitasunen eskaria nabarmen handituko da: pentsamendu kritikoa, arazoen analisia eta ebazpena, autogestiorako gaitasuna, ikaste aktiba, erresilientzia, estresarekiko tolerantzia eta malgutasuna.

ENPRESEK LANGILEEN GAITASUNEN GARAPENEAN INBERTSIOAK EGIN BEHARKO DITUZTE

Ezagutza arloko langile gehiengo handi batek etorkizuneko lana ia begi bistan du. %84 bere lan prozesuak digitalizatzeko erabat prestatuta dago eta %44k telelana garatzeko gaitasuna du.

Online ikasketetarako eskaria gora doa, baina lanean edota langabezian daudenen jokaera desberdina da. Lanean daudenen artean, garapen pertsonalera bideratutako ikastaroen eskaria bikoiztu egin da. Aldiz, langabezian daudenek gaitasun digitalak garatzera zuzendutako ikastaroak eskatzen dituzte gehien.

Hala, enpresek langileen gaitasunen garapenean inbertsioak egiteko behar nabarmena daukate. Automatizazio eta aurrerapen teknologikoaren ondorioz lanik gabe gelditzen diren langileen %50 enpresan barnean birkokatzeak aurreikuspena daukate enpresek, kaleratzek bakarrik erabili ordez.

Sektore publikoak, berriz, langileen gaitasunen hobekuntzara bideratutako programak babestu behar ditu. Gaur egun, enpresen %21ak bakarrik erabiltzen ditu fondo publikoak helburu horretarako. Etorkizuneko lanpostuak sortu ahal izateko, horretara bideratutako inbertsioen aldeko pizgarriak aktibatu beharko lirateke.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Nola zahartu

ARANTXA URRETABIZKAIA
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Zaharra da eta probokazioa tanta batez esaten dio horrela bere buruari jendaurrean, jakin badakielako entzuleak protesta egingo duela, esango diola zaharrak trasteak direla edo antzeko zerbait eta bera primeran dagoela, nortasun agiriak dioena baino hamar urte gutxiagoko itxura duela. Koketkeria puntu bat, itxialdian ilea tindatzeari eraman dion jolas bera.

Zaharra dela esaten du edonon eta, beraz, aitortu dio bere buruari urte gutxi gelditzen zaiola aurretik,

bidearen azken bihurgunea hurbil duela.

Are gehiago, esan zidan horrek sortzen diola zalanza gehien pandemiari buruz. Urtebete etxean sartuta-edo pasatzen badu, gelditzen zaion denboraren ehuneko hamarra alferrik gal dezake. Ez da gazte baten proportzio bera.

Hori guztia denda baten ilaran geundela, ez isilmandatu bat egiten duenaren moduan.

Esan zidan zuhurtziak jokaera bat aholkatzen ziola eta gogoak beste bat, ez zuela bizitzaren bazter batean bizi nahi, hauek ere bere sasoiak direla, ez bakarrik gazteenak.

Nireak ere badira sasoi hauek, azpimarratu zuen aldeztatik prestaturak zuten esaldiarekin.

Eta, azken batean, nahiago zuela ospitalean covidaren eraginez hil, bere adinekoentzat antolatutako hiltegi horietako batean baino.

Hiltegi hitza erabili zuen eta protesta egitera nindoanean etorri zitzaizkion gogora pandemia honetan hildako zaharren kopuruak arrazoi ematen ziola.

Zerbait esan behar eta pandemiak nola zahartu erabakitzeak aukera ere kendu zigula bota nion, erantzun gisa.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belaste.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Minbizia ikertzen jarraitu behar da, tratamendurako"

MAITE VALLE KATXALIN ELKARTEKO KIDEA

Oihana Elortza OÑATI

COVID-19ak bazterrak nahastu baditu ere, bularreko edo ginekologiako minbizia dutenen Gipuzkoako Katxalin elkarteak aurkitu du modua "pausoak ematen jarraitzeko". Marea arrosa birtuala izango da aurten.

Elkartuta ospatu beharrean, birtuala izango da aurtego marea arrosa, ezta?

Bai, hori da. Gaixotasun honen ikerkuntzarako dirua jasotzen jarraitu gura dugu, eta domekan bukatuko den kanpaina birtuala egin dugu.

Nola har daiteke parte?

Erraza da: www.katxalin.kinendu.com webgunean sartu, bost euroko ekarpena egin eta bost kilometroko ibilbidetxo bat oinez egingo den konpromisoa hartzen du hor izena ematen duenak. Ibilbide hori erregistratuta gelditzen da webgunean, eta guztion artean 25.000 kilometrora heltzea da helburua.

Bakoitza bere erritmora?



Maite Valle, Bergaran egoitza duen Katxalin elkarte kidea. KATXALIN

Hori da. Bost kilometro oinez egiteko moduan gaude gehienok, eta elkartasun keinu bat izango da hori bularreko edo ginekologiako minbizia duten herritarrekiko. Paseo

horretan argazkiak atera eta webgunean eskegitzeko aukera ere eskura dago. **Horrekin batera, kit batzuk ere prestatu dituzue, ezta?** Bai. Aurtengo marea arrosak duen alde on bat da sare

sozialak erabiltzen eta Interneten trebeak diren gazteengana ere iritsiko garela. Garrantzitsua da gazteak ere egun batez minbizi honekiko sentsibilizazioa izatea, edo, gutxienez, egun batez gogoratzea gaixotasun horrekin dauden gertukoekin. Baina denek ez dute abilezia bera aplikazioetan sartu eta ekarpena online egiteko. Horregatik prestatu ditugu kit horiek, beste modu batera lagundu gura dutenak ere aukera izan dezaten. Kolore biziko poltsa batek eta maskara batek osatzen dute kit hori eta bost eurotan salduko ditugu.

Non salduko dituzue?

Zapatuan, esaterako, Bergaran egongo gara, kalean, goizez. Mahaia jarriko ditugu itsulapikoekin, informazio orriekin eta salgai egongo diren poltsekin. Elkartean eta bailarako hainbat dendatan ere badituzte salgai.

Maskara asko egin dituzue konfinamendua hasi zenetik.

Jo eta su ibili gara horretan, bai. Talde bat gara eta sentsazio hori oso garrantzitsua da hitz egiteko, konpainia izateko eta gaixotasunari aurre egiteko, elkarri animoak emateko bada ere. Etxean egoteko sasoia

heldu zenean, maskarak egiten hastea pentsatu genuen, talde sentsazio hori eta talde lan horren presentzia desagertu ez zedin. Kotoizko lehengo izarak lortu, patrioiak egin, makinan josi... bakoitzak bere etxean, baina guztion artean egin ditugu, eta hori oso baliotsua izan da guztiondako. Garrantzitsua da bakarrik ez zaudela ikustea.

Dirua ikerkuntzarako izango da?

Bai. Egia da orain arte ere egin dela lan gaixotasun honen inguruan, baina ikertzen jarraitzeak sekulako garrantzia du. Lortu behar dugu sendatu ezin den gaitza kroniko bihurtzea. Modu horretan, tratamendua izango du, eta ez du zertan gaizki bukatu.

Gero eta gehiago hitz egiten da minbiziaz?

Oraindik ere nahiko gordeta mantentzen den hitza da. Askotan, esaten da pertsona bat gaixotasun luze baten ondorioz hil dela, hitza bera ez esatearren. Nik uste dut berba egin behar dela, eta horretarako balio dute Katxalin moduko elkarteek, berba egiteko eta gaixotasunaren prozesuan laguntza duzula ikusteko.

Egingo duzue azokarik aurten Bergaran?

Bai; urte amaieran, akaso.

ITURRI ONETIK

Amak taldearen sorrera, Oñatiri esker

Oñatiko Lizargarate Trikitizale Elkarteak hamabigarrenez egin zuen joan den asteburuan Trikiti Jaialdia. Jaialdi horretan dago Amak taldearen sorrera. Hala aitortzen du Alaitz Telletxeak *Goiberri* agerkari digitalean. "Amak proiektuaren sorrera Oñatiri zor diogu", dio. Kristina Solanok eta Amaia Orejak, alde batetik, eta Maixa Lizarribarrek eta Alaitz Telletxeak, bestetik, hartu zuten parte hamargarren edizioan. Haren ostetik, Amak sortu zuten.

ALBISTE IZAN ZEN

2012-10-24

Uribetxeberria, baldintzapean, etxean

Josu Uribetxeberria preso mondragoetarra herrira, etxera, hurbildu zuten. Baldintzapeko askatasun egoeran, minbizia zuelako. Galarazi egin zioten herritik ateratzea; baita biktimekin harremanak izatea eta manifestazioetan parte hartzea. 15 urte preso egon ostean hurbildu zuten etxera. 1997an atxilotu zuten, ETAk bahitutako Jose Antonio Ortega Lara askatzeko Guardia Zibilaren operazioan. 2015eko urtarrilean hil zen.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Nafarroako neurri berriak hizpide

Koronabirusaren hedapenari aurre egiteko neurri berrien artean, besteak beste, Nafarroako sarrera-irteerak itxi dituzte asteon:

@FranckDolosor: "Nafarroa Garaia mugak hetsi ditu Ipar Euskal Herriarekin duena salbu. Dantxarinean normaltasuna nagusi".

@enekogara: "Nafarroa itxita, baina larunbatean ez dago arazorik Osasuna eta Athleticeko arteko euskal derbia jokatzeko".

@joxerrasenar: "Nafarroa itxiko den arren, lurraldea zeharkatu daiteke, beti ere jatorria eta helmuga handik kanpokoa bada".



D2030: IRITZIA

IKER AGIRRE / TXATXILIPURDI-D2030

Pandemiatik, elkarlan dinamiketara

Azken egunotan, gora doa COVID-19 kasuak egunetik egunera zenbatzen dituen marra, oraindik ere; beheranzko joera hartzeko deseatzan gaude. Debagoiena 2030 proiektuaren baitan, etxealdi garaian pandemiak eragindako bizipen, sentsazio eta balioak identifikatzeko dinamika jarri genuen martxan. 2019an entzute zabal bat egitetik gentozen, eta, oraingo honetan, zenbait kanal –hedabideetako albisteen analisia, aurrez aurreko elkarriketa motzak, behaketak, gazteen pertzepzioa jasotzeko dinamika...– gehitzea erabaki genuen ariketa horretan, informazio aberatsagoa jasotzeko asmoz. Hala, pandemiak eragindakoak jendartean izan duen inpaktuaren inguruko behaketa egin genuen.

Bertan jasotako informazioak eragin nabarmenak utzi dituela ondorioztatzera garamatza, bereziki, hezkuntzan, osasunean, kale bizitzan, enpleguan eta familietan. Baita ezegonkortasun sentsazioa eta beldurra nabarmen areagotu direla ere.

Lan eremuari dagokionez, kontsumo jaitsierak krisi ekonomikoa eragin duela ondorioztatu dugu, bereziki, automobilgintzan eta merkataritza/ostalaritzan, langabezia areagotuz eta lan baldintzak okertuz. Elikagaien sektorean, berriaz, salmentak areagotu egin dira, baina ekoizle txikiek beste salmenta kanal batzuk hautatu behar izan dituzte.

Osasuna, lehen lerrora

Osasunak lehen ez zeukan garrantzia hartu du jendartean, osasun sistema on baten beharra

azaleratuz. Aldi berean, osasun arlo sendoa izateko pertsona multzo handi baten lana eta estatus baxua duen emakume-kolektibo jakin batek egindako lanak –zaintza, garbiketa...– ere funtsezkotzat ikusi dira. Hala ere, etxealdiak osasunean zenbait albo-kalte eragin ditu; besteak beste, estresa, antsietatea, agurrik gabeko dolu prozesuak, e.a.

Hezkuntza alorrean, osasun krisiak eskolak eta aisialdi eskaintza ez-formala ixtea eragin zuen. Hori horrela, egun batetik bestera, eskolak online formatura igaro ziren, arrakala digitalaren eraginez eta eduki berriak zein motibazioa sustatzeko zailtasunak areagotuz. Gainera, hezkuntza online ereduak zein etxeratzeak zuzenki eragin du haur eta nerabeen hizkuntza erabileran, zenbait familia erdaldunetan euskararen presentzia murriztuz.

Pandemia honen eragin nabarmenenak kolektibo zaurgarrienek –emakumeak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, migratuak, adinekoak, haurrak eta gazteak– jasan dituzte. Esaterako, elikadura beharrak asetzeko zailtasunak dituzten pertsonak %25 ugari egin dira. Horretaz aparte, adineko zein haurren bizimodua erabat baldintzatu du pandemiak, hauen askatasuna, eskubideak, harremanak eta mugimendua mugatuz. Azkenik, iraunkortasunaren alorra aldizkari eta artikulu ezberdinetan presente egon

**ITXIALDIAK
ERAGINDAKOA
BEHATZEKO ARIKETA
EGIN DU DEBAGOIENA
2030 EKIMENAK**



GOIENA

arren, jendartean ez da horrekiko atxikimendu eta kezkarik sumatu.

Egiteko modu berriak

Hau guztiau gertatu bitartean, egoera honek baldintzatuta, eta mugitzeko murrizketak batez ere gure eguneroko joan-etorriak gutxitzea eragin duen arren, beste egiteko modu berri batzuk sortzen joan dira; besteak beste, era ezberdinetako zaintza sareak, tokiko merkataritza sustatzeko ekimenak, haurrekin eginiko mintzapraktika saioak, babeserako materialen sorkuntza enpresa eta norbanakoen taldeak, adinekoen jarraipen telefonikoa, elikagaien bankuaren dimentsionamendua, zerbitzu ezberdinen birpentsatzea, e.a. Konformeago egon ala ez, elkarlanean, aurrera egiteko moduak asmatu eta moldatu

**ELKARLANEAN
AURRERA EGITEKO
MODUAK ASMATU ETA
MOLDATU BEHAR IZAN
DITUGU**

behar izan ditugu. Jendarteak honelako egoera bati erantzuteko gaitasuna duela begi bistan jarritz. Etorkizun hurbilean ere, zenbait erronka izango ditugu parez pare; esaterako, kohesio soziala, krisi klimatikoa, lanaren etorkizuna... eta hauei erantzuteko tokian tokiko soluzioak bilatu beharko ditugu. Hala ere, egungo jendarte geroz eta konplexuago bilakatzen ari dela jakitun izanda, orain arte gailendu diren egiteko moduek, bere horretan, ez dute honelako erronkei erantzuteko gaitasunik izango. Horrexegatik, eta bizi garen testuingurua kontuan izanda, ezinbestekoa izango da orain arteko funtzionamendua egiteko moduak berriekin uztartzea eta eskualde honetan modu ezberdinetan artikulatutako lankidetzak beste behin ere martxan jartzea.

**ORAIN ARTEKO LAN
EGITEKO MODUAK
BERRIEKIN
UZTARTZEA
EZINBESTEKOA DA**

Txatxilipurdi elkartean, azkenengo urteetan ere logika horretan gabilta lanean, maila ezberdinetan ditugun erronkei erantzuna emateko ezinbestekoa iruditzen zaigu inguratzen gaituzten askotariko agenteekin elkarlanean aritzea. Horregatik, eta elkarlan horrek sor ditzakeen ikasketa eta harremanengatik, hasiera batetik Debagoiena 2030 lankidetzak sarearen parte izatea ezinbesteko ikusi dugu. Euskal Herri mailan ere, logika beretik, gure helburuekin bat datozen egitasmo zein eragileak saretu eta elkarlanean zenbait proiektu martxan jartzen gabilta. Hezkuntzaren ardura, gaur-gaurkoz, gehienbat, eskolaren eta familien gain jauzi dela eta haurtzarora mugatzen dela ikusirik, ikuspegi hori zabaltzeko asmoz herri hezitzaileen filosofia amestu dugu zenbait eragilerekin batera. Eta filosofia hau eskualdera zein herrira ekartzea izango da Debagoiena 2030 lankidetzak sarean gure ekarpena.

Aspalditik gatoz, urrutira goaz.

Debagoiena 2030 eta euskara

JOXEMARI MUXIKA

ARRASATE

Etorkizuna elkarrekin "berramestu eta berrasmatzera" gonbidatzen gaitu Elena Herrartek GOIENako *Etorkizuna elkarrekin...* artikuluan.

Ados nago "garapen komunitarioan sakonduz eraldaketa" sustatzea beharrezkoa dela, baina ez da eraldatu beharreko jendarte arrakalak zeintzuk diren azaltzen, abstrakzioan geratzen da.

Arrakalak identifikatu eta horiek sakon aztertzeke lana ere egin beharko da.

D2030ek gaur egun esku artean dituen hamalau proiektuak zeintzuk diren ageri zen aurreko asteko GOIENAn. Faltan diren proiektuen artean nabarmen egiten da Debagoieneko euskara hiztunen bazterketa konpontzeko bat ez egotea. Hutsune handia da.

"Gobernantza ereduak birplanteatzera" eramango gaituen modu bat birpentsatu beharko litzatekeela dio, baina hau egin al daiteke komunikaziorako hizkuntza alde batera utzita?

"Munduaren bilakaerak, berez, gu bezalako komunitateak desagertzea dakar, ez gara sistemarentzat beharrezkoak", dio Mikel Irizarrek GOIENako *Laborategiak* artikuluan. Dinamika horien oinarrian dagoen euskara hiztunen bazterketa zuzentzeko egitekoa nork gauzatzeke uzten da?

Euskara bizitzaren erdigunean ezarri behar da, hiztun guztiek elkarbizitza atsegina izan dezaten. Horretarako bitartekoak jarrita, euskara "gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan" praktikan jarri ahalko da.

Txapela kendu, berriz janzteko!

JUANRA BALLINA

PILOTAZALEA

ARAMAIO

Seguruenik, pilotari guztiok amestu duzue noizbait txapela irabazi eta janztearekin. Eta seguru, gainera, noizbait lortu duzuela, txapelketa handi edo txikian; berdin da!

Kantxatik kanpo ere suertatzen dira, sarritan, txapela kentzeko bezalako erabakiak hartzeko uneak. Zuek, pilotariok, azken aste hauetan hartu dituzuen erabakiak horrelakoak izan dira, eta horiekin erakutsi diguzue zeintzuk diren zuen benetako balioak: lankidetza, ausardia...

Ez zen erraza izango greba egitearen erabakia hartzea, zuen eskubideak defendatzeko, nahiz eta badiren beste batzuk, langile direnak baina ez lankide, ez dutenak bat egin defentsa honekin.

Beraz, Albisu, Laso, Agirre... harrotasunez esan dezakezue, "txapela buruan eta ibili munduan". Izan ere, ekintza daudenean, hitzak soberan daude!

Kontratua berritu ez duten pilotariak ere kontuan izan nahi ditut: Victor, Etxegoien, Laso eta Marikerrena. Pilotazaleon babesa igorri nahi diet guztiei; pilotalekuan ikusi nahi zaituztegu berriro!

Ez nuke amaitu nahi Jose Ramon Garai aipatu gabe, eta, bide batez, eskaera berezia luzatu, elkarrizketari atea irekitzeko, eta lehenbailehen konponbidea aurkitzeko.

Egungo emaitzak: Baikoko lankideak 22 // J.R. Garai eta beste 0.

Ecuador Bidaiak dela eta

JOXE MARI ORTUBAY ARANA

ARRASATE

Martxoaren 2an, Arrasateko Ecuador Bidaiak-en Kanarietarako bi bidaiak kontratatatu genituen. Bata apirilaren amaierarako eta bestea ekainaren erdialderako. Bidaiak bakoitzeko 1.000 euroko aurrerapena egin genuen; guztira, 2.000 euro.

Martxoaren 6an agentziatik deitu ziguten lehen bidaiagatik eta martxoaren 12an bigarrenagatik, eta erabaki genuen bidaiak bertan behera uztea eta aurrerakinak itzultzea, eta ez genuela "bonurik" edo antzekorik nahi.

Martxoaren 14an – pandemia–, agentzia itxi zuten. Maiatzaren 2tik aurrera dendak irekitzen hasi ziren, baina Ecuador-Arrasate ez zen ireki eta ezin izan genuen agentziarekin harremanetan jarri.

Ekainean, Ecuador-Madrilgo telefono batzuk

lortu genituen eta gure kasua Ecuador-Gasteizera pasatzen zutela esan ziguten. Gasteiztik deitu ziguten eta gure koordinatuak eta bidaien erreferentziak eskatu zizkiguten. Handik egun gutxira, kasua Ecuador-Bilbora pasatzen ari zirela esan ziguten.

Bilbotik uztaillean jarri ziren gurekin harremanetan eta berriro eskatu zizkiguten koordinatuak eta erreferentziak, eta posta elektroniko batzuk trukatzeko hasi ginen. Uztailaren 15ean jaso genuen lehen posta elektronikoa: "Dirua itzultzeko erreklamazioak irekiko ditugu". Uztailaren 29an, "pazientzia eta itzulketa 35-45 egun atzeratzeko" eskatu ziguten. Beraz, abuztua igarotzen utzi genuen, eta irailaren 10ean esan ziguten: "Berrikusia, OK-aren zain"; irailaren 28an: "Berrikusita, onartzeke".

Kontua da gaur egun, eta zazpi hilabete baino gehiago igaro ondoren, diru-itzulketa jaso gabe jarraitzen dugula. Gure haserrea erakutsi behar dugula uste dugu...

Ibon Arrupe eta gizonen supremazia

EVA ABUIN

ARRASATE

Ibon Arrupe zinegotziak orain dela bi aste publiko egin zuen iritzi artikulua hitz batekin laburtu daiteke: lotsagarria.

Bost urte baino gehiago Udal Gobernutik zerbitzu publikoak kudeatzen eta sistematikoki berdintasun politikak baztertzen... eta aho bete hortz uzten gaitu hirigintzako ikuspegi feministaren falta prentsan salatzen, hirigintzan gizonak dauzkaten pribilegioak kritikatzeko eta genero inpaktuaren gainean hausnarketa egiten.

Arraroa, ezta? Tamalez, ez. Arrupek feminismoaz baliatu nahi du bere alderdiaren proiektu politiko bat justifikatzeko, Grupo San Juango arkua bizilagunen nahien aurka botatzea bilatzen duen proiektua.

Posible da aurpegi gogorragoa izatea? Arrasateko EAJk, eta, kasu honetan, Ibon Arrupe zinegotziak, *purplewashing*-aren –zuriketa morea– adibide paregabea eskaini digu, feminismoa azaleko eran erabiliz, instrumentalizatuz propaganda egin eta politika atzerakoiei aurpegia garbitzeko.

Mugikortasun planean ez zenuen ikuspegi feminista kontuan hartu eta emendakin bat aurkeztu behar izan nuen zuk kudeatzen zenuen –eta duzun– batzordean. Emendakina onartu zenuten, baina onartu ez bazenute bezala, behin eta berriz urratu duzelako. Non dago genero ikuspegia beste proiektu guztietan, Ibon? Arrasateko emakumeen aitor-tza pleno aretoan dauden erretratuetan islatzearen aurka bozkatu zenuen –lau erretratu daude, eta laurak gizonak; EAJren ustez, historian zehar ez omen dago leku hori merezi duen emakumerik–.

Nire aurpegiaren aurrean genero ikuspegia aurrekontuetan txertatzearen aurka bozkatu zenuen... Orain, hirigintzan bai eta udal aurrekontuetan ez?

Zure gobernukidea bukaerara arte defendatu zenuen indarkeria matxista salaketa bat zuela –zinegotzi hau gaur egun ez dago udalbatzan... zerbaitengatik izango da–.

Ibon Arrupe, gizonezko izateak eta boterezko lekua izateak dakartzan pribilegioetatik idatzi duzun artikulua lotsagarriak, feminismoaz baliatzeko eta bizilagunak kontra dauden proiektu politiko bat justifikatzeko, penagarria da –bizilagunen iritzia kontuan hartzen ez duen proiektu bat feminista izatea oso zaila da–.

Zuk eta ezta zure alderdiak (EAJ) ez duzue inongo zilegitasunik politika feministen gainean lezioak emateko. Argi eta garbi utzi duzue artikulua honekin ez duzuela ezer ulertu.

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

Urrun hel daitekeen auto elektrikoaren prototipoa

Mondragon Unibertsitateko EMUF taldea 1 Formulako auto elektriko baten prototipoa garatzen ari da, Formula Student nazioarteko lehiaketan parte hartzeko. Proiektuak 31.580 euroko aurrekontua dauka eta Udalak 3.000 euroko laguntza eman dio

Eneko Azurmendi ARRASATE

Mondragon Unibertsitatean Ingeniaritza, Enpresa eta Humanistiko ikasketak egiten diharduten 24 ikaslek osatzen duten Electric Mondragon Unibertsitatea Formula taldeak Formula Student lehiaketan parte hartuko du lehenengoz. Lehiaketa horretan, mundu osoko unibertsitateek urtean zehar burutu dituzten ibilgailu elektrikoak aurkezten dituzte, 1 Formula ibilgailuen prototipoak.


2021eko abuztuan Bartzelonan egingo duten jardunaldi hori begiz jota dute. "Iazko ikasturtean jarri genuen martxan proiektu hau, eta orain, lehen prototipo elektrikoa garatzen eta fabrikatzen ari gara. Ondoren, prototipo horrekin lehiatuko gara Bartzelonan", azaldu du Beñat Arregi koordinatzaileak.

Partaideak euren borondatez, eskola orduetatik kanpo, ari dira ibilgailua diseinatu eta fabrikatzen. Hori dela eta, Arregik balioa eman dio taldekide bakoitzaren ekarpenari. "Orokorrean, proiektu honetan sartzen den orok konpromiso maila bat erakusten du, iniziatiba eta jakin-mina asetzeko grina".

Ikasle moduan, bestalde, "oso esperientzia aberasgarria" izaten ari dela gaineratu du koordinatzaileak. "Niri dagokidanez, koordinatzaile moduan asko nabil ikasten taldea gestionatzen eta proiektua aurrera eramaten. Bestalde, teknikoki ere, prototipoa garatzen egoteak ekarpen handia egiten digu, klasean ikasten dugunaz gain".

Udalak babestutako proiektua

Ikasleek, 2020 eta 2021. urteetarako, 31.580 euroko aurrekontua dute aipatutako proiektua gauzatzeko. "Arrasateko Udalak 3.000 euroekin lagundu du proiektua, eta babesletza horrek *Gold Sponsor* izaera emango dio, urrezko babesle izaera, hain



Lantaldeko kide bat, prototipoarekin lanean. MONDRAGON UNIBERTSITATEA

2021EKO ABUZTUAN BARTZELONAN IZANGO DA TALDEA, FORMULA STUDENT LEHIAKETAN

zuzen", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak.

Ekintzailatza saritzeko asmoz

Udalaren 2020/2023 Plan Estrategikoan "ekintzailatza eta ikerkuntza gazteen artean sustatzea" daildo nagusia, eta, proiektua bera pauso garrantzitsua denez herriaren garapen ekonomikoan, ekologikoan, jasagarrian eta sozialean, Udal Gobernuak erabaki du proiektua babestea eta sustatzea. "Gazteak dira, ekintzailak, gogo handiarekin lanean dihardutenak, eta energia berriztagarrien alde lanean ari direnak, auto elektriko batekin. Beraz, uste dugu ikusgarritasuna ematen diola unibertsitateari eta herriari, orain arte horrelako lehiaketa batean parte hartu barik geundelako. 24 gazteko talde bat da, neska zein mutil, eta horregatik ere garran-

tzitsua da apustu hau guretzat", gaineratu du alkateak.

Horrez gain, nabarmendu du Europako proiektu batean dagoela Udala, "karbono baxuko eredu baterantz" pausoak ematen joateko eta energia berriztagarrien aldeko apustua egiteko: "Proiektu horrek bat egiten du helburu horrekin".

Etorkizunerako apustua

Azkenik, Ubarretxenak balioa eman dio elkarlan publiko-pribatuari: "Ekimen horren parte dira administrazioa, hezkuntza eta enpresak. Proiektu horrek aurrerapauso ugari lortu ditzaie ibilgailu elektrikoaren paradigmari, eta zuzenean eragingo die gure herriaren ongizateari eta ingurunearen babes eta jasagarritasunari. Etorkizuna proiektu partekatua da guztiontzat, eta era kolaboratiboan landu beharrekoa. Ezbairik gabe, hau da bidea, eta Arrasateko Udala bidelagun izango da".

EMUF ekimenaren laguntzaileak dira Mondragon Unibertsitatea, Irizar, Ikerlan, Altair, ClickUp, Urkunde, Kimu Berri eta Danatek, Arrasateko Udalarekin batera.



Ur putzua dagoen lekuan egingo dituzte etxebizitzak. JOKIN BEREZIARTUA

184 etxebizitza eraikitzeko lanak hasi dituzte Zerrajeran

17.508.031,45 euroko aurrekontua dute lanek, eta partzelaren urbanizazioa ere esleipenaren baitan dago

E.A. ARRASATE

Irail bukaeran hasi zituzten Zerrajera kalean hainbat etxebizitza eraikitzeko lanak, lanok bere gain dituen Visasa sozietate publikoak azaldu duenez.

Guztira, 184 etxebizitza izango dira, eta lehen fasean 114 egingo dituzte, bi bloketan banatuta. Lehen blokean azalera-eskubidean erosteko 63 etxebizitza egingo dituzte –garajea eta trastelekua barne-. Bi logelako etxebizitzek 124.900 eta 133.900 euro arteko kostua izango dute; hiru logelakoek, 154.900 eta 178.200 euro artekoa; eta mugikortasun

arazoak dituztenendako egokitutako bi logelako etxebizitzek, azkenik, 179.000 eta 182.000 euro arteko kostua izango dute.

Bestalde, Alokabidek kudeatuko dituen alokairura bideratutako 121 etxebizitza ere egingo dituzte.

Etxebizitzaren entrega, 2023rako

Visesak jakinarazi duenez, 2023ko hirugarren hiruhilekorako dago aurreikusita entrega. "Alokabidek kudeatuko dituen dago-kienez, tramite gehiago behar dituzte eta entrega geroago izango da", gaineratu dute.



E.A.

Gune hesitura irteten hasi dira

Iturbide egoitzako egoiliarrek kanpora irteteko aukera dute dagoeneko. Atzo, eguna, hasi ziren probak egiten, egoitzako zuzendari Olatz Etxabek azaldu duenez: "Oraindik ez daukagu ezer zehaztuta. Ikusiko dugu haiek ere zer esaten diguten, eta astelehenera arte joango gara aztertzen. Ondoren baloratuko dugu txandak eta ordutegiak nola antolatu".

Grupo San Juango arkua mantentzeko konpromisoa

Martitzenean batu ziren Grupo San Juango bizilagunak eta Udaleko ordezkariak, eta, bizilagunek azaldu dutenez, Maria Ubarretxena alkateak hainbat konpromiso hartu zituen; tartean, arkuari dagokion proiektuaren zatia berriz idaztea, hura mantenduta



Grupo San Juango arkua eta terraza. E.A.

Eneko Azurmendi ARRASATE

Maria Ubarretxena alkateaz gain, Ibon Arrupe Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun batzordeburua eta Juan Antonio Urdangarin Hirigintzako teknikari arduraduna ere egon ziren martitzeneko bileran.

Alkateak hartu zituen beste konpromiso batzuk ere zehaztu dituzte bizilagunek: "Auzorako proiektu berria idazteko orduan, Grupo San Juanen saneamendu berria txertatzeko konpromisoa hartu du. Bestalde, argitu gura izan digu haien intentzioa ez dela Grupo San Juan proiektutik kanpo geratzea, baina proiektua berriz idatzi behar izateak epeak luzatu egin ditzakeela, agian, hiru urtera arte. Azkenik, azaldu digute bizilagunon ekarpenak kontuan hartuko dituztela proiektuaren behin betiko idazketa egiteko orduan. Azpimarratu zuten proiektu berrian ez zutela ezer egingo bizilagunon oniritzirik gabe", nabarmendu dute.

Gehiengoa, eraistearen kontra

Esan behar da Grupo San Juaneko bizilagunek sinadura bilketa abiatu zutela, *Ekobulebar* proiektuari buruzko iritzia azaleratzeko. Hiru puntu zituen adierazpenak: "Batetik, ez gaude ados arkua eta terrazak eraistearekin. Bestetik, Grupo San Juanek saneamendu publikoa izateko eskubidea du, baldintza egokietan. Azkenik, ez dugu bidezkoztat jotzen Grupo San Juanerako beharrezkoak diren inbertsio publikoak mugagabe atzeratzea, *Ekobulebar* proiektuarekin %100ean ados egon ezean gertatuko litzatekeela ohartarazi zitzaigun bezala, eta Udalari adierazi nahi diogu Grupo San Juanerako planteamendu egokia egiten laguntzeko prest gaudela". Hala, bizilagunen eta jabeen %69k babestu zuten -terrazen jabeen kasuan, %74-.

Udalak datorren astean kale-ratuko du gai horri buruzko oharra, batzordean landu ostean.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Mafaldak 50+

Berezia izan behar zuen... Aurten, gerria mugitu, 80ko hamarkadako abestiak kantatuz eta orduko kontuak akordura ekarri barre egiteko plana geneukan. Guk 50ak ospatu gura genituen, garaiko ikastolan lagun ginenok eta kintook. Halakoetan partekatzen ditugu gazte gineneko hamaika istorio, hala nola denda txikietan erostean botilen kaskoak txanponen truke itzultzen zirenekoak, arropak, sarritan amek josi eta jertseak trikotatzen zituztenekoak... Akordatu gara: Kanuto, Kuku, Alai eta Gurea zinamak, Uriarte eta Margola, gozo dendak, Gorabehera eta Hire... Erdiko kalean atez ate lau zapata denda... Nola lehen erakusleioz jositako kaleak pertsianak eraitsita ikustez ohitu garen. Eta hara paradoxa! Aspaldi ikusi gabeak elkartuko ginatke 0. kilometroan. Nahiz eta egoerak bortxatuta ospakizunak 50+era atzeratu, sekula ez denez berandu, hobetzeko aukera baliatuz *amazonia*-tik, zentzu guztietan, bertakoa erostera itzuli beharko genuke. Bestela, Mafaldak egun galdetuko zukeen moduan: "Zergatik dago pobrezia mapa muniaren iparraldean?".

EROSKI guztia zure mugikorrean

Aurrezteko eta beste askotarako app-a

- Zure txartel digitala
- Zure aurrezki-kupolak eta eskaintzak
- Produktuaren eskanerra
- Zure liburuak
- Zure tiket digitala
- Jokatu eta irabazi

Deskargatu DOHAINEK Abontaila huez eta beste askoz gozatzeko



*5 euroko erosketa-tratua, gutxienez 40 euroko erosketa egindako hiru datalekean, erabiltzari gehienek eskaintzen duen, 2020ko azaroaren 15era arte. EROSKI Clubeko baliabide baliabide josi dezake. Berezia EROSKI aplikazioan EROSKI Clubeko kontu digital bat sortzen baduzu eta lehen aldiz identifikatzen baduzu. Lehen 100.000 baliabideak mugatuta.

5€

oparituko dizkizugu erabiltzen hasteko!

EROSKI app-ean identifikatzen bazara edo EROSKI club kontu digitala lehen aldiz sortzen baduzu*



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



Ibai-arteko merkatarik elkarteko 35 komertzio apaindu dituzte arrosa kolorez, eta itsulapikoak jarri dituzte, dirua batzeko. E.A.

Elkarlanean, bularreko minbiziari aurre egiteko

Astelehenean, urriaren 19an, Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen, eta Ibai-arte Katxalin elkartearekin bat egin zuen, gaixotasunaren ikerketara bideratzeko dirua batzeko; 35 komertziotan itsulapikoak eduki dituzte aste guztian

Eneko Azurmendi ARRASATE

Katxalin bularreko eta ginekologiako minbiziak eragindako Gipuzkoako emakumeen elkar-tea da, eta urtero hainbat ekintza egiten ditu bularreko minbiziaren ikerketarako dirua batzeko. Aurten, baina, pandemia dela eta, ekintza asko ezin izan dituzte egin, eta, horregatik, Ibai-arte laguntzea erabaki du. "Azken hiruzpalau urteetan ari gara gure erakusleahoetan kartelak jartzen eta gaixotasun baten aldeko kanpaina moduko bat egiten, aldarrikatzen. Beti pentsatu izan dugu horrelako elkarte batekin elkarlanean zerbait egitea eta haien laguntzarekin diru bilketa bat egitea, gaixotasunaren ikerketara bideratzeko. Aurten, kasualitatez, Katxalin elkartearekin jarri gara harremanetan. Izan ere, haien mezu bat jaso genuen, eta, gure asmoa hori izanik, segidan jarri ginen antolatzen", azpimarratu du Jon Apraizek, Ibai-arteko presidentek.

"Dirua batzeko ekintzak ezin izan dituztenez egin, laguntzea erabaki dugu. Horretarako, alde batetik, aste osoan zehar arrosa kolorez apaindu ditugu Ibai-arteko 35 bat komertzio, puxika arrosekin, eta abar, gaixotasunari ikusgarritasuna emateko eta herritarrek gehiago jakin dezaten gaiari buruz. Bestetik, itsulapiko batzuk jarri ditugu, komertzioetako bezeroek dohaintza bat egin dezaten", gaineratu du Apraizek.

Nazioarteko eguna astelehenean izan arren, aste osoan egon da dohaintzak egiteko aukera, gaur arte. "Itsulapikoak jaso ostean, Katxalin elkartera bideratuko ditugu, zabaldu ere egin gabe, daudenetan. Ondoren, haiek

"ELKARLAN HAU OSO INPORTANTEA DA GURETZAT, %80TIK GORA EMAKUMEAK DIRELAKE GUREAN"

esango digute zenbatekoa izan den guk egindako ekarpena".

Elkarlana, lehendabizikoz

Merkatari elkarteko presidentek azaldu duenez, lehen urtea izan da Katxalin elkartearekin elkarlanean aritu direna, baina nabarmendu du ez dela azkena izango. "Guretako oso garrantzitsua da horrelako ekimenekin bat egitea. Gure sektorean %80tik gora emakumeak direlako. Beraz, oso pozik gaude kolaborazio honekin. Ikerketarako dirua batzea beti da inportantea, baina are inportanteagoa da gaixotasuna ikusgarriago egitea, eta horretan laguntzeko prest egongo gara", zehaztu du.

Martxa solidario birtuala

Martxa solidario birtuala egingo du aurten Katxalinek, eta domekara arte dago horretarako aukera –urriak 25–. Hala, parte-hartzaile guztiekin, 25.000 kilometro gainditu gura dituzte, bakoitzak bost kilometro eginda.

Bi solasaldi, euskalgintzaren erronketako batzuk aztertzeke

Urriaren 28an egingo dute lehena, eta azaroaren 11n bigarrena, biak kulturateko areto nagusian, 18:30ean

E.A. ARRASATE

Ekin Emakumeak, AED eta Txatxilipurdi dira *Txertoa.eus* izeneko solasaldi zikloa antolatu dutenak, COVID-19 osteko agertokian euskalgintzak dituen erronkak zeintzuk diren aztertzeke helburuarekin. "COVID-19ak bete-betea gurutzatu du gure bizimodua, eta gizartearen eremu guztietara ekarri ditu ondorioak. Euskararen erabilera ez da salbuespena izan, eta euskalgintzak aurretik ere atzemand zituen zenbait erronkari heltzeko urgentzia areagotu egin du. Solasaldi ziklo honetan erronka horietaz ariko gara, begirada etorkizunean jarritz, euskararen erabilera sustatzeko estrategikotzat jotzen diren eremuetan aurrera egiteko irtenbideak arakatu guran", azaldu dute.

Modu horretan, bi dira irtenbide horiek aurkitzeko asmotan

antolatu dituzten solasaldiak: lehena urriaren 28an izango da, eguaztenean, eta IKTak eta aisialdi birtuala izango ditu oinarri. Lau hizlari izango dira lehen solasaldi horretan: Elhuyar taldeko Igor Leturia, AZK agentziako Olatz Artola, Game Erauntsia kolektiboko Maitane Junguitu eta Aiora Mujika euskal *youtuber*-a. Bigarrena azaroaren 11n izango da; arlo sozioekonomikoa eta hezkuntzan oinarrituko dira, eta hiru hizlari izango dira: Huheziko Ene-ritz Garro, Fagor Taldeko Leire Okarantza eta Kike Amonarri Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria. "Sarrera eta kokapena egingo ditu Amonarrirek, orain arte lortutakoari nola eutsi diezaiogegun aztertuz", gaineratu dute.

Bi saioak *streaming* bidez jarraitu ahal izango dira.

Hildakoak gogoan izateko saioa, Maite Urzainen eskutik

San Felipe Elkarlaguntzak antolatuta, oroitzapen ekitaldia egingo dute azaroaren 3an, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian, eta doluan aditua den Maite Urzain izango da hizlaria. Leku kopurua mugatua denez, aurrez eman beharko da izena, 943 77 30 22 telefonora deituta. Maskara derrigorrezkoa izango da, segurtasun neurriak beteta.

Ekin Emakumeak Elkarteak bi ikastaro jarriko ditu martxan

Joskintza ikastaroa martitzenean egingo dute, 10:00etatik 12:00etara. TAO ikastaroa edo "norbere burua sendatzeko gaitasuna garatu, estresa bizipoz bilakatu eta barne bakea lortzeko tailerra" azaroaren 5ean eta abenduaren 3an egingo dute. Izena emateko, 651 70 79 36 telefonora deitu edo *emakumeak@ekinemakumeak.eus*-era idatzi.

"Gaba Baltzean murgiltzeko" dei egin diete herritarrei

Ttak-ek, txosna batzordeak, Txatxilipurdi elkarteak, Arrasateko udal ludotekek eta gazte txokoek, elkarlanean, "Gaba Baltzean murgiltzeko dei egin diete herritarrei. Urriaren 24an eta 25ean, esate baterako, *scape room*-a egingo dute. Hilabetea zehar, bestalde, udal ludoteketan kumarko eta kalabaza tailerra egiten ari dira.

Zinegoak jaialdiko filmak Kulturaten ikusgai, hilaren 29an

19:00etan hasita, hainbat film labur ikusi ahal izango dira Kulturateko areto nagusian. Euskal Herritik, *Mi pequeño gran samurai*, Ekai Lersundi trans gaztearen istorioa kontatzen duen lana, Arantza Ibarak zuzenduta. *Adlib* lana ere ikusi ahal izango da eta Suedia, Costa Rica, Islandia edo Mexikoko beste lau film egongo dira.

Hango eta hemengo jaki gozoak, plazara

Zrepost gozoki denda ireki berri du Biteri plazan IMME emakume musulmanen euskal elkarteak. Kultura askotariko janari eta edariak eskainiko dira bertan. Hain zuzen, bizikidetzeta eta integrazioa ardatz dituen elkargunea izan gura du proiektuak

Hasier Larrea ARRASATE

Arabiako herrialdeetatik etorritako zenbait emakumek elkar laguntzeko eta euskal gizartean integrazioa errazteko asmoz sortu zuten IMME elkarteak, duela zazpi urte. Ordutik hona, makina bat ekimen jarri dute martxan, harreman sarea ehuntzen joan diren heinean: euskara eta gaztelera ikasteko eskolak, argazki erakusketak, konferentziak, dokumentalak, jostintza eta sukaldaritza tailerrak... IMME elkartearen bitartez, ahalduntzeko tresna garrantzitsuak eraiki dituzte jatorri askotariko etorkinek, eta adin, sexu eta erlijio aniztasuna bidelagun izan dute.

Abian jarri berri duten proiektuak "negozio kutsua baino gehiago bizikidetzeta kutsua" duela azpimarratu du Djamila Zereiby IMME elkartearen kideak. Haren esanetan, elkarteak sortu zutenetik zeukaten buruan halako bilgune bat sortzeko ideia:



Zrepost gozo-dendaren inaugurazioa. H. L.

"Argi geneukan batik bat jana-riak batzen gintuela euskal kulturarekin; geure jakiak kalera atera nahi genituen, bertako jakiei ere tokia eginez".

Asmo horri tiraka, Hemen gozotegiarekin jarri ziren ha-

rremanetan. Bertako langile Jaione Fernandez de Jauregik haxe adierazi du: "Hasieratik egin genuen elkarrekin joateko hautua, paregabea da egiten ari direna". Kooperazio horri esker, Ekialde Hurbileko, Marokoko

eta Euskal Herriko pastak, gozokiak, infusioak, kafeak eta freskagarriak erosi eta eraman ahaliko dira hemendik aurrera.

Emakumeak, erdigunean

Elkarteak finkatuta dauzkan helburuak lortzeko beste aurre-rapauso bat ematera dator Biteriko Tiburon kioskoaren ondoan kokatuta dagoen Zrepost saltokia. Dozenaka emakumek parte hartzen dute IMMEn, eta guztien artean astelehenetik domekara bitartean zabalik eduki nahi dute *take away* postua. Irabazi asmorik gabeko erakundea osatzen duten heinean, sorreratik jaso dituzte instituzio publikoen aldetik ekimenak sostengatzeko dirulaguntzak, saltokia irekitzeko ezinbesteko iturri izan dituztenak.

Hala eta guztiz ere, faborezko traturik izan ez dutela nabarmendu du Djamila Zereiby. "Lokala zabaltzeko orduan, Biteriko prentsa-kioskoak izan dituen baldintza berberak bete behar izan ditugu guk ere; lokal txikia den arren, etekina aterako diogulakoan gaude". Agerikoa da baikor daudela emakumeak.

Hurrengo urratsa, burujabetza

Dendan salgai edukiko dituzten produktuak kanpotik ekarriko dituzte, hasiera batean. Esan bezala, Hemen gozotegiak erraztuko dizkie bertako janari gozoak. Bestalde, Basauriko El Palestino dendatik etorriko dira jatorri marokoarreko jakiak; arabiar jatorrikoak, berriz, Madrildik.

Baina planteamendu hori ez dute luzaroan mantendu nahi. Izan ere, produktu exotikoak elkartearen kideek ekoiztea da proiektuari zentzu borobila ematen dion ideia; hau da, ahalik eta emakume gehienei lana eskaintzea. Horretarako, oinarri ekonomiko bat lortu behar dute lehenbizi, eta gero, gozokiak egiteko lehengaiak eta espazioa eskuratu. Espazioa lortzeko harremanetan jarriak dira jada; orain, herritarren erantzuna besterik ez zaie falta.

EMAKUME ETORKINAK LAN ESPARRUAN INTEGRATZEA DA ZREPOST DENDAREN HELBURU NAGUSIA

EUSKARALDIA

Banderatxoak eta txapak lortzeko postuak jarri dira

Herriko zenbait tokitan eskuratu daitezke Euskaraldia kolorez janzteko eta norbere rola identifikatzeko ikurrak

H.L. ARRASATE

Aurtengo edizioa hasteko aste eta erdiren faltan, leihoak eta balkoiak apaintzeko banderaxoak eta *ahobizi eta belarriprest* txapak kaleko izen-emate postuetan eta zenbait egoitzatan aurki daitezke jada.

Konkretuki, Ttukun fotokopia dendan, AEDn eta Goienaren egoitzan eskuratu daitezke banderaxoak, bost euroren truke. Norberaren rola identifikatzeko txapak BAZen egongo dira as-

teazkenetan, Arbolapetan edo Portaloian –euria eginez gero, udaletxeko arkupeetan– ostegun arratsaldeetan eta Gure Eskuren Erdiko kaleko lokalean ostiral arratsaldeetan.

Izen-emate postuetan Euskaraldia sostengatzeko arropak ere egongo dira salgai: telazko poltsak, kamisetak eta kozinatzeko amantalak, hain zuzen.

Salmentekin irabazitako dirua euskara bultzatzeko egitasmo estrategikoetara bideratuko da.

Josu Arkauz espetxez lekualdatu dute, Valladolidera

Murtzian urte luzez egon ostean, euskal preso arrasatearra Valladolideko kartzelara eroan izana "fundamenturik gabeko mugimendutzat" jo du haren familiak: "Are gehiago, aske gelditzeko hilabete inguru falta zaionean". Etxetik gertuago dagoen arren, onura baino kalte gehiago jasan beharko dituela azpimarratu du bere sendiak: "Urduriago dago orain, ohitura eta tenperatura aldaketak tarteko".

Josu Arkauzek duela bost urte bete zuen ezarri zioten kondanaren hiru laurdena. 1992an atxilotu zuten, eta, ordutik, Frantziako eta Espainiako kartzela ugaritatzeko pasa da.

SASKI BELTZA [betikoa]
eta Korrikaren katilua

50+5= **55€**

SASKI BERDEA [ekologikoa]
eta Seaskaren egutegia

60+5= **65€**

SASKI ZURIA [berezia]
eta Dereduaren haziak

70+5= **75€**

errigora.eus

ESKATU URRIAREN 24TIK AZAROAREN 12RA

SASKI EN BALIOAREN **%25** NAFARROA HEGOALDE ETA ERDI-ALDEKO EUSKAL-GINTZARA

5€ GEHIGARRI HERRI URRATS, SORTZENEN JAIA ETA KORRIKA EZ EGITEAK ERAGINDAKO GALERAK ARINTZERA

Haizea Tornay xakelaria, Alemaniako onenekin

Hessen herrialdeko ordezkari gisa sailkatu zen arrasatearra, udan, 18 urtez azpiko Alemaniako txapelketa gorenean. Aste honetan, 21 emakume onenen artean lehiatu da Tornay. Guztira, zazpi partidatan arituko da, eta azken biak zapatuan izango dira

Hasier Larrea ARRASATE

Alemaniako xake jokalarik gazteak Willingen hirian batu dira aste honetan, Estatu horretako xake txapelketa nagusiak jokatzeko. Hortaz, *land* edo lurralde bakoitzeko ordezkariak indarrak neurtzen ari dira bertan, 2020ko germaniar gazterik onenak nortzuk diren erabakitzeke.

Bitxia badirudi ere, aurrean arrasatear bat sartu da 18 urtez azpiko kategorian; lehiakideetan gazteena, gainera: Haizea Tornay. Xake jokalaria aski ezaguna da gure inguruko xake panoraman, adin guztietako afizionatu eta adituekin aritzen baita gertuko txapelketetan. Gutxiak jakingo dute, ordea, duela hiru urtera arte Hessen izeneko *land*-ean bizi zirela Tornay eta haren familia. Horregatik, Alemanian federatuta jarraitzen du gazteak, eta, Espainiako Federazioak antolatutako torneo ofizialetan jokatu beharrean, herrialde alemanekoan jokatzeko dagokio.

Iaz, Alemaniako txapelketa nagusian sailkatzeko gutxi falta izan zitzaion, bigarren gelditu baitzen Hessengo 16 urtez azpiko txapelketan. Arantzatzor hori kendu ahal izan du aurrean Tornay; udan Frantziako, Bulgariako eta Groseko nazioarteko torneo puntuagarrietan maila eman eta gero, munduko rankingean gora egin du, eta txapelketa germaniarrean parte hartzeko txartela poltsikoratu.

Tornay ez da pretentsio handiekin joan Willingenera, "ondo pasatzeko, ikasteko eta maila hobetzeko" helburuekin baizik. Kontziente da sekulako maila duten jokalariekin egingo duela topo. Lehiakideen artean badaude hiruzpalau jokalarik gainontzekoak baino pauso bat aurrerago daudenak. Beste guztiak, Tornay barne, oso parekatuta daude rankingean, elkarren artean puntu gutxiko tartea dute eta. 21 partaideetatik, ran-



Haizea Tornay, Willingengo txapelketan, lehen egunean. JOSU TORNAY

ALEMANIAN, BERE KATEGORIAKO XAKELARIEN ARTEAN HAMAHIRUGARREN POSTUAN DAGO

kingeko hamahirugarren postuan hasi da Tornay.

21 aurkarietatik lehena gelditzen dena munduko eta Europako txapelketetarako sailkatuko da zuzenean. Era berean, txapeldunordeak ere Europako torneo nagusian jokatzeko du.

Partiden nolokotasuna

Momentuz, lau partida jokatu ditu, eta denetariko emaitzak erdietsi. Lehen partida galdu egin zuenez, ez zuen punturik pilatu; bigarrenaren berdintzeak puntu erdi batzea ekarri zion; hurrengo biak irabazi egin zituen, eta pare bat puntu eskuratu. Beste hiru partida ditu aurretik, eta, momentuz, goiko postuetan dago. Bihar, zapatua, erabakiko da guztia.

Xakelari bakoitzak ordu eta erdi dauka lehen 40 mugimenduak egiteko. Ondoren, 30 mi-

nutu ematen dizkie epaileak, partida osoa amaitzeko.

Partidetako aurkariak beti daude sailkapenean elkarrengandik oso gertu. Hau da, lehen partida irabazten dutenek elkarren artean jokatzeko dute hurrengo; berdin galtzen dutenek. Kanporaketarik gabeko lehia da, horrenbestez, eta norberaren errendimenduaren arabera aurkari batekin edo besterekin nor baino nor gehiago aritzen dira.

Familia xake-zalea

COVID-19a dela eta, aurrean Tornay ezin izan da entrenatzailearekin kontzentrazioetan patxadaz elkartu, baina aitaren aholkuek, gutxienez, balio izan diote torneoari behar bezala aurre egiteko.

Izan ere, familiarentzat tradizioa da xakean aritzea. Aita eta bi osaba ibiliak dira nazioartean xake partidak jokatzen, eta mundu mailako txapelketetan ere parte hartuak dira. 13 urteko anaia gaztea eta lehengusu batzuk ere urrats handiak egiten ari dira dagoeneko. Esaera zaharrak dioen bezala, *nolako zura, halako ezpala*.

ARTk adierazi du baldintza hauetan ez duela ligarik jokatzeko

COVID-19a dela eta, momentuz, lehiatzeko arrazoirik ez dute ikusten Kanpanzar Arrasateko errugbilariek

H.L. ARRASATE

Euskal Errugbi Federazioak kontraktorik erabaki ezean, azaroaren 8an da hastekoa Euskal Ligako lehen maila. Joan den denboraldia martxoan bertan behera gelditu bazen ere, Kanpanzar Arrasatek bigarren mailatik lehen mailara igotzeko txartela lortu zuen, eta aurtengo denboraldian koxka bat gorago jokatzeko eskubidea erdietsi.

Praktikan, baina, gordin daude kontuak. Hasiera batean irailean hasi behar zuen liga azaroaren 8ra atzeratu behar izan zuen Federazioak, eta, gaurgaurkoz, data horrek indarrean dirau. Gizonezkoen senior mailako jokalariek, ordea, egun horretan partidarik jokatzeko ez dutela erabaki dute, norgehiagokara aurkeztuz gero hartuko lituzketen arriskuak saiheste aldera.

Julen Barrutia ARTko kirol zuzendariak esan duenez, "indarrean dagoen protokoloarekin ia ezinezkoa da liga bat aurrera ateratzea". Osasun neurri horien arabera, zelaian nahastu daitezkeen 46 jokarietatik bakarrak PCR testean positibo emango balu, jokalarik guztiak konfinatu beharko lirakeke. "Jokalariek argi esan dute ez dutela arrisku hori hartu nahi; are gutxiago, aste honetan osasun neurriak zorrotz direla jakinda", nabarmendu du Barrutiak.

Entrenatzen dabilta

Lan-saioetan kutsadurak ekiditeko neurriak hartzen ari dira Mojategiko errugbi zelaiko erabiltzaileak. Bai azpikategorietako errugbilariek, bai emakumezko eta gizonezko maila nagusikoek multzo txikietan entrenatzen dihardute.

Atletismoan izena emateko deialdiak irekita jarraitzen du

Arrasateko klubak 8 eta 16 urte bitarteko gazteen harrobia handitu nahi du; momentuz, 80 apuntatu dira

H.L. ARRASATE

Urtero zabaltzen dizkie ateak Arrasate Atletiko Taldeak atletismoko diziplinetan iniziatu nahi duten gaztetxoei, denboraldia hastearekin batera. Aurrean, 80 neska-mutilek eman dute izena, oraingoz, baina, Jon Ormaetxea komunikazio ardura-dunak esan duenez, "deialdiak irekita jarraitzen du *Arrasateatletiko.com* webgunean".

Normalean mutil baino neska gehiago apuntatzen direla nabarmendu du Ormaetxea, nahiz eta 16 urte betetzean balantzaren orekak beste aldera jotzen duen. "Gustatuko litzazuke adin horretara heltzen diren neskek gurekin entrenatzen eta lehiatzen jarraitzea; horretan saiatzen gara", adierazi du.

Benjamin eta alebin mailetako kirolzaleek era guztietako modalitateak probatzen dituzte

hasieran, norberak gustuko den diziplina aukeratzeko. 12 urtetik aurrerako gazteek, aldiz, lan-saio espezifikoak egiten dituzte, eta lehiaketetarako prestatzen dira. "2021era begira infantil mailako taldea osatu nahi dugu, Gipuzkoako txapelketetan parte hartu ahal izateko", aipatu du Ormaetxea.

Proba gehienak, geldi

Martxoan eskolarrak eta Federazio kirol lehiaketak bertan behera gelditu zirenetik ez da bakar bat ere antolatzeko aukerarik izan. Baliteke 2020a amaitu aurretik markak hobetzeko probaren bat egitea, baina zaila ikuste du Arrasate Atletiko Taldeak.

Malen Ruiz de Azua, Eneko Carrascal eta Iñigo Uribarren dira salbuespenak, Espainiako txapelketan lehiatzeko aukera baitaude atletak arrasatearrek.

Maite Arroitauregi *Mursego*, kontzertu batean. GOIENA

Bibliotekaren urriko azkena, Mursegorekin

Sortzaile eibartarrak borobilduko du Udal Bibliotekak urrian zehar programatu duen egitarau mardula, 'LAPUR(ari)KETAK' izeneko emanaldi musikatuarekin. Abesti ezagunen eta ez hain ezagunen bertsioak joko ditu Kulturaten, hilaren 30ean

Hasier Larrea ARRASATE

"Ezer ez da originala; artistok kanpo-erreferentzietan oinarritzen gara gure lan propioa sortzeko". Hausnarketa hori baliatzen du Maite Arroitauregi *Mursego*-k *LAPUR(ari)KETAK* ikuskizuna ontzeko. Formatu berezia dauka Udako Euskal Unibertsitateko ikastaro batzuetan aurkezteko enkargatu zioten lanak. Harkaitz Canoren gidaritzapean, *Literatura mutanteak* titulua zeraman programa hark, eta, hain justu, hasierako ideia-aren inguruan egituratzen zen: nola sortzaileek beste egile batzuen poemak, pelikuletako eszenak edo herri kantu zaharrak "lapurtzen" dituzten euren sorkuntza artistikoa elikatzeke, izan idazle, musikari, zinegile edo marrazkilari.

Lapurreta artistikoaren gaiak interes handia pizten diola onartu du Mursegok. "Egiten duzuna egiten duzula, damutu zaitezke, baina lapurtu zenuen horretaz ez zara damutuko", dio berak.

Erruki sentipenik gabe hartu ditu maileguan beste artista batzuek egindako lanak, bere ukitu pertsonala ezohiko eszenaratze baten bitartez gehitzeko: "Lehenbizi, lapurtzen dudana pieza originala jartzen dut bideoan, eta gero, nik landu dudana bertsioa jotzen dut".

Mursego ezagutzen duenak jakin badaki ez dela kontzertu arrunt batera gerturatuko, instrumentuez aparte, zenbait momentutan gorputzaren adierazmenarekin ere jolasten duelako Arroitauregik. *Performance* hitza gogoko ez duen arren, diziplina artistiko horretatik hurbil dauden espresioak erabiltzen dituela ez du ukatzen.

DIZIPLINA UGARITAKO ARTISTEN BERTSIOAK EROANGO DITU MURSEGOK KULTURATERA

Iturri askotatik edaten duen artista izanda, era guztietako interpretazioak eroango ditu Kulturatera *Mursego*-k. Paul Newton-en kanta bat, Gloria Fuertes-en poema bat, Laboaren *Komunikazio-Inkomunikazio* lan experimentalaren bertsioa, *El Sol del membrillo* filmeko eszena bat, *Si tú eres mi hombre* eta *Zure begiak* abestien arteko fusioa, *Jota Martina* trap taldeak *Camarón*-i egiten dion bertsio baten bertsioa, erromantze asturiar baten moldaketa... Kolore askotariko errepertorioa dastatu ahal izango da datorren ostiralean Kulturaten, 19:00etan hasita.

Bibliotekaren Egunari agur

Egun hori urriaren 24an ospatuko bada ere, hil osoko egitaraua eskaini du Udal Bibliotekak, adin eta gustu askotariko irakurle eta kultura-zaleengan pentsatuz. Arduradunek "aukera erakargarriak" ekarri nahi izan dituzte; ziur bat baino gehiago harrapatu dutela sarean.

'Botadun katua', familia osoari bideratutako antzerkia, bihar

Amaia antzokiak Glu Glu konpainiaren antzezlanaren jasoko du zapatu honetan, 17:00etan hasita

Hasier Larrea ARRASATE

Urtero egiten du Glu Glu antzerki konpainiak ipuin klasiko baten moldaketa musikatua. Aurten, Charles Perrault idazlearen *Botadun katua* ipuina aukeratu dute konpainiako arduradunek oholtzara eramateko.

Joan den zapatuan estreinatuzen obra, Zornotzako aretoan, eta haxe dio Ugaitz Alegria zuzendariak: "Hasieran, emanaldi bakarra eman behar genuen, baina, sarrerak agortu zirenez, emanaldi bikoitza eskaini genuen, azkenean".

Esan gabe doa ikus-entzule bizkaitarrek gogo onez hartu zutela antzezlanaren, "nahiz eta aurrean oso publiko zorrotza izan", aipatu du Alegriak, honakoa gehituta: "Umeei zerbait gustatzen ez bazaie, esan egiten dizute, edo alde egiten dute, bestela". Zuzendariak argitu du



Zornotzako emanaldian. UGAITZ ALEGRIA

familia osoarentzako antzerkia dela *Botadun katua*.

Irakaspena ezkutatzeko duen lana aurkituko du bihar Amaia antzokira gerturatzen denak. "Ezina ekinez egina, hori da bukaeran obrak zabaldu nahi duen mezua", borobildu du.

Lie Detectors rockerrek itxiko dute urriko Kooltur Ekintza

Datorren ostegunean, hilak 29, Donostiako eta Oreretako musikari beteranoak etorriko dira Arrasateko gaztetxera. Aurrez ere egonak dira Kooltureko egitarauan. Parrandazaleak izatez, umore ukitua ematen diete euren kanta itsaskorrei. Kontzertua, beti bezala, 22:00etan hasiko da, eta 7 eurotan salduko da sarrera.

Arzak buruzko dokumentala, asteartean Amaian

Arzak since 1897 filma proiektatuko dute datorren asteartean, hilak 27, Amaia antzokian, 20:30ean hasita. Asier Altuna zinegile bergararrak zuzenduta, sukaldaritza tradizionalak jasan dituen berrikuntzak deskribatzen dira bertan. Arzak jatetxea da lokalizazio nagusia, eta bertako jabe Juan Mari eta Elena, protagonistak.



Atariak

Bulegoak

Etxebizitzak

Elkarte gastronomikoak

Tabernak

Kristalak

Fatxadak

Teilatu-hodiak

686 57 67 83 Adolfo • 619 17 32 86 Maria Elena

Indarkeria matxistaren oinarriak, ilustrazioetan

Azaroaren 25aren harira kanpaina berezia abiatu du Gorbeialdeko Kuadrillak: 'Zer dira indarkeria matxistak?' Zazpi kontzeptu zazpi ilustrazio bidez azalduko dituzte, astero ilustrazio bat argitaratuta. Elisabeth Perez barakaldarrak egin ditu lanak

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Gorbeialdeko Kuadrillak kanpaina berezia abiatu du Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. "Helburua da indarkeria fisikoaz harago dagoena azaltzea. Azaldu nahi dugu zertan oinarritzen den indarkeria matxista; eta zergatik indartu eta mantentzen den gaur egun", azaldu du Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun teknikari Jone Unzagak.

Sentsibilizazio eta prebentzio kanpaina horren bidez, indarkeria matxista bere osotasunean landu nahi da, hedabideetan estaldura gehien dituzten kasuetan bakarrik jarri beharrean indarra. Horretarako, indarkeria matxista eragin, indartu eta mantentzen dituzten mekanismoak ilustrazioen bidez erakutsi nahi izan dituzte. Hain zuzen ere, Elisabeth Perez ilustratzaileak egin ditu.

Zazpi gai, zazpi ilustrazio

Indarkeria matxistaren existentziari azalpena emateko ezinbestekoa da, besteak beste, kontzeptu batuk barneratzea. "Zazpi kontzeptu identifikatu ditugu; horiek ematen diote erantzuna indarkeria matxistari, besteak beste", dio Unzagak. Zazpi kon-

tzeptu horiek gure jendartearen dakarten eta nola eragiten duten azalduko dute ilustrazioek. "Indarkeria matxistak zelan egituratzen diren ikustea ez da erraza izaten, erreproduzitzea eragiten dituzten jarrerak gure kultur sisteman oso barneratuta daudelako", gaineratu du Unzagak.

Astero bat erakutsiko dute

Azaroaren 25aren harira sortutako kanpaina dela kontuan hartuta, astero ilustrazio bat argitaratuko dute. Orain arte erakutsitako biak dira: genero rola eta estereotipoak, eta edertasun kanona.

"Indarkeria bezala ulertzen ez diren egoerak dira", dio Unzagak. Hau da, kanpainak erakutsi nahi duena da kolpe fisikoa bakarrik ez dela indarkeria matxista; hori bai, baina baita horren atzean ezkutatzen diren bestelako jarrerak ere.

Gorbeialdeko Kuadrillak astean behin ilustrazio bat argitaratu-

ORAIN ARTE, BI ILUSTRAZIO ARGITARATU DITUZTE: GENERO ROLAK ETA EDERTASUN KANONA

ko du: ilustrazio hori eskualdeko udaletara bidaliko du eta horiek arduratuko dira Internet bitartez edo sare sozial bitartez ilustrazioak zabaltzeaz. Gaur-gaurkoz, formatu digitalean bakarrik argitaratuko dituzte.

Tinta txinatarrez egindakoak

Barakaldokoa da Elisabeth Perez ilustratzailea: "Lehenengo ilustrazioan, rolen ingurukoak, irudikatu nahi dudana da gizonen beti lotu izan direla lehoiak aditzera ematen dituen balioekin: indartsuak, ausardia... Eta zebra, aldiz, gainontzeko animalien harrapakina izan da. Baina ikus daiteke moztortuta daudela. Izan ere, moztorroak aldatu egin daitezke. Pertsonalitatearekin du zerikusia, eta ez generoarekin".

Kanpaina aurrera dioan heinean ilustrazio gogoragoak eta serioagoak landuko dituztela azaldu du Perezek. Ilustrazioetan landu beharreko gaiak Berdintasun Sailak ezarritakoak izan direla dio, eta, hori horrela, asko ikasi duela.

Ilustrazio guztiek kromatismo bera izango dute eta tinta txinatarrez egindakoak izango dira, digitalki landuak. "Uste dut gaia ondo ulertzen dela ilustrazioetan", dio Perezek.



Lehenengo ilustrazioan genero rola landu dituzte. GORBEIALDEKO KUADRILLA



Bigarren ilustrazioan Edertasun kanona landu dute. GORBEIALDEKO KUADRILLA

Herrian kontsumituta sariak irabazteko aukera egongo da

'Harraskatu eta irabazi' ekimena jarri dute abian eskualdean; 698 sari banatuko dituzte, guztira

A.E. ARAMAIO

Gorbeialdeko Kuadrillak eta Gorbeia Inguruetak Landu Garapenerako Elkarrekin jarri dute martxan kanpaina. *Gorbeian bizi Gorbeian erosi* kanpainaren barruan, *Harraskatu eta irabazi* txartelak

banatuko dituzte kanpainara atxiki diren establezimenduetako bezeroen artean. Eskualdean 88 establezimendu batu dira ekimenera.

Aramaioko kasuan, hamabost establezimendu batu dira eki-

menara: Iturrioste garajea, Coviran Kintelena, B. Lopez harategia, Ibarra botika, Anus ile-apaindegia, Ibarra okindegia, Paska arrandegia, Arbel kooperatiba, Iturrieta sagardotegia, Añai taberna, Anboto taberna, Dukiena jatetxea, Unzueta sagardotegia, Eder ile-apaindegia eta Ekonomatua.

Eskualdeko jarduera guztiak irabazteko aukera egongo da tokiko kontsumorako kupoia, esperientziak, nekazaritza-elikadurako produktuak, artisau-

tza, sari zuzenak... Horretarako, eskualdeko establezimenduetan kontsumitu beharko da, kupoia hartu, harraskatu eta irabazi. 40.000 txartel inguru banatuko dituzte eskualdeko 88 establezimendutan, 698 sarirekin.

Saririk lortzen ez duten txartel guztien artean bi lagunentzako bi bazkariren edo afariren zozketa egingo dute, gainera. Kanpainaren helburua, besteak beste, herritarren fidelizazioa sustatzea izango da, eta herriak dinamizatzea.

Mendi publikoen kudeaketa aztertuko dute martitzenean

Hilaren 27an, martitzena, bilera irekia egingo dute mendi publikoen kudeaketako plan berriaren harira. Mendi publikoen kudeaketa ereduaz aztertuko dute. Interesa duenak izena eman beharko du aurrez. Horretarako, udaletxera deitu beharko du -945 44 50 16-, edo mezua idatzi: udala@aramaio.eus. 18:00etan izango da, kultura etxean.



Puro Relajo taldeak urriaren 17an Arrasaten eskainitako kontzertua. GOIENA

Erretiratuak izan dira sarrerak erosten lehenak

Puro Relajo taldeak emanaldia eskainiko du Jubilatuen Eguna izan beharko litzatekeen egunean; hori horrela, lehentasuna izango dute sarrerak erosterakoan. Gaur dute azken eguna; gainontzeko herritarrek datorren astean eros ditzakete

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Soinu mexikarrak eskaintzen dituen Puro Relajo taldeak emanaldia eskainiko du urriaren 31n, zapatua, 17:30ean, Aramaioko kiroldegian. Jubilatuen Eguna ez da ospatuko aurten; baina egun horretarako aurreikusita zegoen kontzertuarekin aurrera egitea erabaki dute. Hala, erretiratuek izan dute sarrerak erosteko lehentasuna.

Sarrerak Aramaioko udalategian erosi behar dira; eguaztenean hasi ziren salmentarekin eta gaur izango dute sarrerak erosteko lehentasunean azken eguna erretiratuek. 5 euroren truke eros ditzakete, gehienez bakoitzak lau sarrera.

Jairik ez, emanaldia bai

"Aramaioko jaietarako aurreikusitua genuen kontzertua lehenengo; jairik ez zenez ospatu, Jubilatuen Eguna pasa genuen emanaldia; eta, orain Jubilatuen Eguna egingo ez den arren, emanaldia eskaintzea erabaki

dugu", azaldu du Kultura teknikari Itsaso Aspiatzuk.

Sarrerak udaletxean erosi behar dira. Esan bezala, lehentasuna herriko erretiratuek izan dute, eta datorren astean gainontzeko herritarrek izango dute sarrerak erosteko aukera. Urriaren 26tik 30era bitartean izango da hori.

Edukiera mugatua izango da

Gaurtik eta kontzertuaren egunera bitartean bestelako neurri zorrotzagorik ipini ezean, emanaldiak edukiera mugatua izango du. Aramaioko pilotalekuan 190 bat lagunendako tokia dagoela azaldu du Aspiatzuk, baina kontzertua ikustera joango diren "burbuilen" arabera jakingo

EMANALDIKO SARRERAREKIN BATUTAKO DIRUA AITA MARI PROIEKTURA BIDERATUKO DUTE

gutela zenbat jenderendako egongo den lekua: "Pertsona bakoitzak lau sarrera erosteko aukera izango du; hortaz, lau burbuilak, edo binakakoak, bakoitzak... hala etor daiteke jendea kontzertura. Horren arabera, edukiera zerbait alda daiteke".

Bestalde, Segurtasun Sailak ezarritako segurtasun neurriak bete beharko direla nabarmendu du Aspiatzuk.

Batutako dirua, Aita Mariri

Aramaioko Izaskun Arriaran erizaina boluntario den Aita Mari proiektura bideratuko dute kontzertuan jasotako dirua.

Doinu mexikarrak eta klasikoak
Nafarroako Puro Relajo taldeak soinu alaiekin giroten ditu emanaldiak: Mexikoko doinuak eta euskal kanta tradizionalak eskaintzen dituzte, euren ukitu pertsonala emanda. 2014an sortu zuten taldea; orduetik hona, arrakasta handia lortu dute Euskal Herrian.

NIRE USTEZ



JOKIN LARRAÑAGA

Tximista

Bihotza sentitzeko eta burua pentsatzeko. Lehena, argi eta garbi; bigarrena, ez dakit ze puntura arte. Giza arrazoimenaren eta sentimenduen arteko haustura hau da, izatez, fabrika kokatzeko lekuri proposena. Badaki ugazabak. Pentsa dezagun, adibidez, ibilgailu elektrikoetan. Ze arazo konpontzen du kotxe elektrikoak? Saltzaileen ahotan, kutsadura izugarri murriztuko duen asmakizuna da. Baina zein da errealitatea? Kotxea osatzen duten pieza guztiak erregai fosilek elikatutako makinek fabrikatu, eraldatu, garraiatu eta muntatzen dituztela. Gainera, inon ez da ageri kotxe baten gupil eta frenoek askatzen dituzten partikula kutsakorren notiziarik (PM10 eta PM2.5); edo bateria elektriko batek dituen materialak lortzeko egiten diren sarraskien daturik; edo kotxea bera mugituko duen elektrizitatearen jatorriaren inguruko informaziorik – elektrizitatea sortzeko erregai fosilak erabiltzen dira-. Beraz, ze arazo konpontzen du kotxe elektrikoak? Bat ere ez. Kotxez aldatzeak, edo bizikleta zein patinete elektriko bat erosteak, norbaiten kartera loditzea eragingo du soilik.

Harri-jasotze eta aizkora txapelketak jokatu dituzte etzi

Urriaren 25ean, domekan, 12:00etan hasita herri kirolez gozatzeko aukera egongo da Aramaioko kiroldegian. Sarrera 10 euro izango da eta egunean bertan erosi beharko da.

Urrezko binakako harri-jasotze txapelketa izango dute lehenengo, *Gruas Iru saria*. Urdax Magunazelaia eta Jon Irañeta lehiatuko dira nor baino nor

gehiago. Lan egin beharko dute ondorengo harriekin: 175 kiloko laukizuzena, 138ko kubikoa, 100 kiloko zilindro zaharra eta 100 kiloko bola.

Lan horiek amaituta, aizkolariak hasiko dira. Euskadiko aizkolari txapelketa jokatu dute, 3. mailari dagokiona. Luis Polanco, Beñat Amade, Mikel Agirre, Aitor Urteaga, Axel Larrañaga, Inigo Landa, Unai Zabala, Julen Aranberri Elorriaga II.a, Ibai Soroa, Iker Gorriti eta Oier Larretxea lehiatuko dira.

GORA ETA BEHERA




Kristalak apurtu dituzte San Martin eskolan

Aste bukaera izan ziren apurketak. Harriak bota eta eskolako kristalak apurtu zituzten; gainera, jangelara eta haur eskolara sartzen saiatu ziren. Udalak "larritzat" jo du gertatutakoa. Segurtasun handiagoa nola jarri aztertzen ari dira alarma daraman enpresarekin.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



ARAMAIKO ESKOLA

Lagunkoiaren txostena udal ordezkariak dute

Basotxo erretiratuen elkartearen bueltan sortutako taldeak udalerria hobetzeko proposamenak dituen txostena helarazi dio Udal Gobernuari; zortzi eremutan banatuta askotariko gaiak landu dituzte eta "gustura" geratu dira egindako lanarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Udalerria hobetzeko proposamenak jaso ditu Aretxabaleta Lagunkoia taldeak txosten batean, eta hori udal ordezkariak helarazi die. Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekimenak zortzi eremu zehaztu ditu aztertzeko, eta horiek guztiak garatu ditu Basotxoren bueltan sortutako taldeak. Orain, Udalarri dagokio lan horri heldu eta erantzutea.

Hirigintza kontuak eta beste

Basotxo erretiratuen elkarteak ekitaldi asko utzi behar izan ditu bertan behera martxotik, baina Aretxabaleta Lagunkoia taldeak elkartzen jarraitu gura izan du: "Gogaituta gaude COVID-19ak sortutako egoerarekin; horregatik, lanean jarraitzea erabaki dugu. Taldea aldatuz joan da, batzuek ezintasunagatik eta beste batzuek beldurragatik uko egin diotelako, baina lana bermatuta dago", dio Pedro Etxebarriak, taldeko kideak. 2013an



Erretiratu bat bidegorrian. MIRARI ALTUBE

aurkeztutako txostena berreskuratu eta egokitu egin dute, Udalak eskatuta, eta behin betiko txostena bideratu diete orain. "Azpimarratuko nituzke, batetik, gu geu oso gustura geratu izana egindakoarekin, eta, bestetik,

Udalarekin sortutako harremana. Basotxo aktibo dagoela erakustea ere garrantzitsua da guretako, tabernatik harantzago doalako elkartearen jarduna".

Era askotako gaiak landu dituzte txostenak jasotzen dituen

zortzi eremuei esker; hona hemen horiek: *Aire zabaleko guneak eta eraikinak; Garraioa; Etxebizitza; Parte-hartzea eta gizarte sarea; Errespetua eta gizarteratzea; Herritarren parte-hartzea eta enplegua; Komunikazioa eta informazioa; eta Gizarte eta Osasun zerbitzuak*. "Guk sustatutako lanen artean daude, adibidez, animalien gaineko ordenantzen berrikusketa, ibai alboko pasealekuaren lanak bukatzea eta Herriko Plazako eskailerak", azaldu du Etxebarriak, eta aurrera begira dituzten beste eskaera batzuen berri eman du: "Larrino auzoa Bedoñarekin elkartzea, Aozaratza bidegorria Urkulurekin bat egitea..."

Dena den, argi utzi gura du Hirigintza Sailetik harantzago doazela haien kezka eta proposamenak: "Etxeetan zerbitzua ematen duten langile immigranteen egoera, edadeko askoren bakardadea...". Errespetuaren gaiari ere erreparatu diote, eta, horretarako, herriko hainbat ikastetxetako zuzendariak bildu ziren, gaia zelan lantzen duten ezagutzeko: "Izugarri gustatu zitzaigun, eta, hortik abiatuta, adinekoekiko errespetua gai hartuta, idazlan lehiaketa antolatzea bururatu zitzaigun". 12 eta 16 urte artekoen 145 lan jaso dituzte, eta dagoeneko sailkatu eta irabazleak hautatu dituzte. Sari banaketa datozen egunetan egingo dute.

Parte-hartzea bermatu

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Karmele Uribarriren ardurapean dago orain txosten hori: "Alkatuek eta biok irakurri dugu, eta horri zelan heldu zehaztea dagokigu". Haren asmoa da Udal Gobernuak zinegotzien artean banatzea lanak; hau da, gai bakoitza dagokion arloko zinegotziaren ardurapean uztea. Horretarako bilera datorren astean egingo duela aurreratu du.

Bestetik, jasotako eskaera batzuk dagoeneko bideratuta daudela adierazi du, eginda edo egiteko bidean. Hortaz, horren guztiaren berri ere emango die Aretxabaleta Lagunkoia kideei.

Erronka polita dutela aurrez aurre gaineratu du: herritar guztien parte-hartzea erraztea. Uribarriren nahia da Udalaren dokumentu guztiak edonork ulertuko dituen hizkuntzan eskaintzea, eta lan horri heltzeko gertu agertu da: "Argi dut herritarren parte-hartzea erraztu behar dela, eta hori erakundeoi dagokigu". Lan polita egin duela Aretxabaleta Lagunkoia uste du: "Ekarpen interesgarriak egin ditzakeen jende gehiago ere badago; hortaz, animatu!".

ERRESPETUAREN GAIENKO IDAZLAN LEHIAKETAN 145 IKASLEREN LANAK JASO DITUZTE

Terrazen ordenantzarako ekarpenak jasoko ditu Udalak

Ostalariek eta herritarrek proposamenak egin ditzakete Udalaren webgunearen bidez, gaurtik azaroaren 9a arte

Mirari Altube ARETXABALETA

Bide publikoan mahaia, aulkiak eta ostalaritzarekin zerikusia duten bestelako altzari batzuk jartzea arautuko duen udal ordenantza egingo du Udalak. Gaur-gaurkoz, ez dago halakorik, eta lan hori hasteko prozesu parte-hartzailea zabaltzea erabaki du. Hala, ostalariek zein herritarrek zerbitzu horrek bete beharko dituen baldintzei buruzko proposamenak egin ahal izango dituzte.

Ekarpenak udaletxeko harreman egin ahal izango dira, edo

Udalaren webgunearen bitartez: www.aretxabaleta.eus. Eta horretarako epea izango da gaurtik, urriaren 23tik, azaroaren 9a bitartean. Webgunearen bidez eginez gero, hona modua: *Klik batean-Parte hartzea* atalaren barruan, *Egin zure ekarpena* sakatu eta bete. Iradokizun guztiak aztertuko dituztela ordenantza zehazteko orduan adierazi du Udalak.

Terrazen jarraibideak zehaztu

Udal ordezkariak uste dute orain arte araurik egon ez izanak ba-

tzuetan "ziurgabetasun egoerak" eragin dituela ostalarien eta bizilagunen artean, "une bakoitzean egokitzen jo diren irizpideak" aplikatu direlako. Hori horrela, ordenantza honen helburua da bide publikoan terrazak nola jarri arautzeko eta baimentzeko jarraibideak eta irizpideak zehaztea. Gaineratu dute COVID-19ak areagotu egin duela erregularizatzeko araudi propioa izateko beharra.

Ordenantza berriak arautuko ditu, besteak beste, kalea okupatzeko baldintzak, terraza osa dezaketen elementuak, herritarren arteko bizikidetzak ona eta espazio publikoaren erabilera arrazionala oinezkoentzako irisgarritasuna bermatzeko. Behin ordenantza zehaztutakoan, alegazioak aurkezteko epea zabalduko du Udalak.



M.A.

Gabonetarako gertu

Gabonetarako bi hilabete pasatxo geratzen dira, baina, lanak azken ordurako utzi barik, Udalak dagoeneko jarri ditu apaingarriak kaleetan. Errekarbarren kaleko pinua, gainera, argizatuta utzi zuten astelehen gauean, eta herritarren ikusmina sortu zuen. Udalak jakinarazi du "nahastea" izan zela eta argiak geroago, abenduaren bueltan, piztuko dituztela.

Eguzki-plakak jartzeko laguntzak izango dira

Ordenantza fiskalak onartu zituen udalbatzak atzo, eta zerga eta tasa gehienak izoztu egingo dituzte 2021ean. EH Bildu pozik agertu da, etxebizitzetan eta hainbat eratako jardueretan eguzki-plakak jartzeko laguntzak eskainiko dituelako Udalak

Mirari Altube ARETXABALETAKO

2021eko ordenantza fiskalak onartu zituen atzo, urriak 22, udalbatzak, eta zerga eta tasa gehienak izoztu egingo dituzte; besteak beste, ondasun higiezin-gainekoa, autoen gainekoa, urarena eta Ibarra kiroldegiko tasak. Zaborra bakarrik igoko dute: %5, hain zuzen ere.

Etxeetan eguzki-plakak

EH Bildu pozik agertu da, eguzki-plakak jartzeko laguntzak adostu dituztelako Udal Gobernuarekin. "Ondasun higiezinaren zergaren bitartez 1.000 euro emango zaio familia bakoitzari etxe bakarrikaren kasuan; eta 3.000 euro arteko laguntza izango da hainbat bizilagunen artean jarritz gero edo lan-jarduera baten kasuan. Betiere, egindako inbertsioaren erdia baino gutxiago bada laguntza hori", adierazi du Ion Albizu bozeramaileak.

Zaborraren tasa egokitzea

Udal Gobernuak proposatutako zergak eta tasak izoztearekin bat etorri da EH Bildu: "Egoera honetan hori tokatzen da eta".

Bestetik, konfinamenduan itxita egondako merkataritza eta ostalaritza zerbitzuei terrazengaineko tasarik ez kobratzea onartu zuten atzo, eta hobariak



Aretxabaletako etxebizitzak batean jarritako eguzki-plaka. ION ALBIZU

aplikatzea uraren eta zaborraren tasetan. EH Bildu begi onez ikusi ditu, baina harantzago joan da: "Azken bost urteotan eskatzen gabiltza modu estrukturalen gainbegiratzea tasa horiek, bereziki zaborrarena, jarduera eta merkataritza zerbitzu batzuk asko ordaintzen dabilzela. Hori betiko egokitu beharko litzateke, eta ez aurtengo kasuan bakarrik".

"Beharra dutenei" laguntzak

COVID-19ak baldintzatutako urtea izanik, beste proposamen

bat ere badabilta lantzen: "Laguntza beharra dutenei zuzenean emateari egokiago deritzogu. Adibidez, herrian hainbat jarduera –tabernak, harategia...– izan dira itxita azken hilabeteotan, berrogeialdian egon direlako. Eta baliteke etorkizun hurbilean berriro itxi beharrean izatea; ostalaritza zerbitzuak, esaterako, Nafarroan gertatutako lez. Horiei dirulaguntza zuzenak zelan eman aztertzen gabiltza, itxita egondako egun bakoitzeko, adibidez", azaldu du Albizuk.

EUSKARALDIA

Norbanakoak hasi dira Euskaraldian izena ematen

'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' filma izango da bihar Arkupen, eta bukaera, solasaldia zuzendariarekin

M.A. ARETXABALETAKO

Euskaraldia abian jartzeko hilabete geratzen da, *belarriprest* eta *ahobizi* rola hautatzeko sasoia iritsi da; herritarrek ere hasi dira horretan. Aretxabaletako batzordekideek mahaia jarriko dute kalean; domekan, Ibarra futbol zelaian izango dira; eta egunean, Portasol inguruan.

Film emanaldia bihar

Euskaraldiak kultur ekitaldiak ere ekarriko ditu herrira. Bihar, zapatua, esaterako, Lander Garrrok zuzendutako *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* filma emanango dute, Arkupen –19:00etan da, baina 18:30erako zabalduko dituzte ateak eta iritsi ahala sartuko dira, edukiera bete arte; sarrera: 4 euro–. Intsumisioaren



Izenak jasotzen kalean. EUSKARALDIA

gaineko filma da, eta zuzendaria bera etorriko da, bukaera kontu kontari jarduteko. Azaroaren 7an, ostera, Bizarro talde oñatiarra izango Arkupen (19:00).

Bazkideak, babesleak eta kirolariak eskertu gura izan ditu UDAK

"Garai zailetan" ere alboan izaten ari diren babesleei, bazkideei eta kirolariei eskerrak eman gura izan dizkie Aretxabaletako kirol elkarteak: "Zuek zaretze gure jardueraren motorra eta aurrera jarraitzeko indarra".

Egungo osasun egoera UDAREN jardueran ere eragiten dabilela onartu dute: "Gizartean hainbat aldaketa eta egoera berri ari

gara bizitzen, eta, nola ez, UDAREN jardueran ere eragiten ari da, dakizuen moduan. Dena den, egoera hauetara moldatzeko lan egiten dugu, eraldaketa prozesu honek, aldi berean, hobetzen lagunduko digun ustearekin".

Egoerak egoera, kirol jarduerak bermatzeko lanean jarraitzeko asmoa agertu dute elkarrekin: "Herriari eta herritarrei kirol aukera ezberdinak eskaintzeko eta definitzen gaituzten balioen transmisioarekin jarraitzeko".

Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoa

Endodontzia

Implantologia

Ortodontzia

PADI zerbitzua

Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00

Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55



Aretxabaletako haurrak, mozerrotuta, Gaba Baltza ospatzen. EKAITZ FILARMENDI

Gaba Baltza ospatzeko, arimak bilatu behar

Azken urteetako kalejira egin ezin dela eta, Loratuko kideek 'escape room' bat prestatu dute Arimen Gaua modu berezian lantzeko. Jolasa Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailetakoko ikasleendako da, eta aurrez izena eman beharko da ludotekan

Uxue Igarza Loiola ARETXABALETA

Duela lau urte berreskuratu zen Aretxabaletan Gaba Baltza edo Arimen Gaua ospatzeko ohitura. Ordutik, Loratuko antolatuta, urtero egin dira kalejira eta sua, plazan. Gainera, ospakizunaren inguruko tailerrak ere egin izan dituzte; besteak beste, mozerroak prestatzeko ikastaroak.

Aurten, ordea, pandemiaren eraginez, moldatu egin behar izan dute, eta *escape room* gisa jolasa prestatu dute. Parte-hartzaileek baldin dagoen arima aurkitu beharko dute, Loramendiko hiru gelatan barrena. Horretarako, ordea, hainbat proba gainditu beharko dituzte, eta geletatik irtetea lortu. Maiailen Mendieta Loratuko kideak azaldu duenez, ospakizunarekin lotura duen istorio bat asmatu dute, eta, modu dibertigarrian, ohitura zaharra bizirik mantendu nahi dute. Aurreratu duenez, zirrara sumatzen da ludotekan.

Jolasa Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailetakoko ikasleei zu-

zendutakoa da, baina, Mendieta argitu duenez, ez da inor bel-durtzeko helburuarekin egin. Musikak giroa, parte-hartzaileek, seiko taldeetan, geletatik irtetea lortu beharko dute.

Hiru egun eta bost txanda

Escape room-a egiteko, guztira bost txanda egongo dira. Lehenengo hilaren 28an 17:15etik 18:00etara izango da eta bigarrena, ordu berean, hilaren 29an. Gainerakoak hilaren 30ean izango dira: 17:15etik 18:00etara, 18:15etik 19:00etara eta, azkena, 19:15etik 20:00etara. Mendieta argitu du batetik besterako tarteak desinfekzio lanak egiteko baliatuko dituztela.

**JOLASAREN BIDEZ
OSPATU AHAL IZANGO
DUTE ARIMEN GAUA
ARETXABALETAKO
GAZTETXOEK**

Horri lotuta, parte hartzeko, aurrez izena eman beharko da ludotekan, euro baten truke. Ludoteka 16:30etik 19:30era dago zabalik, eta, bertako erabiltzaileez gain, gainerako gazteek ere eman ahalko dute izena.

Gaba Baltza ez da Halloween

Euskal tradizioan murgilduz gero, erraz aurki daiteke urriaren 31ren bueltako informazioa. Askok "inposatutako Halloween jaia" ospatzearen kontra egin dute azken urteetan, baina ez dakite 50eko hamarkadara arte gure herri eta eskualde gehienetan errotutako ohitura izan dela Arimen Gaua ospatzea.

Dena den, bai Ameriketako Estatu Batuetan eta bai hemen, ospakizunak antzekotasun ugari ditu: kalabazak hustea eta barruan kandelak sartzea, maindireekin mozerrotzea, baserri baserri kantuan joatea... Gainera, Arimen Gaua gain, azaroaren 2an Hilan Eguna ere ospatzen da Euskal Herrian.



Xatiro rap abeslaria kontzertu baten. UNAI UNDA, XATIRO

Asteburuko kultura eskaintza bikoitza izango da Arkupen

Kulturaz gozatzeko bi ikuskizun eskainiko dituzte Arkupen asteburuan; lehenengoa, gaur bertan

Uxue Igarza Loiola ARETXABALETA

Gaur, egubakoitza, Unai Unda *Xatiro*-k emango dio hasiera asteburuari. 22:00etan, hip-hop doinuak beteko du Arkupeko Zairaia aretoa, baina pandemia egoerara moldatu da artista.

Xatiro-k azaldu duenez, rap erritmoek jendea mugitzera eta dantza egitera bultzatzen dute, baina badaki egoera honetan nork bere eserlekuan egon behar duela, eta, horregatik, ikuskizuna eraldatu egin du. Rap kontzertuan, ikus-entzunezkoak ere txertatuko ditu, eta bertaratzen direnak espazio-ontzi batean

murgilduko dira. Konfinamenduaren ostean egiten duen bigarren emanaldia da gaurkoa.

Bestetik, igandean, 19:00etan, "Disney maitasunari" eta Kupidoren mitoari helduko die Aitziber Izquierdo aktoreak. Umorea nagusi izango den antzezlanetan, Maitane protagonistaren istorioa kontatuko du.

Sarrerak, oraindik eskuragarri

Asteburuaren atarian egon arren, oraindik badago ikuskizunetara gozatzeko aukera. Sarrerak ez dira agortu, eta lau eurotan daude salgai.

Aurten urrezko ezteiak betetzen dituztenak batzarrera deitu dituzte

2020an 50. ezkontza urteurrena ospatuko duen Aretxabaletako bikote batek –Mari Karmen Gutierrez eta Pedro Etxebarria– egoera berean dauden gainerako bikoteei proposamena egin gura die: urrezko ezteiak elkarrekin ospatu ekitalditxo batekin.

Hori erabakitzeke eta antolatzen hasteko, bilera batera gonbidatu dituzte horiek guztiak –gutxienez, hoguei bikote izango direlakoan daude–. Azaroaren 4an, eguaztena, izango da, 18:15ean, komentuan. "50 urte daramatzagu elkar maitatzen, familiak sortu ditugu eta hori guztia ospatu gura dugu. Batzarraren helburua izango da adostea zer egin, noiz, zelan...", diote.

OHARRAK

Odol ateratzea

Eguaztenean, hilaren 28an, odola emateko aukera izango dute herriarrek Durana kalean egongo den autobusean (16:45-20:00).

Hikapraktika taldea

Hitanoz berba egiteko batzen den Hikapraktika taldea astero elkartzeko da. Interesa izanez gero, Loramendira jo: 685 75 67 29 eta euskara@loramendielkartea.eus.

Errigorako saskiak

Errigorako saskiak eskatzeko epea bihar zabalduko da, azaroaren 12a bitartean. Online –*Errigora.eus*– egin daiteke, edo Loramendira jota –685 75 67 29–.

Uraren tasak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku

Orokorrean, zergak eta tasak mantendu egingo dituzte, salbuespenekin. OHZ, ibilgailuen zerga, aktibitate ekonomikoena... mantendu egingo dira. Zaborren tasa, berriz, %4,1 igoko da eta kiroldegian ere euro bat igoko da urteko abonamendua

Imanol Beloki ESKORIATZA

Joan den astean hil zen Iñaki Kerexeta Eskoriatzako Elizateen Elkarteko zinegotzia oroitzuz, minutu bateko isiluneaz hasi zuten urriko ezohiko osoko bilkura Eskoriatzako udalbatzako kideek. Horrekin batera, loreak utzi zituzten Kerexeta esertzen zen lekuan, bera gogoan. Horren ostean hasi ziren mahai gainean jarritako gaiak tratatzen. Gai zerrendari dagokionez, azpimarratzeko bi puntu izan ziren: batetik, pandemiak dirauen bitartean, batzordeak eta osoko bilkurak era telematikoa egitea onartzea; eta, bestetik, 2021erako Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamena onartzea.



Kerexetaren omenez minutu bateko isilunea egin zuten osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

Telematikoki batuko dira

Pandemiaren lehen sei hilabeteetako batzordeak eta osoko bilkurak telematikoki egin zituzten udal ordezkariak. Irailko osoko bilkurara, berriz, era fisikoan egin zuten, berriz

osoko bilkuren aretora bueltatuta. Edozelan ere, osasun larrialdi egoerak dirauen bitartean kide askotariko organoen bilkurak era telematikoa egitea onartu zuten martitzenean, aho batez.

Udal Gobernuaren proposamena

EAJren 2021erako Ordenantza Fiskalen proposamena onartua izan zen, alderdi jeltzalearen baiezkotza eta EH Bilduren ezezko botoekin. Bilduk egindako bi proposamen onartuak izan ziren

arren –baserritarrek udal askula erabiltzean %95eko onurak izatea eta kiroldegian langabezia daudenentzako igoerak izoztea–, ez zuten nahikotzat jo oposizioko kideek baiezkotza emateko.

Ur tasa, Kontsortzioaren esku

Honako hau adierazi zuen Josu Ezkurdia alderdi jeltzaleko bozeramaileak Ordenantza Fiskalen proposamena mahai gainean jartzean: "Zerga guztiak mantendu egiten ditugu: OHZ/IBI, ibilgailuak, aktibitate ekonomikoak eta abar. Uraren tasa, berriz, Ur Kontsortzioak kudeatuko du, eta ondorio bat da tasak beraiek ezarriko dituztela, eta ez Eskoriatzako Udalak. Hala ere, hobekuntzak izango ditu honek: kontsumo baxuko etxebizitzek %8 inguru ordainduko dute eta kontsumo altukoek, aldiz, gehiago ordaintzen jarraituko dute. Zerbitzuaren eta arretaren kalitatea hobetuko da; egin dugun hitzarmenak dio datozen hamar urteetan milioi bat euro inbertituko duela Urak-ek gure sarea elikatzen, eta sare berria izango da Marinen eta Zarimutzen. Hala, jasangarritasunaren aldeko apustua egiten dugu. Aurtengo tarifekin alderatuz, bestalde, kontsumo baxuko familiak –1-30 m³ bitartekoak– 42 eurotik 38 euro ordaintzera pasatuko dira; kontsumo ertainekoak –31-60 m³– 65 eurotik 71 eurora pasatuko dira; eta kontsumo altukoak –61 m³ baino gehiago– 112 eurotik 115

euro ordaintzera pasatuko dira. Zaborren tasak, berriz, %4,1eko igoera izango du, eta kiroldegiko abonauk ere euro bateko igoera izango du urtean, COVID-19aren ondorioz, langabezia daudenei aplikatuko ez zaiena, eta ikastaroetan, %0,3ko igoera aplikatuko da...", adierazi du Josu Ezkurdia, EAJko bozeramaileak.

EH Bilduren erantzuna

"Baliabide naturalen kudeaketa arduratsuagoa egite aldera, bi proposamen egin ditugu: batetik, ur kontsumo orekatua bideratuz; eta, bestetik, konposta egitea bultzatuz. Udal Gobernuaren proposamenean, ur kontsumoa merkeagoa izango zaigula saldu zaigu. Datuak arretaz irakurritak, aldiz, denentzako merkeagoa ez dela izango ohartu gara. Hilabetean 7,6 m³ baino gutxiago –%7,5– eta asko kontsumitzen dutenek –hilabetean 25,3 m³, %25– bakarrik izango dute merkeago, baina ez eskoriatzarren %60k –10 m³ eta 30 m³ artean kontsumitzen baitute–. Garbi adierazi nahi dugu Ur Kontsortzioak kudeaketa integrala eramatearekin ados gaudela, zerbitzuen hobetzea ekarriko baitu, baina ez fruituak eman, ur politika egiteko eskumena galduko baita. Bestalde, gure gazteen etorkizuna eraikitzeke esperantzaz badagoela ere erakutsi nahi izan diegu...", adierazi du Nestor Aran, Bilduko bozeramaileak.

Ekonomia dinamizatzeko dirulaguntzak, jendaurrean

Azaroaren 10era arte jendaurrean daude, interesdunek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak apirilaren hasieran galdetegi bat bidali zuen ETE eta tokiko establezimenduetara, COVID-19aren krisiari zegokionez zein egoeratan zeuden jakiteko, eta euren errealtateetara hobekien egokitzen ziren neurriak abiarazteko. Jasotako erantzunekin, laguntza eta dirulaguntzen programa bat osatu zen. Hala, saltoki eta zerbitzu-establezimenduei NBEen hornikuntza eskaini zitzaizkien euren negozioak berriro irekitzeko, hainbat tasa-salbuespen

ezarri, ostalaritzaren sektoreari terrazak handitzeko eta terrazak ezartzeko lizentziak eman, tokiko kontsumoa suspertzeko bonuen kanpaina abiarazi... Hala ere, jakinekoea da COVID-19aren krisia kalte larriak eragiten ari dela ekonomia sektorean. Horregatik, Eskoriatzako Udalak irailaren 29an egindako ezohiko osoko bilkuran, beste urrats bat egitea erabaki zuen eta honako dirulaguntza lerro hauek onartzeko erabakia hartu zuen: enplegua mantentzeko udal laguntzen programa, Esko-

riatzako hogeita langile baino gutxiagoko enpresentzat, 19-EB-KOK sortutako krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioz; eta Eskoriatzako establezimenduen COVID-19 pandemiaren ondorioz dauden higie edota babes premia berrietara egokitzeko udal laguntzen programa.

Oinarriak, jendaurrean

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira aipatutako bi dirulaguntza programen oinarri arautzaileak, eta azaroaren 10era arte jendaurrean daude, interesdunek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik egon ezean, oinarriak behin betiko onartutzat joko dira, bestelako erabakirik hartu gabe. Erreklamazioak udaletxean aurkeztu behar dira, 09:00etatik 14:30era.



ENEKO ZUBIZARRETA

Zuhaitza, bidea mozten

Martitzen gauean izandako haizeteek eraginda, Apotzaga elizateak San Bernabe ermita pasata, Aretxabaletarako noranzkoan dagoen zementuzko pasabidean zuhaitz batek bidea oztopatu zuen. Horrekin batera, Marin elizatean ere zuhaitz bat errepidera erori zela adierazi zuten auzotarrek, baina lehenengo orduan kendu zutela.

Euskaraz berriketan egiteko taldeak, abian

Eskoriatzako Berbalagunak eta Auzoko egitasmoetako taldeetako kideek hasi dute ikasturtea. "Iazko edizioetako partaide askok jarraitzen dute saioekin, berriak ere hasi dira taldeetan, eta neurri guztiak ondo hartzen ari gara", adierazi du koordinatzaileak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Astero ordubetez, lagun giroan, euskaraz hitz egiteko elkartzen diren Berbalagunak taldeko kideek hasi dute ikasturte berria. Berrikuntza txiki batzuk egin arren, euskaraz hitz egiteko gogo biziz hasi dutela adierazi du Iratxe Arrese Berbalagunak taldeetako koordinatzaileak. Gaineratu du aurten jende berria batu dela egitasmoa.

"COVID-19ak eragindako neurriak direla-eta moldaketa txiki-kiren bat egin behar izan dugu, eta, agian, egin beharko ditugu, baina iaz moduan jarraitzen dugu, oraingoz. Eskoriatzan hiru talde ditugu: *Kafe taldea* deitzen dioguna, 09:00etatik 10:00etara bitartean eguaztenetan batzen garena. Eguenetan izaten dugun *Pintxo-pote* taldea zena orain *Terraza taldea* bihurtu da. Eta, azkenik, *Egubakoitzeko taldea*, elkarte gastronomiko ezberdinetan batzen garena. Kasu horretan, agian, aldatu egin beharko dugu, ixten badituzte...", adierazi du Arresek.

Berbalagunetan parte hartzeko

Euskara bizitzeko, hobetzeko, erabiltzeko eta gozatzeko aukera eskaintzen duen Berbalagunen taldeetan izen-ematea zabalik dago. Astean ordubeteko saioak



Auzoko taldearen saioan batutakoak, joan den astean. IRATXE ARRESE

IAZKOAK ETA KIDE BERRIAK DITUZTE BERBALAGUNAK ETA AUZOKO EGITASMOETAN

dira, norberaren beharretara egokitutakoak. Hain zuzen ere, berbalagunak@gmail.com helbide elektronikora idatzita, 661 74 63 76 zenbakira telefonoz deituta edo bertara *whatsapp*-a idatzita egin daiteke.

Auzoko egitasmoa

Zubi bat euskaratik lelopean hasi dute ikasturtea, bestalde, Auzokon. Euskaraz aritzeko asmoz, hasi dira auzotarrak eta auzokideak elkartzen. Martitzenetan 10:00etatik 11:00etara bitartean eta eguenetan 17:30etik 18:30era bitartean batzen dira. "Auzokon ez dugu aldaketa handirik izan iaztik hona. hamar lagun baino gutxiago batzen gara, baina sei pertsona baino gehiago. Horrenbestez, datorren astera begira, zerbait pentsatu beharko dugu.



Tortolis ludotekako haurrak, *Virus* izeneko mahai-jokoan. TORTOLIS LUDOTEKA

Aisialdiaz disfrutatzen ari dira Tortolis ludotekako haurrak

Urriaren 31n, 'scape room'-a izango dute ludotekan; izen-ematea, hilaren 26tik 30era bitartean

I.B. ESKORIATZA

Ate irekiak eginda, hasi dute ikasturte berria Tortolis ludotekako haurrek. Bertako arduradunek adierazi dutenez, harrera ona izan dute, eta, aurrera begira, ikasturte osoan zehar hala jarraitu gura dutela gaineratu dute: "Ate irekietan plaza guztiak bete ziren eta haurrak oso pozik ari dira. Orain, Gaba Beltzaren gaineko prestaketa lanetan dihardugu. Horretarako, sorpresa bikaina prestatuko diegu haurrei, *scape room*-a", adierazi du Nekane Atxaga arduradunak.

'Scape room'-a ludotekan

Gaba Beltzaren bueltan, urriaren 31n, 16:30etik 19:30era bitartean, *scape room*-a izango dute haurrek Tortolisen. 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da, bazkide direnei eta bazkide ez direnei, eta, hala, egun batez, ludoteka *scape room* bihurtuko dute.

Eguna iritsi arte *scape room*-ak izango duen gaia adierazi barik, lau eta bost hurreko talde txikietan egingo da, eta izen ematea ludotekan bertan izango da, urriaren 26tik 30era bitartean.



ARIZMENDI IKASTOLA

Bi egitasmoen 'spot'-ak

Berbalagun edo Mintzapraktika taldeetan eta Auzoko egitasmoetan parte hartzeko *spot*-ak egin ditu Euskaltzaleen Topaguneak.

Youtuben ikusgai

Auzoko, *zubi bat euskaratik* eta *Mintzalaguna* elkarrekin euskara bizi, *erabili* lelopean, Youtuben daude ikusgai bi ikus-entzunezkoak.



Mintzalagunen *spot*-aren une bat. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Ezkurtxo Eguna, gunean bertan

Urriko hirugarren astea berezia izaten da Jose Aranan. Aste osoa ibiltzen dira Ezkurtxori ongietorria prestatzen; hau da, udazkenari ongietorria. Aurten, baina, 23. edizioa gunean bertan ospatu behar izan dute, elizate batera joan beharrean. Ezkurtxoren abestia kantatzen aritu ziren eta jolasak, ipuin kontaketak, hamarretakoa, dantzak... izan zituzten.

Norbanakoek rolak aukeratzeko ordua

Entitateen izen-ematea amaituta, norbanakoen txanda iritsi da. Kasu honetan, 'ahobizi' eta 'belarriprest' rolak aukeratu beharko dituzte azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitarteko ariketan parte hartu gura dutenek, 'Euskaraldia.eus' webgunean

Imanol Beloki ESKORIAITZA

Euskaraldiari begira, 27 entitatek eman dute izena Eskoriatzan, eta, horien barruan, zenbait kanpo eta barne arigune sortu dira. Entitate batzuk enpresa izaerakoak dira; beste batzuk, aldiz, hezkuntzakoak, administrazioakoak edo merkataritzakoak. Hala, azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitarteko ariketa masiborako entitateek izena emanda, *ahobizi* edo *belarriprest* rolak ere aukeratu ditzakete norbanakoek, eta haiek ere eman dezakete izena *Euskaraldia.eus* webgunean.

Egoerak baldintzatuta

COVID-19ak eragindako egoeran "oso zaila izan da Eskoriatzan batzordea martxan jartzea eta entitateak izena ematera animatzea", adierazi du Mari Karmen Arrietak, Eskoriatzako Euskaraldiko koordinatzaileak.



Eskoriatzako Euskaraldiko batzordeko zenbait kide plazan. EUSKARALDIA ESKORIAITZA

Batzordekideak, plazan

Euskaraldiko bigarren aldirako hasi dira batzordeko kideak informazioa eskaintzen, amantalak, poltsak eta banderatzakoak

saltzen... Hala, *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* banderatzakoak bost eurotan erosi daitezkeela azpimarratu dute, gero leihoetan eta balkoietan jartzeko.



MATIAS NOVO

Zamoran lan aparta eginda

Zamoran jokaturako Ultra Sanabria proban lan bikaina egin du Unai Galvez korrikalari eskoriatzarrak. Sailkapen orokorrean bosgarren postuan geratu zen, hiru etapetan lan txukuna eginda. Zazpi kilometroko lehen etapan zazpigarrena izan zen; 20 kilometroko bigarren etapan, hirugarrena; eta 16 kilometroko hirugarren etapan, bosgarrena.

Kirol elkarteko kamiseta historikoak salgai domekan

Eskoriatza Kirol Elkarteko areto futbol sailak 25 urte bete dituela ospatzen jarraitzeko, arropa salmenta berezia antolatu dute. Hitzordua domeka honetan izango da, eta urteurrenaren ospakizun ekitaldien barruan ezarritako ekintza izango da domeka goizean gauzatuko dutena.

Hain zuzen ere, urriaren 25ean, domekan, 12:00etatik 14:30era bitartean, Fernando Eskoriatza plazan izango dira Eskoriatza Kirol Elkarteko areto futboleko eta saskibalo sailtako ordezkariak kirol elkarteak bere historian zehar erabili dituen zenbait kamiseta, kirol-jertse eta praka saltzen.



Iaz San Milixan jaietan egindako azokaren irudia ez da errepikatuko aurten. GOIENA

San Milixan egunean ez da artisau azokarik izango

Egitarauari erreparatuz, gaztaina erreak egitea da egunerako duten asmo bakarra

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Azaroko bigarren domekan ospatu ohi izan dute San Milixan eguna Leintz Gatzagan. Aurten, 28. edizioa izango litzateke, baina ez da izango urteroko eskulangintza azokarik, ezta Hustu Ganbara bigarren azokarik, besteak beste.

"Aspaldi, ganadu feria ere izaten genuen San Milixan egunez Leintz Gatzagan; hori ere galdu egin dugu. Hala ere, urte askoan artisau azokarekin eta beste zenbait ekintzarekin arrakasta izan dugu. Aurten, baina, pandemia garai honetan, ez da

posible ezer antolatzea, eta, datorren asterako erabakia hartuko dugun arren, gaur-gaurkoz, Gurel Guraso Elkartea urtero-urtero arduratu den gaztaina erre jana soilik egitea aurreikusten dugu, baina hori egiteko ere zalantzan gaude...", adierazi du Eugenio Otsoak, Leintz Gatzagako alkateak.

Gurel-en, lantalde berria

Datozen bi urteetarako lantalde berria osatu berri du Gurel Guraso Elkartek, eta orain, lau ordezkari berri izango dira elkartearen koordinatzen.

GORA ETA BEHERA



I.B.

Margolana egingo dute frontoiko paretan

Frontoiko paretako horma-irudia berritu egin gura du udalbatzak, herriko sarrera erakargarriagoa izateko. Bozetoak esku artean, laster jakinaraziko dute irudia zein izango den.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Miguel Altuna zena abian jartzera, "lehenbailehen"

Goiena telebistako 'Harira' saioan iragarri du erdigunean dagoen eraikin zaharra martxan jartzea esku artean duten lehentasun nagusietako bat dela; pandemiaren aurrean bergararren orokorrean erakutsi duten ardura txalotu eta eskertu nahi izan du

Jokin Bereziartua BERGARA

Lehen olatuan ondo eutsi zion Bergarak izurriari kutsatze-tasei dagokienez, baina bigarren olatu honek gehien astindu duen herrietako bat izatera pasatu da (Ikus 2. orria). "Lehen olatuan zein bigarreanean herritarren gehiengoak erantzukizun handiz jokatu du. Ez dut herrien arteko konparaketetan erori nahi; gaur hobeto bagaude Bergaran, bihar okerrago egon gaitezke. Horregatik, jendea orokorrean zoriondu nahiko nuke, sektore guztietakoak, adin guztietako gazteak. Elkar zaintzen jarraitzea, besterik ez zaigu geratzen", adierazi zuen Gorka Artolak Goiena telebistako *Harira* saioan.

Mizpirualderi dagokionez, egoera asko aldatu den arren egoitzako arduradunek egin duten lana goraipatu du Artolak: "Sekulako lana egin da Mizpirualden egoitza babesteko, eta horrek eman ditu emaitzak denbora luze batean, baina sartu denean argi geratu da halako leku batean sartzen denean zein zaila den birusaren hedapena kontrolatzea; esker ona adierazi nahi nieke Mizpirualdeko langileei eta baita goraintziak eta doluminak bidali azken astetan hil diren egoiliar horien guztien senitartekoei".



Gorka Artola, martitzenean, Goiena telebistako platoon. JOKIN BEREZIARTUA

Plan integrala, laster publiko

Dioenez, urri bukaeran edo azaro hasieran ezagutzera emango duten COVID-19ari aurre egiteko plan integralak erakutsiko du pandemia hasi zenetik hona Udalak egin duen lana "sekulakoa" izan dela: "Zaurgarrienak zaintzen, pandemiaren ondorioak murrizten, sektore ekonomikoak biziberritzen... 45 neurritik gorako bilduma bat osatu dugu; oso ondo erantzun diogu egoera ezin bereziago honi". Orain arte egindakoaz harago, aurrera begirako "neurri zehatzak eta plan-

teamendu orokorrak" jasoko ditu planak; esaterako, herritar zaurgarrienendako laguntza zehatzak eta "paradigma aldaketa honek" sortu duen espazioen erabilera berrirako neurriak; Artolak iragarri du arrakala digitalari aurre egiteko laguntzak eta herriko dendetan trukatzeko beste bonu kanpaina bat abiatuko dutela udazkenerako eta negurako.

Ez-jaietan ez da agerraldirik izan Udaltzaingoak egin behar izan dituen interbentzioen gainean galdetuta, alkateak azpimarratu

du pandemia garaian udaltzainen presentzia handitu egin dela eta lan pedagogiko handia egin behar izan dutela, eta honako hau dio kaleko edanaren bueltan herrian eta inguruetan ireki den diskurtsoaz: "Esango nuke arreta ez genuela hor jarri beharko eta orokorrean herritarrek erantzukizun handiz jokatu dutela. Bergaran hainbat jai galdu ditugu martxotik hona eta ez da identifikatu, inondik inora ere, agerraldirik ez-jaietan. Zentzu horretan ere, herritarrek zoriondu nahiko nituzke".

Aparkalekuekin zer?

Mugikortasun planari estuki lotua dagoen aparkaleku behararen diagnostikoa berrikusi behar izan zuen Gobernuak Miguel Altuna zaharra martxan zegoeneko zelako aurrekoa: "Mugikortasun dinamikak nabarmen aldatu dira; aparkaleku gabezia asko gutxitu da eguneko lehen orduetan eta azken orduetan aparkaleku defizita badago, baina oso lotuta dago egoiliarren etxera bueltatzarekin". Mugikortasun plana atzeratu egingo da, parte-hartze saioak ezin direlako antolatu pandemiagatik: "Plan horrek esango digu mugitzeko modu berriekin beharrezkoa izango den edo ez Seminario azpiko aparkalekua; plan hori pandemiak mugikortasunean ere eragingo dituen aldaketak aintzat hartuta eginga izango da".

Miguel Altuna zena lehentasun

Lehentasunen artean dute Miguel Altuna zaharra martxan jartzea: "Oztopo handia dugu, Jaurilartzarekin sinatu zen hitzarmenaren garapena konplikatu delako. Miguel Altuna zaharra lehenbailehen erabilgarri jarri nahi dugu, behar handiak daude eta

eragileen artean. Hezkuntzaz eta ondareaz arduratzen diren sailek begi onez ikusten dute behintzat erabileraren bat emateko lehenbailehen Udalari lagatzea".

Bestalde, pandemiak eten zituen proiektuen artean Zubietako kalea berriro urbanizatzeko lanak daude: "2021ean inbertsio lerroetan sartzen saiatuko gara, badakigulako behar-beharrezkoa dela". Diputazioetik %20 gutxiago jasoko zela esan zuten, baina %15 inguru gutxiago jasoko dute.

Kultura bakoa, "hilko den herria"

Egoera berezi honetan kulturak jarraitu egin behar duela "argi" du: "Kultura bako herria hiltzen joango den herri pobre bat izango da; ikusten genuen uda aurretik aurtan inoiz baino gehiago herritarrek kulturak eragiten duen bizipoza behar zutela. Apustu handia egin genuen, Kultura Mahaiarekin eta beste eragile batzuekin batera, programa kultural zabal bat diseinatzeko. Kulturaren inbertitzen jarraituko dugu, betiere baldintzak beteta; ez bakarrik kultura sortzaileen artean, kulturak herri izaera bizia sortzen duelako baizik".

Harro dago alkatea pandemian kultura sustatzeko egin den ahaleginagatik: "Kultura eskaintza oparoenetakoa Bergarako izan da Euskal Herrian eta uste dut herritarrek izugarri eskertu dutela". Usondo parkea eta halako lekuak erabiltzearekin "oso gustura" geratu dira: "Oso aproposa da, eta badauka xarma berezia".

KULTURA SUSTATU BEHAR DUELA "ARGI" DAUKA: "LAGUNTZEN DU HERRI IZAERA BIZIA IZATEN"

Ur handiekin ere, jende asko

Deba hazita zetorrenez garbiketa arriskutsua izan zitekeelako, Erreka Garbiketa Batzordeak Erreka Eguna antolatu zuen izena emanda zuten 170 lagunei begira. Erreka garbi izatearen garrantziaz sentsibilizatzea helburu, Kiko Alvarez biologoaren hitzaldia, zeregin zehatzak batzen dituen manifestuaren irakurketa eta erreken aldeko talde argazkia izan ziren, besteak beste.



"Hobetzeko neurriak" ordenantza fiskalatarako

2021erako proposamenean "hutsune handiak" ikusten dituztela-eta "hainbat neurri" aurkeztuko dizkio EAJk Udal Gobernuari urriaren 26ko osoko bilkuran; orokorrean 2020ko tasei eustea eta Agorrosingo abonatuari "fideltasuna" saritzea nahi dute, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

EAJk aurreratu du emendakinak jarriko dizkiela Udal Gobernuak urriaren 26ko osoko bilkurara eroango duen 2021erako ordenantza fiskalen proposamenari: "Udal Gobernuak aurkeztu duen zirriborroa aztertu ondoren, hainbat hutsune eta hobetu daitezkeen hainbat neurri aurkitu ditugu. Gure proposamenetarako, bizi dugun osasun krisia eta krisi ekonomikoaren egoera hartu ditugu kontuan, eta helburu nagusia ekonomiari bultzada ematea da; ezinbestekoa da, beraz, zergak ez igotzea eta kaltetuak izan diren sektore eta pertsonak laguntzea".



EAJko Elena Lete hitza hartzen, irailaren 28ko osoko bilkuran. JOKIN BEREZIARTUA

Orokorrean, iazko tasei eustea

Hiru zutabe nagusiren bueltan zehaztu dituzte emendakinak jeltzaleek. Lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergei dagozkienak: "Osasun krisia dela eta, hainbat komertzio, jatetxe, tabernak, enpresak... bizigarritasun baldintzak hobetzeko, euren lokalak egokitu behar izan dituzte, edota oraindik ere askok egokitu egin beharko dituzte. Hala, proposatzen dugu osasun egoerak behartuta obrak egin behar dituzten lokalei % 90ko hobaria ezartzea".

Bigarren emendakin nagusian, EAJk proposatu du 2020an onartutako tasak mantentzea, Udal Gobernuak "hainbat tasaren eguneraketa" proposatzen duelako: "Ez da tasen eguneraketarako momentua, nahiz eta aldatzea txikia izan. Horregatik, orokorrean 2020an onartutako tasak mantentzea proposatzen dugu". Agorrosin kiroldegia kasuan, erabiltzaileen "fideltasuna" saritzea nahi dute: "Urte osoko abonatuak mantentzeko hobari berri bat ezartzea proposatzen dugu, betiere COVID-19ak eragindako egoerak dirauen

bitartean; urteko abonuetan hiru hilabete osoko duen prezioa deskontatzea nahiko genuke".

Beste eskaera bat da herrian egiten diren grabaketengatik Udal Gobernuak proposatu nahi duen tasa ez kobratzea: "Herrian garatzen diren ikus-entzunezkoen grabazioei tasa berri bat ezarri nahi diete; euskal ikus-entzunezkoen proiektuak bultzatzea gure erantzukizuna ere bada, eta ezin dugu ahaztu zuzenean edota zeharka herrian sortzen dituzten onurak". Terrazei dagokienez, tasarik ez kobratzea proposatzen dute jeltzaleek, 2021eko abenduaren 31ra arte: "Ez dago zalantzarik ostalaritza eta tabernak direla bizi dugun krisiaren ondorioz kaltetuenetakoak".

Ura eta zaborra ostalaritza

Gainera, COVID-19agatik aste-bete edo gehiago itxi behar izango duten tabernei edota komertzioei %99ko hobaria aplikatzea proposatzen du EAJk zaborraren eta uraren tasan. Eta azokako postuen kasuan ere tasaren %99ko hobaria eskatzen dute, betiere COVID-19ak eragindako krisiak irauten duen bitartean.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usatxe plaza 1, behe
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

Digitalizazioa helburu duten ZTB jardunaldiak

Urriaren 29an emango diete hasiera ofiziala 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiei. Aurten, zazpi hitzaldi, ikastaro bat, barnetegi teknologikoa eta 'scape room'-a antolatu dituzte, besteak beste. Online jarraitu ahalko dira ekintzak

Jone Olabarria BERGARA

Bergarako Udalak, eragile ezberdinekin batera, zientzia eta berrikuntza jardunaldi "aberratsak" antolatu nahi izan ditu aurten ere. Hain zuzen, eguaztenean egin zuten prentsaurrekoan zehaztutakoaren arabera, "teknologia, zientzia eta berrikuntza esparru guztietara gizarteratu eta sustatzea" dute helburu jardunaldiok.

Hala, urriaren 14tik azaroaren 26ra, publiko eta sektore guztietara zuzendutako hitzaldiak, lehiaketak, tailerrak eta erakusketak izango dira udalerriko hainbat lekutan. Dena den, hitzaldietarako edukiera mugatua denez, ezinbestekoa izango da aurrez izena ematea, 943 76 90 03 telefonora deituta edo laboratorium@bergara.eus helbidera mezua bidalita.

Online jarraitzeko aukera

Bergarako Udalak eta jardunaldietan parte hartzen duten eragileek, hala nola Enpresarek eta Laboratorium museoak berak, "orain inoiz baino gehiago digitalizazioa bidelagun hartzea" proposatu nahi izan diote gizarterari: "Hasieran, aurtengo jardunaldiek Landareen Osasunaren Nazioarteko Urtearekin lotuta joan behar zuten, eta



Eguaztenean Laboratorium museoan egindako aurkezpeneko irudia. BERGARAKO UDALA

hala hasi ginen lanean, baina COVID-19ak hasierako asmoak bertan behera utzi zituen". Hala, hitzaldi eta ekintza guztiak online jarraitu ahalko dira, Zt-bergara.eus webgunearen bidez.

Merkatariekin elkarlanean

Urtero ekintza gehienak urtik aurrera egin ohi badituzte ere, oraingoan, "hain kolpatuak izan diren herriko negozioei laguntza eta aholkularitza lehenbailehen ematea" erabaki zutela azaldu du Udalak. Horre-

gatik, uztailan *Bergara bizi* ekimenarekin bat eginda, herriko komertzio eta ostalari-tzari zuzendutako digitalizazio prestakuntza saioak martxan jarri zituztela azaldu dute.

'Scape room'-a, nobedade

Antolatutako zazpi hitzaldi eta ikastaroez gain, baditu hainbat nobedade aurtengo edizioak. Hala, Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroak *scape room* teknologikoa hartuko du azaroaren 11n, eguaztena. Ekintza 10-16 urte bitarteko gaztetxo-

dako prestatu dute eta 30 minutu iraungo du. Bost pertsonako taldeetan baturik, gehie- nez, proba ezberdinak gainditu beharko dituzte parte hartzaileek. Euskaraz egingo dute, 16:00etatik 19:00etara, eta parte hartzeko lhl@maltuna.eus-en eman behar da izena, edota 943 89 92 73 telefonoan.

Wolfram Encounterrik ez

Bestalde, aurten ez da Wolfram Encounterrik egingo; azaldu dutenez, antolatzeko aukera aztertu bazen ere, parte hartzaile asko pilatzen ditu. Hala

ere, EHUKo Ilustrazio Zientifikoko berezko titulazio lanen erakusketa jarriko dute Aroztégien, urriaren 29tik azaroaren 15era, eta, hain zuzen, erakusketa horren inaugurazioarekin emango zaie hasiera ofiziala ZTBren 2020ko jardunaldiei.

"BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIA ESPARRU GUZTIETARA ZABALDU ETA SUSTATU NAHI DUTE JARDUNALDIEK"

Labegaraietako taberna ustiatzeko esleipenerako deia

Kontratuak urtebete iraungo du, eta, tabernaz gain, kontrol eta garbiketa lanak ere hartzen ditu baitan

J.O. BERGARA

Bergarako Udalaren jabetzakoa den Labegaraieta kiroldegiko taberna-jatetxearen ustiaketa, instalazioen kontrola eta garbiketa lanak adjudikatzeko deialdia argitaratu berri du Udalak.

Udalak aditzera eman duenez, urtebete iraungo du kontratuak, indarrean sartzen denetik unetik zenbatzen hasita, eta 18.000 euroko prezioa izango du -BEZa kanpo-. Tabernaz arduratzeko lanaz gainera, bere baitan har-

tzen ditu kiroldegiko kontrolaren eta instalazioen garbiketa lanak ere.

Taberna-jatetxearen lizitazioan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira hamabost egun naturaleko epean, urriaren 20tik hasita, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara. Informazio gehiago, www.bergara.eus/eu/Udala/kontratatzalea helbidean edota 943 77 91 00 telefono zenbakira deituta.



Labegaraietako kiroldegiko sarrera. O.E.



Hitzarmena sinatu aurreko batzarra, Miguel Altuna Lanbide Heziketako Ozaeta gelan. AITZIBER ARANBURUZABALA

Torlojugintzarekin lotura sinatu du Miguel Altunak

Lanbide Heziketa zentroak eta torlojugintzan edota lotura sistemen arloan diharduten Bergarako enpresek sortutako FEX elkarteak hitzarmena sinatu dute; indarrak batzea eta elkarlana "ezinbesteko" ikusten dute aurrekari gabeko egoera honi aurre egiteko

Jokin Bereziartua BERGARA

Torlojugintzan eta lotura sistema arloan jarduten duten Bergarako enpresek sortu duten FEX elkarteak eta Miguel Altuna Lanbide Heziketak hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren helburua da espazioa, baliabideak eta ezagutzak partekatzea, eta, horretarako, "ezinbesteko" ikusten dute elkarlana; hain zuzen ere, COVID-19ak eragindako aurrekari gabeko egoera berezi honi elkarrekin aurre egiteko gogoia erakutsi dute alde biek. Diotenez, tamaina txikikoak diren enpresa horiek ekoizpen enpresak dira, eta eguneroko jardunak askotan ez die aukerarik uzten burua altxatu eta merkatuan gertatzen ari diren eraldaketak gertuagotik jarraitzeko.

Miguel Altuna Lanbide Heziketako ordezkariek eta FEX elkartearen diharduten enpresek ordezkariek izan ziren sinadura ekitaldian. "Guretako enprekin elkarlanean jardutea beti izan da ardatz garrantzitsua.

Hitzarmen honekin, FEX elkarteak gure baliabideak eta espazioa erabiltzeko aukera izango du, eta guk euren ezagutzak eta bestelako baliabideak ere jasoko ditugu. Kontuan hartzekoa da Bergaran lanpostu gehien sortzen duten hainbat enpresak sortu duten elkarte dela FEX", zehaztu du Miguel Altunak zuzen-dari Joxu Aranak. Horrekin batera, Aranak nabarmendu du Miguel Altuna beti egongo dela zabalik bertako enpresei, eta hitzarmenaren bidez ate horiek irekitzeko gertu daudela.

Sotes: "Etxe bat dugu hemen"
FEX edo Fastening Excellence Center Bergaran sortu berri den elkarte bat da, torlojugintzan

HAMASEI ENPRESA DAUDE, MOMENTUZ, FEX ELKARTEAREN BARRUAN; GEHIENAK, BERGARAKOAK

eta balio-kate osoan ari diren enpresen artean sortutakoa. Helburu nagusizat du ezagutza garatzea, lotura torlojutuen balio-kateko produktuan eta zerbitzuetan balioa sortzea.

Indarrak batuta eta elkarlanean indartsuago izango direla sinistuta, FEXeko presidente Aitor Sotese elkarlanerako beharra nabarmendu zuen: "Hitzarmen honek jasotzen duenez, FEX osatzen dugunok etxe bat dugu Miguel Altunan. Eta ez hori bakarrik, aukera ikusten dugu bertan egiten dituzten ekintzak ere gure proiektuetarako lagungarriak izateko; gure proiektuetan euren elkarlana sustatuko dugu".

Bergarakoak dira gehienak
Momentuz, hamasei enpresa dituzte elkartean barruan, gehienak Bergarakoak, baina badituzte Berrizkoak, Elgoibar-koak eta Uhartekoak ere. Bergarako enpresen artean daude, besteak beste, Lazpiur, Metagra eta TTT taldea.



NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Abesten duen herria...

200 urte pasa dira Iparragirre jaio zela. Ohore handia izan da niretzat bere omenezko hainbat kontzertutan parte hartzea, eta gogora ekarri dit Euskal Herria abesten duen herria dela. Txikitako oroitzapenetan, ama gogoratzen dut etxeko lanak egiten zituen bitartean kantuan; Iparragirreraren kantak, besteak beste. Familia baserrian elkartzen zenean, sekulako kantaldiak egiten genituen: aitajauna, amandrea, birraitona... haiengandik ikasi genituen abesti ugari. Birraitonaren esanetan, ume txikiei abestu egin behar zitzaion, eta horrela ezagutu nuen, beti kantuan. Euskal Herriko familia askotan moduan. Gurasoen sasoian, tabernetan, bezeroek jartzen zuten musika kantuekin. Duela ez asko, zerbait ospatzeko elkartzen ginenean, abesten bukatzen genuen beti. Era ordenatuagoan kantatzeko ohitura ere izan dugu euskaldunok: abesbatzak, otxoteak... Kantua gure DNAn dago, baina gero eta gutxiago abesten dugu. Telebistek, ordenagailuek, mugikorrek... ordezkatu dituzte lehengo kantuek. Tabernetan aspaldi desagertu zen kantatzeko ohitura. Abestu dezagun! Abesten duen herria herri bizia delako.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Belarrak moztu izana txalotu, eta proposatu



Miguel Altunarako pasabide berriko belarrak moztea txalotu du herritar batek; lanok eskertzeaz gain, Udalari proposatu dio goiko oruberako haur parke txiki bat egiteko: "Gune aproposa da".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

OHARRAK

Asteburuko Pop Up azoka, bertan behera

Erakusmahaiak jartzeko segurtasun irizpideei jarraitzeko leku nahikorik ez dagoelako eta Oxirondo azokan partaideendako edukiera mugatua delako, urriaren 24an eta 25ean egitekoa zen Pop Up azoka suspenditu egin dute Udalak eta Bedelkarrek.

'Egunean behin': Laboratorium babesle asteon

Galderra-erantzunen euskarazko joko ezaguneko aste honetako irabazleak museora eta Bergara monumentalera bisita gidatua, *merchandising* sorta eta jatetxe batean otordu bat jasoko ditu.

Bilera: 'Nolako Angiolillo liburutegia nahi dugu'?

Bihar, hilak 24, egingo dute, kartzela zaharrean (19:00).

Erika Olaizola aktore azpeitiarra, *Panpina* antzezlanean. YURI AGIRRE

'Panpina' antzezlanea bihar iritsiko da Seminarixora

"Edozein pertsonaren onarpen eta maitasun beharrak" ditu ardatz Panpina antzezlanak. Bihar izango da ikusgai, Seminarixoran, Kamikaz kolektiboaren laguntzarekin sorturiko lana. Sarrerak Internet bidez eskuratu daitezke, 8 eurotan

Jone Olabarria BERGARA

Kamikaz kolektiboaren eskutik, Seminarixoak antzezlan bat hartuko du bihar, zapatua, 19:00etan. Oholtza gainean Erika Rooibos aktorearen "argilunak" erakutsiko dituen lanaz gozatzeko aukera egongo da. *Panpina*, baina, "edozein pertsonak izan dezakeen onarpen beharraren ertzak modu intimoz bezain probokatzailan agerian jarriko dituen lana" dela azaltzen dute Kamikaz kolektiboko kideek.

Lantalde oparoa

Erika Olaizola aktore azpeitiarraren bulkadaz sorturiko antzezlanea da *Panpina*. Sorkuntza prozesu osoan, Oier Guillan idazle, kazetari eta antzerkigilearen laguntza izan du, kanpo begirada eta idazketa orokorraz arduratu da hura. Kartela, eskuorria eta planteamendu espaziala, aldiz, Leire Arenas azpeitiarraren lana izan dira. Irudi diseinatzailea da, Leioan Arte Ederretako Fakultatean ikasia,

Sorkuntza eta Diseinuan graduatua eta Ilustrazioan aipamenarekin.

Kamikaz kolektiboa

Sorkuntza eta antzezlanaren promozioan *Kulturaz* kooperatibak emandako laguntza izan zuten "ezinbesteko bultzada". Hain zuzen ere, Amancay Gaztañagak, Miren Gaztañagak eta Erika Olaizolak berak osatzen dute Kamikaz kolektiboa. Ibilbide desberdinetatik datozen hiru sortzaileek 2014. urtea ezkererik dihardute elkarlanean. "Antzerkiaren zein generoaren hausnarketaren inguruan partekatzen ditugun hainbat ikuspegik batu gintuzten orduan", diote kolektibokoek.

ERIKA OLAIZOLA, OIER GUILLAN ETA LEIRE ARENAS SORTZAILEEN PROIEKTUA DA 'PANPINA'

Norbera ardatz

Ordubete irauten duen antzezlanean, "gai sakonak" topatuko ditu ikusleak, umorea eta performance kutsuko aktore lan fisikoaz lagunduta: "Noiz bilakatzen da norbera panpina eguneroko bizitzan? Zer pasatzen da panpina baten burutik? Noiz behar dugu begiratu gaitzaten, eta zergatik? Emakume oro da panpina? Besteen begiradak egiten gaitu panpina?".

Bestalde, maitasunak berak ere garrantzia du bertan: "Edozein pertsonak du maitatua izateko beharra. Baina zertarako gaude prest hori lortzearren? Beldurra, inguruko iritzierikiko dependentzia... Besteen begiradaren aurrean panpina izatea menpekotasun keinu bat da, ala askatasun adierazpen gorena?".

Zapatuko hitzordurako sarrearak eskuragarri daude dagoneko, zortzi euroren truke, www.ticket.kutxabank.es webgunearen bitartez.

Lehen partiduak jokatuta, martxan da saskibaloia ere

Hamar talderekin ekin dio denboraldiari Bergarako saskibaloia sailak: bost nesketan eta bost mutiletan

J.O BERGARA

Joan den asteburuan laugarren jardunaldia jokatuta, laugarren postuan da bigarren mailako senior mutilen taldea, 5 punturekin. Hirugarren mailan aritzen den senior mutilen taldeak, aldiz, joan den asteburuan jokatu zuen denboraldiko lehen partida, baita irabazi ere, arri BKL BIRUIN taldearen aurka (57-46).

Errendimendu kadete taldeei dagokienez, bosgarren jardunaldiaren ostean bigarren postua dute Bergarako mutilek sailkapenean, 6 punturekin.

Gainerakoan, datozen asteetan ekingo diote lehiari Bergara kirol elkarteko saskibaloia sailako taldeek, Marian Mellado presidenteak azaldutakoaren arabera; kadete partaidetza mailako mutil eta neska taldeak, errendimendu mailako mutilen taldea eta emakumezkoen senior taldea izango dira.

Hala ere, badira, gaur-gaurkoz, behintzat, lehiatzeko baimenik ez duten taldeak, eta, hain zuzen, infantil mailako mutilen eta nesken taldeek entrenamenduekin konformatu beharko dute.



ENEKO AZKARATE

'Lagun artean' martxa berria

Igor Larrañagak, Bergarako Musika Bandako zuzendariordeak, konposatu du pieza berria. *Lagun artean* izeneko, Lokatza txirrindulari elkartearen inguruko jendez osaturiko lagunarteari egindakoa da. Bandak joan den domekan pilotalekuan eskaini zuen kontzertuan aurkeztu zuten, eta martxa berria sanmartinetako danborradan ere joko dute aurrerantzean.

Bihartik aurrera hasiko dira lehiatzen eskubaloia taldeak

Aste honetan hasiko dute denboraldia Bergarako eskubaloia taldeko zenbait taldek. Hain zuzen ere, lehen eta bigarren mailako senior mutilek eta gazte mailako mutilek izango dituzte lehen partiduak.

Josetxo Muniategi entrenatzaileak azaldu duenez, etxean jokatzeko egokitzen zaie bergarrei, baina Labegarietako

kiroldegian egiten dabilen lanak direla-eta Oñatiko Zubikoa kiroldegian arituko dira aurretik.

Gainerako taldeen kasuan, kadete mutilek ere aste honetan hasi beharko lukete denboraldia, baina talde aurkaria konfinatuta dagoela-eta bertan behera geratu da partida. Bergarako eskubaloia arduradunek azaldu dutenez, nesken taldeek datozen asteetan jokatu dituzte partiduak, eta, senior mailako talderik ez dagoen arren, hiru talde izango dituzte emakumezkoetan.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

GOIENA
URTE
20 ALBISTE

ISAIAS CARRASCOREN HILKETA

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA
URRIAREN 23AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN
ARRASATE ASTINDU ZUEN ATENTATUA



goiena²⁰
20 URTE ZUEKIN.



Antzuolako Herri Eskola handitzeko lanak. MAIDER ARREGI

Eskolako lan sakonenak, abendurako gertu

Dena ondo bidean, otsaileko bigarren asterako Herri Eskolako lanak amaituta izango ditu Diputazioak. Abendurako eraikinaren handitze lanak eginda izatea aurreikusten du obra zuzendaritzak, eta urtarilean ekingo zaie inguruko urbanizazio lanei

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Herri Eskola handitzeko lanak iazko abuztuan hasi ziren, eta martxan onean doaz, aurreikusitako epeak betez.

Une honetan eraikinaren barrualdean ari dira langileak lanean. Geletan eta pasilloan dihardute, pladurrezko hormak eraikitzen. Berehala, baina, kanpoaldean, eraikinaren aurrealdeko lanei ekingo diete. Abendurako eskola handitzeko lanak amaituta egongo lirarteke, eta, dena ondo bidean, urtarila eta otsaila bitartean urbanizazio lanak egingo dituzte. "Obrako teknikariak jakinarazi duenez, otsailaren bigarren asterako lanak amaituta egongo lirarteke. Urte bukaerarako obraren lan sakonena egitea aurreikusten dute eta datorren urteko urtarilean urbanizazio lanak eta azken ukituak emateko asmoa dute, hain zuzen ere. 18 hilabetezko obra bat zen, eta iazko abuztuaren hondarrean hasi ziren. Urte eta erdiko epean

egingo dituzte, beraz", argitu du Mikel Bargielak, Ongizate eta Pertsonal Saileko zinegotziak.

Beharrezko hobekuntza

Antzuolako Herri Eskolak egun beharrezkoa duen hobekuntza geroz eta gertuago dagoela dio Mikel Bargiela zinegotziak. "Azken urteetan espazio falta arazo handia izan da Antzuolako eskolarendako. 2013an jarri zituzten aurrefabrikatutako bi gela eta oraintsu arte martxan daude. Baina benetako irtenbidea eskola handitzeko lanak amaitzean etorriko da".

300 metro koadro handiagoa

Egiten diharduten lanen artean nabarmendu behar da jangela

ESKOLAREN AURREALDEAREN ITXURA MODERNOA ETA BERRITZAILEA IZANGO DA

handiagoa izango duela eskolak eta lehen eta bigarren solairuetan zazpi gela izango dituela. Behealdeko patioa, gainera, estali egingo dute. "Irakasleendako gelak, erabilera askotariko gelak eta ikasleendako gelak izango ditu eskolak, bi solairutan banatuta. Jangela handitzea ere bazen helburua, eta orain, ia bikoitza izango du".

Obra sakona da Antzuolako eskolarena, eta 300 metro koadro handiagoa izango da, handitze lan horri esker.

Roberto Lazaro obra teknikariak GOIENARI kontatu dio eraikinaren fatxadaren itxura berritzailea eta modernoa izango dela. "Olatu forma duen xafra ezarriko da. Baina bigarren fatxada nagusi bat ere izango du, bigarren azal bat izango balitza bezala, eta hori da, hain justu ere, berritasuna".

Estilo modernoko eskola handitzeko lanen aurrekontua milioi bat eta berrehun mila euro pasatzekoa da.

Haizete bortitzek zuhaitzak bota eta zenbait teila eroan dituzte

Haizetearen ondorioz urriaren 20tik 21era bitartean kalteak jasan dituzten herritarrek udaletxera jo dezakete

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martitzenetik eguazten goizaldera bitartean izandako haizete bortitzek, zorionez, ez dute arazo larrikeria eragin Antzuolan. Hala ere, hainbat gunetan, Ez-talan eta Korosterratzun, esaterako, zuhaitzak eta adarrak bota zituen. "Korosterratzun egin berri ditugun basolanen pozak gutxi iraun digu (Ikus 31. orriko erreportajea)", azaldu dute udal ordezkariak. Haizearen ondorioz, herriko zenbait teilatutan ere kalteak izan dira eta teilaren bat edo beste eroan du.

Horrez gainera, argia joan zen, besteak beste, Ondarren, Buztin Zurin, Herriko Plazan eta Errekalden.

Kalteen berri, udaletxean

Antzuolako udalak ohartarazi du haizetearen ondorioz urriaren 20 eta 21a bitartean kalteak jasan



Korosterratzu. ANTZUOLAKO UDALA

dituzten herritarrek horren berri eman dezaketela udaletxean. Jakinarazi du eroritako zuhaitzak su-egurretarako banatuko dituela herritarren artean. Hala, interesa duten antzuolarrek udaletxera jo dezakete eskaera egitera.

COVID-19 kasuen hondakinak, Sanjosepe gunera

Azken egunetan herrian izandako kutsatzeak medio, Antzuolako Udalak herritarrei gogorarazi nahi die COVID-19 kasuen hondakinekin zer egin behar duten. Era berean, azpimarratu du koronabirus kasuak dau-den etxeetan hondakinen bilketa egokia egitea ezinbestekoa dela. Hala, ohar bidez antzuolarrei ohartarazi die hondakin

guztia errefus gisa atera behar dutela. "Hondakinak hiru poltsatan atera eta Sanjosepe kaleko ekarpen-guneko errefusaren edukiontzira eraman behar dituzte aurrez aipatutako herritar horiek".

Horrez gain, nabarmendu du etxeko familia unitate osoa kutsatuta baldin badago eta hondakinak ateratzeko aukerarik ez baldin badute, udaletxera deitu (943 76 62 46) dezaketela eta bertan irtenbidea emango zaiela.

EUSKARALDIA

Arnasgune izanagatik, jarrera aktiboa beharrezko

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da bigarren Euskaraldia ariketa soziala. Oraingoan, entitateek protagonismo berezia izango dute, ariguneen bitartez. Antzuolako koordinatzaileak pozik daude Euskaraldiak herrian izan duen harrekin, eta herriko 30 bat

arigunek baino gehiagok bat egin dute jada.

Antzuola arnasgune izanagatik, jarrera aktiboa ezinbestekoa dela gogorarazi dute, eta orain norbanakoen txanda dela. *Ahobizi* edo *belarriprest* gisa izena emateko epea zabalik dago. Euskaraldia.eus atarian eman behar da izena.

Hala, hilaren 29an, bilera irekia egingo da, Olaranen, 18:30ean.



Joan den zapatuan herritar talde bat basolanak egiten. ARROLA

Basolanaren bitartez auzolanaren transmisioa

Basoak garbi mantentzearen garrantziaz jabetzeko eta basolanen nondik norakoak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten antzuolarrek joan den zapatuan. Udalak eta Arrolak, elkarlanean, auzolanaren izaera nabarmendu gura izan diete herritarrei

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak deituta, eta Arrola Mendizale taldearekin elkarlanean, Trekutz eta Korosterratzu inguruko basolanak egin dituzte. Inausketa lanak eta txukuntze lanak ez ezik, auzolanaren garrantzia ere azpimarratu gura izan dute. Era berean, Arrolak naturarekiko duen konpromisoa aintzat har-

tzekoa dela dio elkarteko kide Iñigo Ramirez de Okarizek: "Arrolak bere barne araudian jasoa du mendian ibiltzeaz gain natura eta inguruak zaintzearen ardura hori. Baita ere sasoi batean herriarendako esanguratsua ziren iturriak berreskuratzea. Frantses Iturriekin egin genuen moduan. Hala, udazken eta negu partean, Iri-

moi auzoan dagoen Hogeit Iturri konpondu gura dugu auzolanean. Herritar ugari igarotzen da bertatik paseoan nahiz kirola egiten, eta badauka horrelako ospea iturri horrek".

Auzolana, elkarlana

Auzolanaren izaera, hain zuzen ere, elkarlana da, eta horixe nabarmendu gura izan dute.

Pinuen gaitzari aurre egiteko, ongarrri naturala isuriko dute

Nekazaritza ikerketan diharduen Neiker zentroak tratamendu berri baten entseguak egingo ditu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Nekazaritza ikerketan diharduen Neiker zentroak entseguak egingo ditu herriko sail batzuetako pinudi gazteetan. Helburua da pinuen gaitzari aurre egiteko ikerketan urratsak egitea.

Hala, bi ongarrri natural oinarri dituen tratamendua probatuko dute. Ikerketa Gipuzkoako hainbat herritan egingo du Neiker zentroak, tartean Antzuolan, Foru Aldundiarekin elkarlanean.

Helikoptero baten laguntzarekin botako dituzte ongarrriak,

eta horien zeregina izango da pinuen berezko babes-mekanismoa piztu eta indartzea.

Ikerketa berri honek abian jartzeko oniritzia jaso duen arren, eta aste honetan bertan Antzuolan botatzekoak diren arren, noiz botako duten zehatz esaterik ez dago. "Eguraldiaren menpe gaude. Haizea badabil, helikopteroak ezin du lana ondo egin; ongarrria ezin da ondo bota. Euriarekin ere ez da eraginkorra", dio Neikerrek. Ingurumenarekiko zein pertsonetikiko segurua dela azpimarratu du.



GOIENA

Maitasunez betetako emanaldia

Bergarako Organo Erromantikoaren Zikloaren baitan, organoaren eta soprano baten arteko elkarlanaren maitasunaz gozatzeko aukera izan zuten San Marina parrokian. Honako honetan, gainera, Oscar Candendo organista antzuolarraren lanaz disfrutatzeak aukera izan zuten ikus-entzuleek. Ana Otxoa sopranoa izan zuen bidelagun.

Belaunaldi berrien irakasle

Trekutzen eta Korosterratzun egindako auzolanean herritarren erantzuna ez dela nahi adinakoa izan aitortu du Ramirez de Okarizek. "Betikoak agertu gara, eta gure asmoa ere bada auzolan honen transmisioan eragitea. Basolana adituak diren baserritarrekin egin bagenuen ere, garrantzitsua da belaunaldi berriek lan horiek egiten jakitea. Hori ere bada auzolana".



Basolanean jardun zuten herritarrek. ARROLA

Barneko ongizatea lantzeko saioei berrekingo diete

Pandemia garai honetan, barrura begiratzea eta norbanakoaren barne-ongizatea lantzea inoiz baino garrantzitsuago bilakatu dira. Horregatik, Jesus Maria Matak gidaturiko doako Nigan saioak bueltan dira. "Aurtengoa zazpigarren urtea da; ohartu gara oso eraginkorrak direla saioak. Norbera seguru sentitzeko prestatzen ditugu. Ez dizu

inork ezer galdetuko, eta meditazio praktika batzuk egingo dituzu, besterik ez", dio Matak. Urritik apirilera bitarteko hileko azken martitzenetan egingo dituzte saioak, gimnasioan, 18:30etik 20:00etara bitartean. "COVID-19 dela-eta umeendako saiorik ez dugu eskainiko aurrean. Izena eman nahi dutenek udal-letxera deitu behar dute: 943 76 62 46. Guztira, hogeit lagunendako lekua egongo da eta ez da derrigorra saio guztietara etortzeko konpromisoa hartzea".

Datuak, ekimen berriak eta kontzientzia hartzea

Domekan emango diote amaiera Elgetako Aste Berdeari. Hitzaldi zikloarekin hasi zen, astelehenean, eta jendaurreko ariketa praktikoekin amaituko da, asteburuan. Mezu argienetako bat izan da erosotasunean babestu gabe jasangarritasunean aktibatze

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Mankomunitateko Hondakinen Informazio Bulegoko Olatz Izagirrek zabaldu zuen Elgetako Aste Berdea, astelehenean. 2014ko abenduan jarri zen martxan kontrolpeko sarrera duen bosgarren edukiontzia herrian, eta hainbat datu eman zituen. 2014an, hondakinen %39,87 bildu zen gaika Elgetan. Tasa hori, ordu tik, %73,5etik gorakoa da. 2016koa da daturik onena: %79,49. Ordu tik, poliki-poliki jaisten doa.

Aurtengo datuei dagokienez, COVID-19ak eragina izan duela esan zuen Izagirrek; izan ere, zifrek behera egin dute apur bat, eta garrantzitsua da tendentzia horri buelta ematea.

Eguaztenean, Goiener taldeko Oier Etxebarria eta Eider Murgoitio izan ziren Elgetan. Berriztagarria den energiari buruz aritu ziren, etxeko kontsumo energetikoari buruz eta autokontsumoari buruz, izan indibidua la zein kolektiboa.

Atzo, berriz, Gorka Egia izan zen Espaloian. Kontsumo jasangarriagoa sustatzeko gakoak eman zituen; onartu zuen pertsona guztiek dituztela kontraesanak pentsatzen, sentitzen eta egiten dituzten artean. Kontraesan horiek pixkanaka gainditu behar direla uste du. "Lehen pausoa da



Goiener taldeko Oier Etxebarria, sorkuntza proiektu kolektiboei buruz berbetan. L.Z.L.

HAINBAT BIDE DAUDE JASANGARRIAGOAK IZATEKO, ETA EZ HAIN KUTSATZAILEAK

kontzientzia hartzea kontsumitzaile gisa dugun botereaz".

Asteburuan bi hitzordu

Zapato eguerdian, errefusaren karakterizazioa egingo du Luar enpresak, herriko plazan. Ari-

ketak balio izango du jabetzeko bereizi daitekeen zenbat hondakin dagoen edukiontzi grisean.

Domekarako, berriz, Lehenengo erreka auzolanean garbitzera joateko dei egin du Udalak. Aste Berdeari amaiera emateko ekintza izango da, eta familia giroan egiteko modukoa. Kantsatzeke Txikik bat egin du irteerarekin, eta antolatzaileek oinetako egokiak eta eskularruak ez ahazteko gomendioa egin dute. Taldea 10:30ean elkartuko da, plazan, eta oinez egingo dute joan-etorria.



Udalbatza, aurreko astean egindako ezohiko osoko bilkuran. L.Z.L.

2021ean ez dira udal tasak eta ordenantza fiskalak garestituko

Pandemia batek baldintzatutako egoeran udal zerga ia guztiak izoztea onartu du udalbatzak, aho batez

L.Z.L. ELGETA

"Ikusita zelako urtea daramagun, proposamen orokorra da zergak eta ordenantzak izoztea, eta 2021erako igoerarik ez planteatzea", azaldu zuen Iraitx Lazkano alkateak aurreko astean egindako ezohiko osoko bilkuran.

Proposamen orokor horren barruan hiru salbuespen egongo zirela zehaztu zuen. Tutoretzapeko etxebizitzako jangela zerbitzuaren prezioa 6,84 euro izango da eguneko. "Eulenekin daukagun kontratua urtero aktualizatzen da, eta guk ere prezio bera jartzen dugu tasetan

galerarik ez edukitzeko". Frontoia argiarekin alokatzea, berriz, merkatu egingo da. "Egunotan ipiniko dituzte LED proiektoreak. Orain arte prezioa orduko 16 euro bazen, aurrerantzean, 12 euro izango da. "Proporzio bera aplikatuko da alokairua bada egun erdikoa, egun osokoa...". Bestalde, tasa berri bat sortuko du Udalak: grabaketa zinematografikoak egiteko lur publikoa erabiltzeagatik eta bide publikoa okupatzeagatik. "Ez zegoen, eta sortu egingo dugu. Metro karratu eta eguneko bi eurokoa izango da".



BAOBEER

Zilarrezko bi dominarekin etxera

"Oso pozik gaude La Fira del Poblenuko txapelketan eramandako bi sariarekin", adierazi dute Baobeer garagardo artisaua egiten duten Mikel Irazabalek eta Maite Barrainkuak. Asteburuan izan ziren Bartzelonan, garagardo artisauen azokan egiten den txapelketako epaimahaiak Sankara eta Paco Fighter garagardoei aitortutako zilarrezko dominak jasotzeko.

Beethovenen erratzarekin jolasean

Zenbat musika tresna ditugu inguruan konturatu ere egin gabe? Trakamatrakako lagunek erratzak, ureztagailuak, eskailerak, arraunak, hodiak... erabiltzen dituzte musika egiteko. Haien iritziz, denak du bigarren erabilpen bat eta irudimenarekin gauza asko egin daitezke. 50 bat lagunen aurrean egin zuten martitzenean ikuskizuna, Espaloian.



Trakamatrakako kide bat erratz batekin Beethovenen pieza bat jotzen. L.Z.L.

Astuan Billa nagusi areto futbol txapelketan

Emakumezkoen parte hartzea ukatu izana salatuz egunean bertan agertutako idatzi anonimoek eman dute zeresana. Akatsa eta gaizki ulertua izan dela azaldu du antolatzaileak. Inplikaturako emakumeek ez dute ezezkoaren zergatia ulertzen

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Zapatuan, egun osoko areto futbol txapelketa egin zuten Elgetan. Gizonezkoen sei talde aritu ziren nor baino nor gehiago, kiroldegiko kanpoko kantxan, Josu Mañarikuak antolaturiko txapelketan. Kanporaketa partiduak jokatu zituzten goizean eta bi finalerdiak eta finala arratsaldean.

Astuan Billa, Itxixa, JoTaOna, Koja, Liberpulpo eta Txapela taldeek jokatu zuten txapelketa. Hiruko bi taldetan banatuta hiruna norgehiagoka jokatu zituzten, eta sailkapen fasean JoTaOna eta Txapela gelditu ziren kanpoan.

GIZONEZKOEK OSATUTAKO SEI TALDE LEHIATU ZIREN KIROLDEGIKO KANTXAN

Arratsaldean jokaturako bi finalerdietan Astuan Billa eta Itxixa taldeek lortu zuten finalerako txartela. Astuan Billakoek 5-4 irabazi zieten Liberpulpokoei, eta binako berdinketarekin amaitu ostean penaltietan erabaki zen bigarren finalerdia: Koja eta

Itxixa taldeen arteko norgehiagoka. Finala estu joan zen; 1-0 irabazi zuten Astuan Billakoek.

Sariak, El Rincon de Lolak Talde finalista bakoitzarentzat xanpain botila bana eta irabazleendako afaria izan ziren sariak.



Finala jokatu osteko sari banaketa Astuan Billa eta Itxixa taldeekin. L.Z.L.



L.Z.L.

Tropelari hauspo, maskararekin

Txirrindularitza proba askoren pasalekua izan da aspaldidanik Elgeta. Martitzenean jokatu zen Vueltako lehen etapa, eta tropela birritan igaro zen heritik. Maskarekin eta, ahal zela, distantziak mantenduz animatu zituzten ikusleek ziklistak. Aurreko egunetan ere lehen mailako hainbat txirrindulari pasa ziren Elgetatik, lasterketaren ibilbidea ikuskatzeko.

'Ganbaran' saioa gaur

Liburutegiaren Eguna ospatzeko, ipuin kontalari saio berezia izango da gaur, liburutegian. Ttipia Produksioak taldeko Mikel Hernandezek egingo du *Ganbaran* ikuskizuna, eta ipuinak eskainiko ditu, 17:00etan. Plaza kopurua mugatua izango da. Liburutegiak, bestalde, liburu zozketa egingo du, urtean zehar liburuak mailegatu dituzten erabiltzaileen artean.



TTPIA PRODUKZIOAK

Idatzi anonimoak herrian, diskriminazioa salatuz

"Gaizki ulertu bat izan da, eta akats bat baino gehiago egin ditut", esan du Mañarikuak. "Lehenengoa, esperientziarik gabe txapelketa bakarrik antolatzea. Gero, talde mistoari ezetz esatea. Asko ikasi dut. Pena dut halako lana hartu, eta hain ondo ateraden txapelketaren inguruan polemika hau sortzeagatik. Dena den, ez nuen erreazio hori espero. Uste dut gauzak hitz egin daitezkeela kalean kartel anonimoak jarri aurretik".

Parte hartu ezinik gelditu diren neskendako ezuste handia izan zen epe barruan izena eman eta ezezko borobila jasotzea. Oraindik ere ez dutela ulertzen diote. Kalean kartel anonimoak jarri izanaren inguruan, iritzi



Egunean bertan herrian agertutako kartel anonimoetako bat. O.J.A.

kontrajarriak dituzte. Batzuen ustez, erantzun "bortitzegia" izan da. Beste batzuek, ordea, ondo ikusi dute. "Isilean pasako zen, bestela". Iraitz Lazkano alkateak ere eman du iritzia: "Ulertezina da

gaur egun horrelako ekitaldi batean sexu edo generoagatik parte hartzen ez uztea. Herriar guztiek berdintasunean parte hartzeko aukera izan beharko lukete horrelakoetan".

OHARRAK

Baserritarren bilkura Urteko batzarra, domekan, 12:00etan, kafe antzokian.

Baserriko plastikoak Bilketa zerbitzua, hilaren 27an. Eskerak: 943 76 25 47.

Euskaraldia: batzarra Telematikoki egingo dute, hilaren 27an, 19:00etan. Batzar irekia da. <https://meet.jit.si/ElgetakoEuskaraldiabatzordea>.

Guraso elkarteak

Urteko batzarra, hilaren 29an, 19:00etan, kafe antzokian.

Gaboneko loteria: EAJ

Eskerak Maria Jesus Leteri edo Begoña Ardanzari azaroaren 15a baino lehen.

Martitzen gaueko haizeteak, maila txikiko kalteak

Alarma laranja iragarrita zegoen haize zakarragatik, eta halaxe izan zen. Elgetan, esaterako, 71 kilometro orduko haize boladak markatu zituen meteorologia estatu agentzia Aemetek Pagatzen duen neurketa estazioak, 21:00etan. Horren ondorioz, zuhaitz eta adar asko erori ziren, eta baita bi zuhaitz ere Elgeta eta Kanpanzar arteko errepidean. Zirkulazioa luzaroan egon zen itxita.

Torrealdeako haur parkeko zorua, eskolako berotegia, hainbat teilatu zati eta zirkulazio seinaleak ere kaltetu zituen haizeteak, baina ez zen inguruko herrietan egondako besteko kalterik izan.

2021era begira hiru tasa igotzea onartu dute

EAJk datorren urtera begira zergak "izoztea" proposatu badu ere, EH Bilduk hiru zerga igotzeko egindako proposamena onartu dute bilkuran. Zaurgarrienei hobariak aplikatzearekin bat datoz; merkataria eta ostalariak lagunduko dituzte, batik bat

Maialen Santos OÑATI

EH Bilduren Udal Gobernuak hiru zerga igotzeko proposamena egin zuen joan den astean egindako ezohiko osoko bilkuran: ondasun higiezinaren gaineko zerga, jarduera ekonomikoarena eta trakzio mekanikoko ibilgailuena, hain justu. EAJk igoeraren aurka bozkatu bazuen ere, onartuta geratu ziren 2021era begirako ordenantza fiskalak.

Batez bestekora iritsi guran

Izaro Elorza alkateak azaldu zuen Debagoieneko beste herrietako batez bestekora gerturatu gura izan dituztela zerga horiek, orain artean "azpitik" egon direlako: "Bailara mailan zerga ordenantzetan nola dauden aztertutako dugu, eta hiru zerga batez besteko mailara igotzea proposatu dugu". Bere hitzetan, aldaketa horrek ez du "igoera handiegirik" ekarriko: higiezinaren kasuan, batez beste, "9 euro gehiago" ordaindu beharko dira



Trakzio mekanikoko ibilgailuei ere aplikatuko zaie zerga igoera. OIHANA ELORZA

urtean; ibilgailuen kasuan, aldiz, "7 euro inguru gehiago". Era horretan, zerga ordenantzetatik 140.000 euro gehiago jasotzea aurreikusten dutela azaldu zuten.

EAJk adierazi zuen osasun krisiaren eraginez "egoera zaila"

bizi dutela herritar askok, eta, hori horrela, ez duela uste zergak igotzeko "une egokia" denik. Are gehiago, zergak eta tasak "izoztean" jarri zuen azpimarra. "Ez dugu begi onez ikusten 2021era begira zergen igoera

aplikatzea. Udal Gobernuarekin elkartu izan gara, eta EAJtik jarri dugun baldintza bakarra izan da zergak eta tasak bere horretan mantentzearena", zehaztu zuen jeltzaleen bozeramaile Ainhoa Galdosek.

Bestetik, Udal Gobernuak azaldu zuen datorren urtera begira udalentsat diru sarrera handiena den Foru Funtza nabarmen jaitsiko den arren –diotenez, 1.000.000 euro inguru–, "ezinbesteko" ikusten dutela oinarritzko zerbitzuak ematen jarraitzea: "Argi daukagu oinarritzko zerbitzuak ematen jarraitu behar dugula eta zaurgarrienei laguntza eskaini behar diegula".

Hobari ugari ere bai

Ildo horretatik, zaurgarrienei laguntza ematea helburu, zenbait hobari proposatu zituen EH Bilduk. Merkataritzari, ostalaritzari eta familia ugari bideratutako hobariak proposatu zituzten, batetik. Efizientzia energetikoa hobetze aldera leihoak aldatzen dituztenek ere izango dituzte laguntzak, bestalde. Azkenik, Trautik egindako eskaera ontzat ikusi zuen Udal Gobernuak; beraz, ezintasunak dituztenei kirol zerbitzuetan ere aplikatuko zaizkie horiek.

EAJren proposamenek hiru ardatz jasotzen zituzten: alde batetik, herritarrek, oro har, laguntzeko hobariak; jarduera ekonomiko txikietan –bereziki merkataritzan eta ostalaritzan–

koronabirusa izaten ari den eragina arintzeko hobariak; eta baita gazteei zuzendutako laguntzak ere.

Nork bere ideiak plazaratu arren, EAJk "begi onez" ikusi zituen EH Bilduk egindako proposamenak, baina argitu zuen "sakonago" aztertutako beharko lirakeela horiek: "Ikusten dugu beharrezkoak direla hobari horiek, baina sakonago aztertutako beharko lirakeke; gehiago ere egon daitezkeelako".

Lehentasunak markatu beharra

Oposizioko kideek nabarmendu zuten datorren urteko aurrekontuetan "lehentasunak markatu" eta "inbertsioak murriztean" dagoela gakoa, eta, hori gutxi balitz, "plan finantzario baten beharra" dutela sinetsita daudela azaldu zuen Galdosek.

Azkenik, Zubikoa kiroldegiko tasak onartu gabe geratu ziren joan den astean egindako bilkuran, eta, horren harira, alkateak azaldu zuen nahiago izan dutela obra amaitu arte itxaron: "Oraindik lanean ari dira, eta amaitzen dutenean zehaztuko dugu kiroldegia dagokion zerga egokitu behar ote dugun".

BESTEAK BESTE, MERKATARITZARI, OSTALARITZARI ETA FAMILIA UGARIEI HOBARIK

GORA ETA BEHERA



Eskailerak zikinez beteta agertzen dira

"Azkenaldian, asteburuetan, eskailerak zaborrez beteta agertzen dira. Bertan bizi garenon deskantsua errespetatu eta inguruak txukun mantentzea aldarrikatzen dugu", dio herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Lezesarrin

COVID-19a dela eta, aurten, Lezesarriko kofradiako eguna ez dutela ospatuko jakinarazi dute auzotarrek. Berez, domekan ziren egitekoak.

Ikastarorik ez

Aurten azkenean ez da aisialdirako begirale titulazioa eskuratzeko ikastarorik egingo. Ez da gutxieneko partaide kopurua lortu taldea osatzeko.

Partaideak behar dira

Berbalagun egitasmoan hiru talde sortu dira, baina beste bat sortzeko modua ere badago partaideak egonez gero. Udal euskaltegian eman behar da izena.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Materia

Bidegurutzean hartzen dugun norabidea hartuta ere, bidea ez da beti zuzena izaten, bihurguneak ditu, gorabeherak, zuloak ere bai. Bidea ezagututa ere ez dakigu bihurgune bakoitzaren ondoren betiko bideak jarraituko duen edo gure ibilaldia etengo duen zuloa egongo den. Hori gertatu denean izotz kapa lodia batek estali gaitu eta zer garen galdetu diogu geure buruari, nolakoa den gure materia.

Materiaren sakontasunean bilatu ditugu barren-barrenetik egin ditugun galderen erantzunak, jakinik sekula ez dugula sakontasun hori ezagutuko, galderak egiteko gaitasuna mugagabea izan arren, gure galderei erantzunak topatzeko gaitasun mugatua daukagula..

Muga horren barruan dauden erantzunak bilatzea eta topatzea dagokigu, gu garen materia aztertuz eta ikertuz. Hori da fisikak eta kimikak egiten duena eta hori erakusten zuena bidean gertatu bada ere, berak egindakoarekin eta erakutsitakoarekin jarraitzea izango da berarekin jarraitzeko gure modua, gainean darabagun izotz kapa lodiak urratsak moteltzen badigu ere.



Izena eman duten entitateetako ordezkariak eta batzordeko kideak, eguaztenean. M.S.

Euskaraldian izena emateko dei egin dute

Norbanako moduan izena emateko epea zabalik dago, eta ariguneetan izena eman duten entitateetako ordezkariak ere hala egitera animatu dituzte. Bidebarrietako Euskaldun Berria gela egokitu dute, herritarrentzako informazio gune gisa

Maialen Santos OÑATI

Euskaraldiaren bigarren edizioan izena eman duten entitateetako ordezkariak –hiru ikastetxeetakoak, Tatarraz taldekoak, Musika Eskolakoak, futbol eskolakoak, eskola kirolekoak eta Lagun Lekukoak– eta Oñatiko Euskaraldiko batzordeko kideek agerraldia egin dute asteon, herritarrek azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo duten ariketa sozialean parte hartuz gona bidatzeko helburuarekin.

40 entitate eta 120 arigune

Irailera arte, herriko 40 entitatek eman dute izena Euskaraldian; eta horien baitan 120 arigune –euskaraz lasai aritzeko guneak– sortuko dituzte. 523 pertsona arituko dira, orotara, ariguneetan. Euskaraldiko batzordeko kide Beatriz Gerekak azaldu du uste dutela "egoera normalean" kopuruak handiagoak izango liratekeela; baina izena eman dutenak ez direla gutxi. Hala ere, kopuru horrekin

"konformatzen" ez direla gehitu du: "Oñati osoa arigune izatea amesten dugu, oñatiar guztiek gutxienez euskaraz ulertzeko gaitasunarekin amets egiten dugu; horrek bermatuko bailuke edonon, edonorekin eta edozein egoeratan euskaraz egiteko benetako aukera izatea".

Norbanakoen txanda

Euskaraldian norbanako gisa izena emateko unea da orain, batzordeko Xabier Zabaletak adierazi duenez. "Gogoratu behar da ariguneetan izena eman duten entitateetako ordezkariak norbanako gisa ere eman behar dutela izena", zehaztu du. Hala, lehen edizioan moduan, *ahobizi* edo *belarriprest* rolak aukeratu

ASTELEHENETAN ETA EGUAZENETAN IREKIKO DUTE EUSKALDUN BERRIA GELA: 18:00-20:00

beharko ditu norbanako bakoitzak. Horren harira, argitu dute rolaren aukeraketak ariketa egiteko hartzen den "jokabidea" erakusten duela; ez, ordea, euskaraz egiteko gaitasuna.

Informazio-gunea egokitu dute

Osasun krisiaren eraginez, izen-ematea online egitea "lehenetsi" dute edizio berrian, eta *Euskaraldia.eus* webgunearen bitartez egin behar da hori. Aurreko edizioan parte hartu zutenei, ordea, mezu elektronikoko bat iritsi zaiela azaldu dute, "eta mezuan parte-hartzea berretsi besterik ez da egin behar".

Bidebarrietako Euskaldun Berria gelan, baina, "informazio-gunea" egokitu dute, izena online eman ezin dezakeenak edota zalantzaren bat argitu gura duenak bertara jo dezan. "Pertsona horiek laguntzeko prest izango gara astelehen eta eguaztenean, 18:00etatik 20:00etara", dio Gerekak. Bestetik, azaroaren 2an hasiko dira txapak banatzen.



Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Galdos eta Jone Arriolabengoa. O.E.

Espazio egonkorra izango du aurten Oñatiko Jabetze Eskolak

Ikastaroak eta hitzaldiak egongo dira azarotik apirilera bitartean eta izena emateko epea zabalik dago

Oihana Elortza OÑATI

Berritasunak ditu datorren hilabetean ikasturtea hasiko duen Emakumeen Jabetze Eskolak. Aurten, ikasturte osoan egongo da martxan eskola hori. Espazio egonkorra izango du Euskaldun Berrian gelan eta era askotariko gaiak landuko eta eztabaidatuko dituzte han. Eguenetan elkartuko dira eta dinamizatzailerak batek gidatuko du taldea. "Emakumeendako topagune bat izango da, espazio zabal eta irekia nork bere ondoeza konpartitzeko edo gaien inguruko lanketak egiteko", azaldu du Izaro Elorza alkatea, Berdintasuneko batzordeburua. "Ikastaroetan egiten den lan-keta hortxe gelditzen da askotan, eta gune honek aukera emango du lantzen jarraitzeko, adibidez", gehitu du Berdintasuneko udal teknikariak, Jone Arriolabengoa.

Espazio egonkor hori egoteaz gain, ikastaroak ere antolatuko dira, orain arte egin den moduan, eta hilean behin hitzaldi bat edo solasaldi bat egongo da. Oñatira etorriko dira, adibidez: Nerea Barjola, Irati Garcia, Estitxu Garai, Irantzu Varela eta Wikiemakumeak, besteak beste. Eta hamar egingo dira, hala nola noka ikastekoa, zoru pelbikoa indartzekoa eta autodefentsa feministari buruzkoa.

Izena eman behar da

Ikastaroak, hitzaldiak eta antolatuko dituzten ekintzak aurrez aurrekoak izatea lehenesten dute udal ordezkariak, baina online egiteko aukera baztertu barik, horrela egitea tokatuz gero. Ohiko moduan, ikastaroak hasi baino astebete lehenago zabalduko da izen-ematea; espazio egonkorrearako ere eman behar da izena.

Izaro Elorza 'Harira' saioan urriaren 27an (21:30 eta 23:30)

Martitzenean Oñatiko alkatea, Izaro Elorza, izango da Goiena Tebistako *Harira* saioko gonbidatua. Gaurkotasanari lotutako gaiak aztertuko ditu. Herritarrek aukera izango dute galderak egiteko, horiek hilaren 26a baino lehen bidalita: WhatsApp edo Telegram bidez (688 69 00 07) edo posta elektronikoz (berriak@goiena.eus).

Kultur jardueretarako dirulaguntza eskatu dezakete gazteek

Gaztedia Departamentuak dirulaguntza emango du aurten ere Oñatiko gazteek eta gazte-talde edo elkarteek sustatzen dituzten kultur jardueretarako. 15.000 euro ditu guztira banatzeko. Udaberriko deialdian erdia inguru banatu zen, eta gelditzen diren 7.300 euroak emateko deialdia zabalik dago; azaroaren 10a da eskaerak egiteko azken eguna.

Turismoko planaren diagnosia eginda dute

Turismoaren plan estrategikoa egiteko, egungoaren indarguneak eta ahuleziak jaso dituzte diagnosian. Erronken artean agertu dira, esaterako, komunikazio eskasa, industria turismoa aintzat hartzea eta bailara mailako harremanak sendotzea

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko Udalak herriko turismoaren plan estrategikoa jarri du martxan 2021-2025era epealdirako. Egungo turismoa aztertzen ibili dira urte hasieratik, sektorean lan egiten duten bertako herritarrekin. Hainbat elkarrizketa eta inkesta egin dituzte, eta horrekin bete dute diagnosia: azterketa horretan jaso dituzte turismoak Oñatin dituen indarguneak eta ahuleziak.

Aldatu egin da turismoa

Diagnosi horrekin, ekintza plana zehazten hasiko da Udala. Azken plana duela 10 urte egin zuen eta ordutik hona aldatu egin da turismoa egiteko modua. "Mugikortasuna, adibidez, aldatu egin da, eta Interneten erabilera ere bai. Orain, gainera, COVIDak aldaketak ekarri ditu turismoa. Esaterako, espazio zabalak, natura, bilatzen du jendeak opor edo aisialdirako, eta hori badu Oñatik", dio Sozioekonomia batzordeburuak, Xabier Igartuak.

Udalak egingo duen plana epe luzekoa bada ere, pandemiak ekarri dituen aldaketa horiek kontuan hartuta hasiko dira lanean. Egindako azterketa hau oinarri hartuta, ekintza plana diseinatzeko hasiko dira datozen



Lurdes Romano, Xabier Igartua eta Ikerne Altube, astelehenean, Oñatin. O.E.

asteetan. Datorren urteko lehen sei hilekorako bukatuta egotea aurreikusten du Udalak, bigarrenean ekintzak gauzatzen hasteko. Igartuak aurreratu duenez, hurrengo urteko aurrekontuetan diru partida bat gordetako da horretarako.

Bost ardatz ditu planak


Bost ardatz ditu plan horrek, eta bakoitzaren aldekoak eta kontrakoak jaso dituzte. Hala, turismo lekuaren, marketinaren, eskaintzaren, lehiakortasunaren eta kudeaketaren egungo in-

darguneak eta ahuleziak identifikatu dituzte. Ahulezia horietako batzuk dira, esaterako: Oñati marka turistikoaren posizionamendu baxua, ondare-elementu batzuetan irisgarritasun mugatua, herrira etortzeko garraio eskasa eta industria turismoa kontuan hartu beharra. Beste erakunde batzuekin izan beharreko harremanak hobetu beharra ere aipatu du Lurdes Romanok, Udalarekin batera Oñatiko turismo plana egiten ari den Beinke enpresako langile oñatiarrak.

"Kosta ez, beste aukera guztiak eskaintzen ditu Oñatik turistentzat"

LURDES ROMANO TURISMO TEKNIKARIA

Beinke enpresarekin batera ari da egiten turismo plana Udala, eta bertako langile Lurdes Romano oñatiarra da gidaria. Bera izan zen Oñatiko lehen Turismo Bulegoko arduraduna, duela 30 urte inguru. **Nola egin duzue diagnosia? Zein izan da prozedura?** Sektorean lan egiten dutenekin egon gara. Elkarrizketa batzuk egin genituen, baina martxoan eten egin zen aukera hori, eta inkesta bidez lortu dugu informazioa. Oraindik, baina, aukera dago euren iritzia eta ekarpena jasotzeko.



O.E.

Diozu aukera handiak dituela Oñatik. Horiek landu behar dira orain?

Kosta ez, baina beste guztia du: natura, kultura gastronomia... Kontua ez da jende asko erakartzea, datorrena ondo hartzea eta dauden aukerak eskaintzea baizik.

Ze ahulezia nabarmen detektatu dituzue?

Garraioarena, esaterako, askotan aterata den gaia da. Elorregiko geltokia ez dago ondo ikusia eta asteburuak garraioa eskasa da. Errepideen seinalizazioan ere hutsuneak daudela ikusi da.

Beste erakunde batzuekin izan beharreko harremanak sendotu egin behar direla ere aterata da. Norekin?

Herriarekin lotura duten guztiekin, baita Mankomunitatearekin ere. Bakoitzak berea jorratu beharrean lana elkarrekin eginez gero trinkoagoa izango litzatekeela uste dute.

Industria turismoa ere aipatu duzu.

Bai, hori da. Herriko lantegietara kanpoko jende asko etortzen da, industria turismoa da hori. Batzuetan, gertatzen da horrelakoek hiriburuaren hartzen dituztela lo-lekuak lantoki ondoan ezer ez dela egongo pentsatuaz, eta hori ez da horrela. Oñatin ia edozein hiriburuan baino aukera gehiago daude aisialdirako.

Unibertsitatea eta Lege Soziologia Institutua ere aterata dira.

Uste dute Unibertsitateak gehiago eskaini dezakeela, ondare aberatsa da eraikin hori. Bestalde, Nazioarteko Lege Soziologia Institutua ere hementxe daukagu eta hona datorren jendearekin ere harremanak izatea ondo legoke.

COVID 19ak turista mota ere aldatu ei du. Zein da berria?

Nazioartekoak ez datoz, Estatu mailakoak ere gutxitu eta barnealdekoak ari da indartzen. Naturarekin lotutako espazioak aukerak gura ditu, segurtasunagatik. Bestalde, lehiakortasuna ere asko aldatuko da pandemiagatik.

Gaur da eskola kirolean izena emateko azken eguna

HH-5etik LH-6ra izan ohi da eskola kirola Oñatin, baina aurturten ez. Aldundiak arautu du LH-1etik aurrerakoendako izango dela aurtengo ikasturtean, eta Oñatin, espazio faltagatik, kanpoan gelditu dira LH-6ko ikasleak. Beraz, aurtengo ikasturtean, LH-1 eta LH5 arteko gaztetxoek izango dute aukera eskola kirolean jarduteko.

Saioak ordu eta erdikoak izango dira eta taldeetan gutxienez 8 eta gehienez 20 egongo dira talde bakoitzean. Talde egonkorak izateak garrantzi berezia izango du aurturten eta ikastetxeetan bertan egingo dituzte saioak, ahal den neurrian; posible bada, gainera, kanpoko espazioetan. Horregatik, ikasle bakoitzak bere ikastetxean eman behar du izena. Urriaren 23a, egubakoitza, da izena emateko azken eguna. Azaroan hasiko da aurtengo eskola kirola.

Podiuma zapaldu dute berriz etxeko txirrindulariek

Joan den asteburuan izandako lasterketetan, podiumean izan ziren Aloña Mendiko txirrindulariak. Gazte mailan, Unai Cuevak hirugarren egin zuen Mendaron jokaturako Gipuzkoako txapelketan; taldeko saria Ulmak irabazi zuen. Kadete mailan, berriz, Aimar Madinak Hesparru proba eta mendiko saria irabazi zituen, Lazkaon.

Denboraldiko lehen partidua du Aloña Azkoagainen etzi

Aurtengo denboraldiko lehen partidua jokaturako du etxean Aloña Mendiko erregional ohorezko mailako futbol taldeak. Domekan izango da, 16:30ean, Hamaikak Bat taldearen kontra. Azkoagaingo sare berria jarrita dago eta sistema elektrikoa ere bai, baina aldagelak egongo diren bi solairuko kaseta berria ez da oraindik iritsi.

'Nordic walking' ikastaroa egongo da hurrengo astean

POZek antolatuta eta Athlonek emanda, *nordic walking* ikastaroa izango da Oñatin azaroaren 30ean. Probatu edo teknika hobetu nahi dutenak da ikastaroa. Berdura azokan izango da, 18:00etan. Izena eman daiteke Zubikoa kiroldegiko sarreraren edo poz.oinati@athlon.eus helbidera idatzita, hilaren 29a aurretik.



Udal liburutegiko arduradun Arantzazu Ibarrondo, dagoeneko erabilgarri dagoen Emakumeen Txokoa. O.E.

Emakumeen Txokoak tokia du liburutegian

Emakumeei eta feminismoari lotutako idazleak, gaiak eta liburuak daude liburutegiko bigarren solairuan egokitu duten Emakumeen Txokoa. Oñatiko Emakumearen Kontseiluak egindako proposamena izan da eta EAE osoan du oihartzuna

Oihana Elorza OÑATI

Eguaztenean egin zuten liburutegian egokitu duten Emakumeen Txokoaren aurkezpena, justu, zapatuan ospatuko den Liburutegien Nazioarteko Egunaren bezperan. Ez da kasualitatea izan, "propio" aukeratu dute eguna, liburutegiko arduradun Arantzazu Ibarrondoren esanetan: "Oso albiste ona da txoko hau erabilgarri egotea, modu ezin hobea Liburutegien Eguna ospatzeko".

Bigarren solairuan dago

Aurretik ere jartzen zieten arreta emakumearen inguruko liburuari herriko bibliotekako beste gune batzuetan; haur liburutegian, kasu. Orain, baina, txoko propioa izango dute liburu eta egile horiek. Helduen liburutegiko bigarren solairuan prestatu dute txokoa, lasai irakurtzeko besaulki eta guzti. *EMA* hizkiak eta emakumearen ikurra dituzte han pilatutako liburu guztiek. "Txoko feminista edo

txoko morea ere erabili genituen ahoan tokiari izena erabakitze-ko orduan, baina, azkenean, Emakumeen Txokoaren alde egin genuen, genero ikuspegiak eta feminismoak garrantzia izan arren gure lanean beste hainbat arlotako liburuak ere pilatu ahal ditugulako hor. Esaterako, gerra zibilean hainbat emakumek egindako lana jasotzen duen liburu bat dugu. Orduan ez zuten feminismotik egingo, ziu-rrerik, baina, duda barik, euren lana garrantzitsua izan zen eta liburu horrek ere hortxe du tokia", azaldu du Arantzazu Ibarrondok.

Hor dauden liburuak pilatze-ko lanean aritu dira azken hilabeteetan liburutegiko langileak,

'EMA' HIZKIAK ETA EMAKUMEAREN IKURRA DITUZTE HAN BATUTA DAUDEN LIBURU GUZTIEK

sail ezberdinetan zeuden liburuak apartatu eta hor jartzeko. Horrela, komikiak, nobelak, biografiak eta saiakerak daude, besteak beste.

Oñatitik kanpo ere bai

Arantzazu Ibarrondo oso pozik agertu zen aurkezpenean, txoko horren proposamena herritarrengandik heldu delako: "Beti esaten dugu edozein etorri ahal dela hona eta proposamenak egin, gauzak antolatze-ko, liburutegia beti dago zabalik. Proposamen hau Oñatiko Emakumeen Kontseilutik etorri da, eta oso pozik gaude, bai".

Gainera, txokoa berez Oñatiko udal liburutegian egon arren, oihartzuna EAE osora heltzen da, Oñatiko udal liburutegia Euskadiko liburutegien sarean dago-eta sartuta: "Beste herri batzuetan badute antzerako txokoak, baina ez askotan. Hemen go bibliografia, gainera, Oñatitik kanpo ere erabilgarri egongo da; oso garrantzitsua da hori".

Selma Huxley omentzeko lehen jardunaldia domekan izango da

Oñatiko bizilagun izandakoaren lana ezagutzera eman gura dute; argazki erakusketarako laguntza eskatu dute

Maialen Santos OÑATI

Maiatzean hil zen hogeitaz Oñatin bizi izan zen Selma Huxley Barkham ikerlari ingeles-kanadarra, eta hura omentzeko jardunaldiak antolatu dituzte Oñatiko Emakumeen Kontseiluak, Udaleko Berdintasun Departamentuak eta Gipuzkoako Artxibo Historikoak, elkarlanean. Domekan egingo dute lehena: *Ipar haizearen erronka* marrazki bizidunetako euskal filma eskainiko dute, 17:00etan. Urriaren 29an, bestalde, *Nao San Juan* dokumentala emango dute. Urriaren 29an eta 31n, artxibo historikora egingo dituzte bisitak, eta parte hartzeko datorren martitzena baino lehen eman behar da izena, berdintasuna@onati.eus-era idatzita edo 943 78 04 11 zenbakira deituta.

Huxleyren heriotzaren lehen urteurrenean, maiatzerako hura



Selma Huxley. GOIENA

omentzeko argazki erakusketa antolatu gura du kontseiluak. Hori horrela, berarekin lotura duen argazkiren bat duten herritarrei horiek partekatze-ko dei egin diete. Argazkiak helbide honetara bidali behar dira: emakontseilua@gmail.com.

Dagoeneko eskuratu daitezke Beratu jaialdirako sarrerak

Azaroaren 4tik 8ra bitarte egingo dute Beratu musika jaialdia, eta herriko zenbait gunetan egingo dituzte emanaldiak. Santa Ana aretoan izango dira batzuk -7 euro ordaindu beharko dira- eta Antixeneko gaztetxean eta Lazarragako lorategian besteak -aire librekoak doan izango dira-. Euria egingo balu, gaztelekura lekualdatuko lituzkete

aire librean egitekoak diren horiek.

"Nortasun propioa" eskuratu duen jaialdia Osasun Sailak eskatutako protokoloak betez egingo dutela azaldu dute antolatzaileek. Hala, edukiera mugatu egingo dute ikusleentzat. Gainera, kontzertuak eserita eta maskara jantzita jarraitu beharko dira. Ildo horretatik, sarrerak aurrez erosi edo erreserbatu beharko dira, eta horretarako aukera ahalbidetu dute jadanik Udalaren webgunean.

Gaur da ikastaroetan izena emateko azkenengo eguna

Patchwork, hardanger, myreska, ajoureta, mallorquin eta *riche-llier* zein pintura eta eskulan dekoratiboak lantzeko ikastaroak antolatu ditu Udalak aurren ere, azaroaren 2an hasita. Horietan izena emateko azken eguna da gaur: modu presentzialean -herritarren arreta zerbitzuan- nahiz zerbitzu telematikoko bidez egin daitezke.

Asisko Urmenetaren 'Aztihitza' ikuskizuna ikusgai gaur

Asisko Urmeneta ilustratzaileak sortutako *Aztihitza* antzezlanaz gozatzeko aukera izango da gaur, egubakoitza, 19:00etan, kultura etxeko zinema aretoan. Egilearen izen bereko liburuan oinarrituta dago ikuskizuna, eta Agosti Xaho idazle, hizkuntzalari eta politikariaren bizitza du oinarri. Sarrerak Udalaren webgunean daude eskuragarri.



EBA mailako bigarren jardunaldia bertan behera utzi behar izan du MUK; erretratuan, Euskal Kopako partiduan. GOIENA

Hasi dira liga ofizialean lehenengo partiduak bertan behera uzten

Ligak hastearrekin batera, denboraldi-aurrean bizi izandakoa berretsi egin da: zaila da birusa saihestea. MUK, EBA mailan, ezingo du asteburuan Zarautzen kontra jokatu, eta UDAk hiru talde ditu konfinatuta; bi adibide baino ez dira

Xabier Urzelai ARRASATE

Zaila da birusa saihestea, eta kirola ez dago gizartetik isolatuta. Liga txapelketa ofizialak hasi dituzten honetan, egunotan izan den positibo kopuruak eragin zuzena izan du, eta horrekin bizi beharko dutela garbi du UDAko presidente Agurtzane Elkorok: "Ez dago besterik, eta guk klubean argi dugu: kontzientziazioa, kontzientziazioa eta kontzientziazioa. Horretan dihardugu lanean; maila txikietan hamar laguneko taldetxoak sortu ditugu, entrenatzaile guztiei musukoak eman dizkiegu, prebentzio neurrietan klubak inbertsioa egin du, eta horrekin batera, astero-astero gabiltza jokalariaendako eta entrenatzaileendako berbaldiak antolatzen. Baina garbi daukagu honi aurre egiteko denok egin behar ditugula gauzak ondo, nahikoa de-

lako deskuidu bat aurretik egin-dako lana pikutara bidaltzeko".

UDAK abuztutik hona eginda-ko lan onak emaitzak eman ditu, ez dute arazorik izan orain arte, nahiz eta asko izan diren PCR proben emaitzen zain egon behar izan duten kirolariak. Zoritxarrez, baina, hasi dira lehenengo positiboak azaltzen, klub barruan bertan, edo kontrario batek positibo eman duelako. Eta horrek ekarri ditu konfinamenduak.

MUK atsedena izango du

Hain zuzen, egoera horretan dago Mondragon Unibertsitatea. EBA mailako taldeak Zarautzen kontra jokatu behar zuten asteburuan: "Baina astelehenean bertan deitu ziguten esanez euren taldekide batek positibo eman duela, eta ezingo dugula partidua jokatu", dio taldeko entrenatzaile Iñaki Ogara Arri

-k. Hain zuzen, eurak dira profesionalismotik gertuen daudenak, nahiz eta horrek abantailak beharrean desabantailak ekartzen dizkien: "Kategoria honetan astero egin behar digute PCR proba. Federazioak esan digu lehenengo hiru testak eurek ordainduko dituztela eta ondoren guk egin behar diogula aurre gastu horri. Eta Ointxe!-k ez du horretarako baliabiderik, beste talde askori gertatzen zaion moduan. Bada, joan den astean gurean ez zen medikurik azaldu, eta korrika batean joan behar izan genuen ostiralean talde osoak Gasteizera. 20 minutuan osoak zizkiguten emaitzak; asteburuan bertan jokatu ahal izateko denek eman behar dugu negatibo, eta dokumentu hori Federazioan aurkeztu behar da jardunaldia jokatu aurretik. Lan administratiboa ere zaildu egin

"KONTZIENTZIAZIOAN ARI GARA AHALEGIN HANDIA EGITEN, BERBALDIAK EGITEN DITUGU ASTERO"



AGURTZANE ELKOROK
UDA-KO PRESIDENTEA

"TALDE GUTXIAGO GARA, ETA PENTSATZEKO DA KONTROL HANDIAGO EGONGO DELA"



JOSU HERRERO
FORD MUGARRIKO KAPITAINA

"ASTERO GAINDITU BEHAR DUGU PCR PROBA ASTEBURU HORRETAN JOKATU AHAL IZATEKO"



IÑAKI OGARA
OINTXEI-KO KIROL ZUZENDARIA

"GAZTEEI KIROLA EGITEA BERMATU BEHAR DIEGU, GURE ESKU DAUDEN GAUZA GUZTIAK ZAINDUTA"



JAVI CORVAL
ESKORIATZAKO PRESIDENTEA

da. Garbi dago, baina, ezin gara astero horrela ibili; bereziki, Gasteizera joaten ibiltzea testak egiteko".

Hori alboratuta, entrenatzaile gasteiztarak dio mentalki taldea prest dagoela birusak berak sortuko dizkien buruhausteei aurre egiteko: "Posible da asteburu batean bi norgehiagoka jokatu behar izatea; esaterako, zapatuan Santanderrera joan behar izatea eta domekan atzeratutako partidua jokatzera. Eta posible da momenturen batean jokalaria bakartu behar izatea. Jokalaria, baina, mentalki horretarako prest ikusten ditut".

Eskubaloian, bi astetik behin

Birusak eragin ditzakeen buruhausteei aurre hobeto egiteko, eskubaloian, Euskadiko Txapelketan diharduten Ford Mugarri Arrasatek eta Fagor Industrialek bi astean behin jokatu dute. "Horrela, talde batek konfinatzeko beharra baldin badauka, denbora izan dezake hurrengo jardunaldirako errekupeatzeko. Multzoak txikitu egin dituzte, talde gutxiago gara, eta pentsatzekoa da kontrol handiago egongo dela", dio Josu Herrero kapitainak.

Bai arrasatearrek eta baita oñatiarrek ere galdu egin zuten joan den astean, eta bi taldeek jokatu zuten Bilbon: "Nahiko arraroa izan zen dena, egia esan. Aurretik beste partidu bat egon zen eta denak kiroldegitik irten

arte ez ginen gu sartu. Ondoren, aldagelatarau laguneko taldeetan sartu behar izan genuen... Beno, egoera berria da eta ego-kitu egin beharko dugu".

Hala, arrasatearrek datozen bi asteetan atsedena izango dute: "Datorren asteburuko atsedena talde guztiendako izango da, baina hurrengoan ere guk ez dugu partidurik jokatu. Liga hasi baino egun gutxi batzuk lehenago, Legazpiko klubak erabaki zuen atzera egitea, aurten liga txapelketarik ez jokatzera. Bigarren sailkatu eta gero lortu zuten mailaz igotzea, baina baldintza hauetan ez jokatzera erabaki dute. Eta guk ere argi dugu, entrenatzaileak berak gogorazazi zigun joan den astean, sintomaren bat duena gera dadila etxean, ez dadila 15 egunean Iturripera gerturatu".

Eskoriatzan, oraingoz, ondo

Eskoriatzan areto futbolekoek oraindik ez dute liga txapelketa hasi. "Baina aurreko astean Tolosaren kontra lagunarteko bat jokatzekoak ginen eta eurretako batek positibo eman zuelako bertan behera utzi genuen partidua. Halako egoeretan ohitzen joan beharko dugu, baina gazteei kirola egitea bermatu behar diegu, gure eskutik dauden gauza guztiak zainduta. Saskibaloian, esaterako, neskak hasi dira, eta, oraingoz, ez da arazorik egon", adierazi du Javi Corvalek.

Oihana Kortazar nagusi izan da Ultra Sanabriako hiru probetan

MENDI LASTERKETAK Hiru etapak irabazi eta hiru elastiko jantzi zituen lasterkari elgetarrak Zamorako probetan

Hasier Larrea ELGETA

Joan den barikuan jokatu zen lehenengo lasterketa, etapa nagusia, 32 kilometro eta 1.640 metroko desnibel positibokoa. Kortazar izan zen azkarrena, eta errekorra ere lortu zuen, lau

ordu, minutu bat eta hiru segundoko denbora eginez.

Biharamunean jokatu zuten bigarren etapa, 43 kilometrokoa, eta 2.220 metroko desnibel positibokoa. Han ere Kortazar izan zen emakume azkarrena. Lau

ordu, 21 minutu eta 21 segundo behar izan zituen proba amaitzeko.

Hirugarren eta azken etapa domekan jokatu zuten, eta hirugarren egunez jarraian elgetarra nagusitu zen, hiru ordu, 22 minutu eta 4 segundoko markarekin.

Azores Trail Run lasterketan izango da hurrengo lehiatuko den lasterketa. Urriaren 29tik azaroaren 1era jokatu da. Lau etapa eta 126 kilometro izango ditu, guztira.



Oihana Kortazar, Ultra Sanabriako garaipena ospatzen. OIHANA KORTAZAR

Aloña Mendik Azkoagainen jokatu du asteburuan

FUTBOLA Ohorezko Erregional Mailara igo zen martxoan. Etxean estreinatuko da, domekan, Amaikak Baten aurka

H.L. ARRASATE

Debagoieneko gizonezkoen maila nagusiko lau ordezkariak bigarren jardunaldia jokatu dute asteburuan.

Mondrak, lehen jardunaldian atsedena eduki zuenez, ligari

ekingo dio bihar. Elgoibarrekin neurtuko ditu indarrak, Mojategin, 16:30ean hasita. Txantxikuen neurketa ere ordu berean izango da, baina egun bat gerorago. Kanpoan jokatu dute, berriz, Bergarak eta Aretxaba-

letak: mahoneroek Urolaren zelaia bisitatuko dute; Eibarrena, berriz, UDAl. Bi norgehiagokak zapatu arratsaldean jokatu dira.

Emakumezkoetan, Leintz Arizmendik azaroaren 1ean hasiko du Euskal Liga. Maila bat beherago dagoen Bergarak ezin izan zuen aurreko astean jokatu; aste honetan ekingo dio, beraz, denboraldiari. Dagoeneko hasiak direnak Leintz Aloñako jokalaririk dira; aste honetan Elgoibarraren lehiatuko dira oñatiarrak.

Atsedena hartuko dute Ingou Mugarrik eta Fagor Industrialek

ESKUBALOIA Arrasateko eta Oñatiko taldeek ez dute asteburu honetan jokatu, atsedena astea dutelako. Datorren astean, txantxikuek Gure Auzune taldea hartuko dute etxean. Sarrailegileak, berriz, ez dira azaroaren 15era arte lehiatuko: asteburu horretan Urnietara joango dira, hango Artola Harategiaren aurka jokatzera.

Mondragon Unibertsitatearen partidua, atzeratuta

SASKIBALOIA EBA mailako taldeak Zarautz Ulaciaren aurka neurtu behar zituen indarrak asteburu honetan, baina kostaldekoak ez daude partida jokatzeko moduan, PCR testetan positibo eman baitute zenbait jokalarik. Azaroaren 8an izango dute hurrengo partidua, Kantabriara abiatuko baitira Solarensen aurka jokatzera.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

HARMAILATIK

URRIAREN 26AN, ASTELEHENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN

Bueltan da
kirol saioa



goiena
20 URTE ZUEKIN.

A. Aranburuzabala/ K. Uribesalgo
BERGARA

Orain dela 29 urte antolatu zuten lehenengo helduentzako txotxongilo jaialdia, eta, harrezkero, Taun Taun Teatro taldeak erronkari eutsi dio, eta bi urtean behin eskaini dute Mostra herrian. "Egoera ona ez den arren, aurrera egiteko apustua egin dugu; izan ere, guk ere pandemiaren eraginez hainbat emanaldi galdu ditugu, eta badakigu, orokorrean, artiston egoera bera dela. Era berean, uste dugu halako ekitaldiak egoera triste honi aurre egiteko modu aproposa direla; hortaz, dena prest dugu hamabosgarren jaialdia egiteko", azaldu du Taun Tauneko Itsaso Azkaratek.

Atzerriko artistarik ez aurten

Jaialdiaren atzean lan handia dago, eta ia urtebete lehenago hasten dira egitaraua osatzen. "Aurrez lotutako gauza asko aldatu egin behar izan ditugu; adibidez, aspalditik genituen kanpoan egiteko hainbat ikuskizun hitzartuta, baina atzerriko artistak ekartzea orain arriskutsua da, eta penaz daudela adierazi digute, baina hurrengo jaialdietarako gorde ditugu. Euskal Herrikoak, Errioxakoak, Burgoskoak eta Kataluniako artistak izango dira aurten. Zorionez, baina, gauza txar askok alde ona izaten dute, eta pozik gaude, Hernaniko Kulunka taldea gurean izango delako. Aspaldi ari ginen eurekin harremanetan, baina, nazioarteko bira asko egiten dituzte, eta ezin agendan tokirik egin. Orain, Ameriketako Estatu Batuetan egon behar zuten, baina bira bertan behera geratu zaie eta Bergarara etortzeko aukera izango dute. Konpainia gaztea



Aurtengo Mostra Kataluniako Chapertons taldeak itxiko du, umorezko *Rodó* ikuskizunarekin. TAUN TAUN

Txotxongiloak, lanerako prest

Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostra egingo du Taun Taun Teatrok, Udalaren laguntzarekin, urriaren 30etik azaroaren 1era; bost ikuskizun izango dira, eta antzerki bisuala, maskarak eta objektuak izango dira protagonista nagusiak

da, baina dagoeneko nazioarteko sari on asko eskuratu ditu".

Segurtasun neurriak bermatuta egin gura dute Mostra; hortaz, edukiera mugatua izango dute emanaldiek, eta eserlekuaren arteko distantzia gordeta.

Maskarak eta objektuak

Mutuak ez badira ere, hitz gutxiko ikuskizunak dira guztiak. "Antzerki bisuala da, askotariko objektuak erabiltzen dituzte gehienek, eta maskarak, esaterako, Kulunka taldekoak".

Istorioei dagokienez, aurreko aldietan moduan, denetariokoak daude. "Alzheimer gaixotasunaren gaineko hausnarketa egitera eramango gaituzte Kulunkakoek, drama eta komedia uztartzen dituen *André eta Dorine*

ikuskizunarekin. Taularen gainean bakarrik egongo den El Patioko aktoreak objektu pertsonalekin betetako kontserba potoak eskuetan dituela bere aitona eta amonaren istorioak kontatuko ditu. Ez da barre egitekoa, baina oso polita da; 2016an izan zen Bergarako Mostran beste lan batekin eta harrera ona izan zuen. Kataluniako Chapertons taldea ere Bergaran egondakoa da, 2008an, *Bomm* lan dibertigarriarekin; 25 urteko ibilbidea dute, eta orain arte egin dituzten ikuskizun guztien laburpena biltzen duen *Rodó* barregarria dakarkigute aurten".

Beldurrezko eta fantasiako istorioak gustuko dituztenentzako, berriaz, Markeliñe taldearen *Psi* gomendatu du Taun Taunekoak: "Arimen Gauerako, zapatuan, programatu dugu hori. Artista baten istorioa da, eta, estetikari dagokionez, kabaret zoro baten antza duela diote egileek. Markeliñekoak ere egon izan dira, baina publiko familiarrentzako ikuskizun batekin".

Aurten, ezin da tailerrik eta bestelako ekimenik eskaini, baina badago bitxikeria bat, *Tiritiscopio* instalazioa. "Politik eta ezberdina da. Zortzi lagunekoko taldeetan, hiru minutu inguruko istorioa ikusteko aukera izango duzue, baina, horretarako, Burgosko Teatro Principalen sartu beharko duzue".

Sarrerak, dagoeneko erosgai

Kanpoko ikuskizunak doan dira, eta zortzi eurotan Seminariokoak. Eguenean 18:00etatik 20:00etara eros daitezke leihatilan eta *Tickets.kutxabank.es* atarian. –atzo jarri zituzten salgai–. Kaleko ikuskizunetarako eserlekuak iritsiera ordenaren arabera banatuko dituzte.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

**GURE
ZIRKUAREN
AZPIKO
GONAK**

URRIAREN 29AN, EGUENEAN, 21:30EAN
ZIRKUAREN MAGIA ERAKUTSIKO
DIGUN ERREPORTAJEA



goiena
20 URTE ZUEKIN.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Baserria erosi. Baserri baten bila gabiltzan Oñatiko familia bat gara. Harremanetarako deitu edo whatsapppez idatzi: 653 01 71 65

Baserría. Oñatiko bikote bat gara baserri bat erosteko interesarekin. Zerbait jakin edo saldu nahiz izanez gero, jarri harremanetan: 600 34 87 13

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo inguruak. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan, baina baita erosteko aukerarekin ere. Telefonoa: 663 40 92 67

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxebizitza behar dugu errentan, hiru logelakoa. Telefonoa: 638 85 43 36

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. 610 99 70 46

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan, bi edo hiru logelakoa. Berdin da altzaririk gabe badago ere. 645 72 92 87

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, beste pertsona batekin partekatuz. 669 53 97 03

Etxebizitza edo logela bila. Etxebizitza txiki bat edo logela bat errentan hartuko nuke Arrasaten, Eskoriatzan edo inguruko herriren baten. Garraio publikoa erabili beharra daukat. 51 urteko gizon arduratsua naiz, Indiakoa, ez erretzailea. Telefonoa: 722 27 88 89

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Arimazubi plaza garajea ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 615 00 88 15 edo 943 79 59 93

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Egurditan, umeekin bazkaldu eta eskolako lanekin laguntzeko (LH3 eta LH4) pertsona euskaldun baten bila gabiz. 653 01 54 11

402. ESKAERAK

Arrasate. Goizetan zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke. Legezko agiriak dauzkat. Telefonoa: 673 71 15 27

Arrasate. Pertsona nagusien zaintzan eskarmentu handia duen emakumea naiz eta lan egiteko prest nago. 632 74 97 38

Bergara edo Arrasate. Nagusiak zainduko nituzke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Dokumentuak egunean dauzkat. 631 54 60 99

Bergara. Bergarako neska euskalduna, 15 urtez haurreskolan tutore eta Hezkuntza bereziko hezitzaile esperientziaduna, goiz zein arratsaldetan haurrak zaintzeko gertu. 659 66 02 57

Bergara. Emakumezkoa gertu haurrak zaindu edota garbiketari lanak zein etxeko lanak egiteko, orduka eta asteburuetan. 643 04 11 21

Bergara. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 602 01 32 58

Debagoiena. Albaitaritza laguntzailea maskoten zaintzan, ile-apaintzaile bezala. lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzen ere lan egingo nuke. 722 45 58 35

Debagoiena. Arratsaldetan, asteburuetan eta baita aji egunetan ere, nagusiak zaintzen eta ile-apaintzaile eta estetika lanetan aritzeko gertu nago. Titulazioak eta auttoa dauzkat. Telefonoa: 631 98 15 50

Debagoiena. Egunean zehar nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Legezko agiriak dauzkat. Telefonoa: 642 41 72 62

Debagoiena. Erizain laguntzailea nagusiak zaintzeko eta denetarioko garbiketak egiteko gertu. 620 23 58 15

Debagoiena. Erizain laguntzailea, esperientzia duena, nagusiak zaintzeko gertu. 678 37 32 43

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo beste- la, zaintza lanak egingo nituzke. 602 80 15 38

Debagoiena. Etxeko lanetan eta pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Esperientzia daukat erizain laguntzaile arloan. 747 40 45 49

Debagoiena. Etxeko langile eta zaintzaile moduan lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 19 12 64

Debagoiena. Etxeko langile moduan, nagusi eta umeak ezintzen, zein garbiketan lan egingo nuke. 722 45 58 75

Debagoiena. Garbitzaile edota zaintzaile moduan lan egingo nuke. Legezko agiriak eta titulazioa dauzkat. 632 39 87 73

Debagoiena. Gazez eta egunean zehar orduka, adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 647 31 48 17

Debagoiena. Gizona etxeko langile moduan jarduteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 77 34 95

Debagoiena. Mutila gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. 638 85 43 36

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. 655 23 81 50

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Telefonoa: 631 36 06 44

Debagoiena. Nagusiak zaindu, orduka kalera lagundu eta abarretarako gertu nago. 634 09 55 46

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 80 12 52

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketan eta etxeko lanetan jarduteko gertu nago. 610 99 70 46

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, lantegian edota garbiketan lan egingo nuke. 634 07 99 70

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila: umeak eta nagusiak zaintzen, orduka, egunez edo asteburuetan. Baita garbiketak egiten ere: etxeak, atariak, tabernak, bulegoak eta abar. Telefonoa: 604 37 79 34

Debagoiena. Neska gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. 654 11 15 14

Debagoiena. Neska nagusiak zaintzeko gertu. 608 99 47 64

Debagoiena. Neska prest nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Legezko agiriarekin. 695 09 23 85

Debagoiena. Orduka nagusiak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Goizez zein arratsal-

dez, baita asteburuetan ere. 622 24 86 64

Debagoiena. Ostalaritza-rako eta zaintzarako titulazioak ditut eta egoizatan lan egindakoa naiz. Zerbitzari, sukaldari edo zaintzaile moduan lan egingo nuke. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Telefonoa: 611 31 93 76

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan eskarmentu handia duen emakumea naiz. Asteburuetan, orduka edo etxean bertan bizi izaten, egingo nuke lan. 697 86 49 00

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 01 32 58

Debagoiena. Titulazioa eta legezko agiriak dauzan neska egunean zehar nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Asteburuetan eta orduka ere bai. 662 02 43 80

Debagoiena. Zaintza eta garbiketa lanak egingo

nituzke, egunean zehar zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 642 10 87 45 (Vanessa)

Debagoiena. Zortzi urte baino gehiagoko eskarmentua eta soziosanitario titulazioa dituen neska, nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

Oñati. Neska gazte eta euskalduna haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako ikasketekin eta esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 58 21 84

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta eta inguruak. Biokimikan graduatua naiz eta eskola partikularrak emango nituzke, maila guztietan. Biologia eta kimika batez ere, baina baita zientzia arloko ikasgaiak edota hizkuntzak ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 67 69 55

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover bila nabil. Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata, kolpearekin. Telefonoa: 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Katakumeak ematen dira opari. Zuria, beltza eta gorria. 642 72 69 10

Txakurrak. Arratoi txakurkumeak ematen dira opari Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 642 72 69 10

8. DENETARIK

806. GALDU

Klarinetea Arrasaten. Urriaren 1ean, osteguna, Jose Luis Iñarra kalean ahaztu zitzaidan klarinete bat, "Buffet Crampon E11". Itzuliz gero, sarituko da. 686 40 89 61

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

KIROLEI BURUZKO SAIOA BUELTA DA

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 era 23:30



GOIENA

ISAIAS CARRASCOREN HILKETA

'Goiena: 20 urte, 20 albiste' Egubakoitza, 21:30

EGUBAKOITZA, 23

09:00 Kantari Aretxabaleta 4
09:30 Kantari Aretxabaleta 6
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Eskulana etxetik
11:30 Erreporatjea: Fagor etxetresnak
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Harira
13:30 Lehen Ierroan: Ander Sarriegi
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albisteak
15:30 Euskaldia 5
16:00 Albisteak
16:30 Elkarriketap: Ane Pikaza
17:00 Albisteak
17:30 Adinberri 13
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Erreporatjea: Unibertsitateak
19:30 Euskaldia 5
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Elkarriketap: Ane Pikaza
21:30 Erreporatjea: Fagor etxetresnak
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Kooltur: Raitx

ZAPATUA, 24

09:00 Kantari Aretxabaleta 7
09:30 Kantari Aretxabaleta 6
10:00 Kantari Aretxabaleta 8
10:30 Erreporatjea: Fagor etxetresnak
11:00 Harira
11:30 Euskaldia 5
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Kooltur: Raitx
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Astearen errepasoa
15:30 Kooltur: Raitx
16:30 Hemen Debagoiena
17:30 Elkarriketap: Ane Pikaza
18:00 Kooltur: Raitx
19:00 Kantari Aretxabaleta 6
19:30 Harira
20:00 Erreporatjea: Fagor etxetresnak
20:30 Harira
21:00 Astearen errepasoa
21:30 Hemen Debagoiena
22:30 Kooltur: Raitx
23:30 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 25

08:30 Euskaldia 5
09:00 Txanbiriak
09:30 Kantari Aretxabaleta 6
10:00 Kantari Aretxabaleta 7
10:30 Kantari Aretxabaleta 8
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Kooltur: Raitx
13:00 Euskaldia 5
13:30 Erreporatjea: Fagor etxetresnak
14:00 Elkarriketap: Ane Pikaza
14:30 Astearen errepasoa
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kantari Aretxabaleta 7
16:30 Kantari Aretxabaleta 8
17:00 Tapa Pala 2020: Urola Ibia
18:00 Harira
18:30 Lehen Ierroan: Ander Sarriegi
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Kooltur: Raitx
21:00 Erreporatjea: Fagor etxetresnak
21:30 Astearen errepasoa
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Elkarriketap: Ane Pikaza

EGUBAKOITZA, 23

VICTIMAS CLUB TALDEA

'Kooltur Ostegunak'

23:00

MARTITZENA, 27

OÑATIKO ALKATE IZARO ELORZARI ELKARRIZKETA

'Harira'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 28



GOIENA

IMANOL ITUIÑO MAGOARI ELKARRIZKETA

'Elkarriketap'

21:30/23:30

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

NAGUSIENDAKO KIROLA

'Adinberri'

17:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz zuzaitzeko operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA

Kontxi
Arrieta Urisabel



—Goian bego—
2020ko urriaren 19an hil zen, 74 urte zituela.

Argi bat itzali da
hemen lurrean.
Berri bat piztu da,
han, zeru ederrean.
Beti jarraituko duzu
gure bihotzean.

Zure ilobak. Etxaniz familia.
Bergaran, 2020ko urriaren 23an.

OROIGARRIA

Iñaki
Kerejeta Gorostiza



2020ko urriaren 14an hil zen.

Elizateengatik egin duzun lan guztia ez dugu inoiz ahaztuko.



Eskoriatzako Elizateen Elkarte
Eskoriatzan, 2020ko urriaren 23an.

OROIGARRIA

Iñaki
Kerejeta Gorostiza



2020ko urriaren 14an hil zen.

Egoitzan egindako lanagatik, mila esker, bihotz-bihotzez.



Eskoriatzako Jose Arana Egoitza
Eskoriatzan, 2020ko urriaren 23an.

OROIGARRIA

Juan Angel
Fernandez Lopez



2020ko urriaren 16an hil zen, 62 urte zituela.

Mondrako jubenila. Atezain adoretsua. Irribarretsu. Lagun ezin hobea.
Beti gogoan izango zaitugu, Juan Angel.
Lurrak goxo har zaitzala.

Mondrako jubenilak, 75-76ko lagunak.
Arrasaten, 2020ko urriaren 23an.

OROIGARRIA

Rosario
Urrutia Galdos



'Txaro'

Bastergaingo amama maitatuari.
Betirako gure oroimenean.

Ibai, Ane, Martin, Maddi.

Arrasaten, 2020ko urriaren 23an.

OROIGARRIA

Rosario
Urrutia Galdos



'Txaro'

Gellako txoko eder baten
Iturben bai munduratu
Uribarri, Gesalibar
ondoren zeuk aukeratu,
ta bertantxe gazi-goxo
bizitza ederra burutu
emakume fin ta jator
danok zaitugu ezagutu.

Emazte, ama ta amama
hoberik ezin aurkitu
zuk emundako guztia
hemen nahi dugu eskertu,
ta orain, amaxo maitia
atsedena zazu hartu
ondo merezia duzu
atsedena zazu hartu.

Arrasaten, 2020ko urriaren 23an.

ESKER ONA

Juan Angel
Fernandez Lopez



2020ko urriaren 16an hil zen, 62 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—
Oso harro gaude zutaz
Poza dugu bihotzean
Geratuko zarela
Betiko gure artean.

Etxekoak.
Arrasaten, 2020ko urriaren 23an.

ESKER ONA

Ramon
Loiti Garaitonandia



2020ko urriaren 8an hil zen, 73 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko urriaren 23an.

URTEURRENA

Kepa
Jauregi Olabe



2014ko urriaren 28an hil zen.

Seigarren urteurreneko meza urriaren 28an, eguaztena, izango da,
19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokiari.

—
Zein amets polita
zurekin bizi izana
orain hegan zoaz, Kepa maitia
baina gurekin egongo zara
ametsik ederrenean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2020ko urriaren 23an.

ESKER ONA

Marina
Karetxe Urrejola



Jesus Lopez de Bergararen alarguna
2020ko urriaren 16an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2020ko urriaren 23an.

ESKER ONA

Maria Concepcion
Larunbe Larunbe



Facundo Azkoagaren alarguna
2020ko urriaren 19an hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko urriaren 23an.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu



Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua izan, zuek nahi
duzuen hileta-zerbitzua
aukeratzeko eskubide
osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta
laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Liburutegiaren Eguna ospatzen**

Ospakizunetan daude Oñatiko kultura etxean. Askotariko ekintzak dituzte esku artean, eta horietako bat izan da 4 urteko haurrek Lur Kortarekin izandako ipuin kontaketa saioa. Segurtasun eta higie protokoloa zorrotz beteta, kontalariaren inguruan eseri ziren umeak, eta adi-adi entzuten zituzten ipuinak.

2. Zaborra ikusgai

Ibailagun egitasmoaren baitan, errekak garbitzen ibili ziren hainbat lagun aurreko domekan Debagoienean; besteak beste, Oñatin. Erreka hazita zetorrenez, ezin izan zuten gura beste garbitu, baina gune batzuetatik hondakinak batu ahal izan zituzten. Horiek, beti bezala, Oñatiko plazan ipini dituzte ikusgai.

3. Organo doinuak eta sopranoaren ahotsa

Organo Erromantikoaren Zikloaren barruan, organoaren eta soprano baten arteko elkarlanaren emaitzaz gozatzeko aukera izan zuten aurreko zapatuan, Bergaran. Honako honetan, gainera, antzuolar baten maisutasunaz disfrutatu ahal izan zuten: Oscar Candendo organistarenaz, hain zuzen. Ana Otxoa sopranoa izan zuen lagun antzuolarrak.

4. Oroimena eta aitortza

Arrasateko Udalak Iñaki Etxaberen eta German Agirreren familiei aitortza omenaldia egin zien aurreko egubakoitzean. 2020ko urrian 45 urte bete dira Iñaki Etxabe eta German Agirre erailak izan zirenetik, eta Arrasateko Udaleko Bizikidetza batzordeak ekitaldia egin zuen, senitartekoak eta familiakoak omentzeko.

5. Mexikar doinuez disfrutatzen

Arrasateko merkataritza elkarteak kulturaren aldeko ekimenak antolatzen dihardu buru-belarri. Trikiti eta pandero doinuez mexikar doinuez egin zuten salto. Puro Relajo taldeak emanaldi bikoitza egin zuen Herriko Plazan, eta bietan, lepo bete zen. Kantuan egiteko ere aprobetxatu zuten batzuek.

6. 65 urtez ezkontuta

Carmen eta Ramon oñatiarrak ospakizunetan daude. Ez da samurra urte asko ezkontuta egotea. Bada, eurak, ezkontu zireneko 65. urteurrena ospatu zuten urriaren 19an: 1955ean ezkontu ziren. Etxekoak gogoratu dira urtemugarekin. "Zorionak, Carmen eta Ramon! Segi zoriontsu izaten. Musu bana, iloba Mertxeren partetik".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ONATI
Ander Odriozola Larrañaga
Urriaren 28an, 4 urte.
Zorionak, Ander! Egun zoragarria pasatu. Patxo pila bat etxeko danon partetik.




BERGARA
Uxue eta Alaitz Gonzalez
Urriaren 25ean, 6 urte.
Zorionak, prexioak! Ondo-ondo ospatu zuen eguna. Patxo potoloak danon partetik.



ARRASATE
Oxel Souto Lasa
Urriaren 24an, 8 urte. Zorionak, morroxko! Egun ezin hobea izan dezazula, bihotza! Muxu handi-handi bat, etxekoen partetik!



ONATI
Aroa Castell Tejada
Urriaren 24an, 2 urte.
Zorionak, Aroa! Bi urtetxo ja! Egun polita izan eta patxo asko, familiaren partetik!



DEBAGOIENA
Paula Zubia Murugarren
Urriaren 22an, 7 urte.
Zorionak, politx hori! Oso-oso ondo pasatu zure egunean. Besarkada eta belarri tirakada bat, zure familia osoaren partetik.



ARRASATE
Txaro Azkarate Zabarte
Urriaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, tia Txaro! Familiako guztien partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ESKORIATZA
Amama Carmen
Urriaren 22an. Zorionak, amama Carmen, zure 96. urtebetetzean. Besarkada handi bat zure seme-alaben, biloben eta birbiloben partetik.



ARETXABALETA
Ekain Garro Larrañaga
Urriaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Ekain! Bost urte jada! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat danon partetik!



ARRASATE
Lier Torres Sanchez
Urriaren 20an, 11 urte. Zorionak, Lier! Super ondo pasatu zure egunean! Muxu asko, 'Peña park'-eko guztien partetik.



BERGARA
June Alberdi Gallastegui
Urriaren 21ean, 9 urte. Zorionak, June! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potoluak, familixako danon partetik!



ARETXABALETA
Ibai Gallastegi Arana
Urriaren 21ean, 8 urte. Zorionak, altxortxo, etxeko danon partetik!



ONATI
Aiert Marko
Urriaren 20an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik. Bereziki, Eñaut eta Miren.



ARRASATE
'Catala'
Urriaren 20an, 53 urte. Zorionak, Cata! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Musu asko, familiako guztien, eta bereziki, Yoseberen partetik.




ARRASATE
Paule Uribebebarria
Urriaren 19an, 5 urte. Zorionak, Paule, zure 5. urtebetetzean! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat familiaren, eta bereziki, Markelen partetik.



ARRASATE
Kaiet eta Manex Martin
Urriaren 19an, 35 urte. Zorionak, bikote! Muxu handi bat familiaren, eta bereziki, amatxoren partetik. Ondo ospatu eguna! Izugarri maite zaituztet.



ESKORIATZA
Peru Baena Sologastoa
Urriaren 18an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Etxeko danok izugarri maite zaitugu. Disfrutatu topera zure eguna!



ARETXABALETA
Unax Iregi
Urriaren 18an, 2 urte. Zorionak, Unax! Dagoeneko bi urte... ze azkar handitzen zaren!



ARRASATE
Luismi
Urriaren 18an, 53 urte. Zorionak, pirata! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Musu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.



BERGARA
Nerea Laborda Astiazaran
Urriaren 17an, 97 urte. Zorionak amama! Maite zaitugu!



ARRASATE
Nerea Poza Lera
Urriaren 17an, 11 urte. Zorionak, Nerea! Oso ondo pasatu zure egunean! Muxu asko 'Peña park'-eko guztien partetik.



ARRASATE
Unai Velez de Mendizabal Otero
Urriaren 16an, 9 urte. Bederatzi urte, gizontxo. Ze azkar pasatzen diren urteak. Musu pila bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Julen Davila Simon
Urriaren 16an, 14 urte. Zorionak, Julen! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.



ANTZUOLA
Dare Asensio Cabrera
Urriaren 16an, 5 urte. Zorionak, poxpolina! Ze azkar pasatzen doiarren denboria zure onduan... Tope ospatukou. Asko maite zaitugu, maitxia. Patxo bat etxekuen, eta batez be, Axelen partetik.



ARRASATE
Koldo Oianguren Urroz
Urriaren 16an, 39 urte. Zorionak, Koldo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi bat, familia osoaren partetik!



ONATI
Gabriel Kortabarria Ali
Urriaren 15an, 6 urte. Zorionak, maitia! Gure superheroiak sei urte dagoeneko. Patxo pila zure familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Lore Martinez Axpe
Urriaren 15ean, 49 urte. Zorionak, Lore! Patxo handi bat familia osoaren partetik. Bereziki, Oxel, Lur, Hitzeder, Hodei, Beñat, Garazi eta Amets!

AGENDA

VERANO DEL 85 VERANO DEL 85 EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 23

ELGETA Nekazaritzako ibilgailuei azterketa

Ez da aurrez txandarik hartu behar. *Pagatza industrialdean, 12:00etan.*

ARRASATE 'Ez egin bultza' erakusketa: azken egunak

Bihar arte egongo da ikusgai euskal arte garaikideari buruzko bilduma. *Kulturaten, 17:00etan.*

ELGETA 'Ganbaran' ipuin saioa

Haurrentzako ikuskizuna, formatu txikian. Ipuinak, antzerkia, txotxongiloak... TTipia produkzioak taldeko Mikel Hernandezen eskutik. *Elgetako liburutegian, 17:00etan.*

OÑATI 'Aztihitza' ikuskizuna

Asisko Urmenetak idatzi eta zuzendu duen ikuskizuna. Daniel Arbeletxek, Mariañes Gorostiagak, Xanmari Hirigoienek eta Iñitz Iriartek ere parte hartuko dute. Edukiera, mugatua. *Zinema aretoan, 19:00etan.*

ZAPATUA 24

ARRASATE Txikitxokoa, zabalik

0-6 urteko arteko haurrendako eta euren familiendako zerbitzua. Ez dago begiralerik: 09:00-14:00 eta 16:00-20:00. *Txikitxokoan.*

ELGETA 'Liburu bat zuretzat'

Liburu baten zozketa, azken urtean mailegu zerbitzua erabili dutenen artean. *Liburutegian, 10:00etan.*

ARRASATE 'Azalerako ipuinak' saioa

Bibliotekaren Egunaren harira, Saroa Bikandirekin literatura jolasak 0-3 urte artekoendako. Aurrez eman behar da izena. *Kulturaten, 11:00etan.*

ELGETA Aste Berdea: errefusaren karakterizazioa

Luar enpresarekin egiten dituzte Elgetan konpost-guneen aldizkako kontrolak. Errefusera zer botatzen den ikusteko aukera. *Mendizaleen plazan, 12:00etan*

BERGARA 'Panpina' antzezlan

Kamikaz kolektiboaren eskutik. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' filma

Euskaraldi Kulturalaren baitan, Lander Garrok zuzendutako filma izango da ikusgai. Zuzendaria egongo da emanaldian. *Arkupen, 19:00etan.*

DOMEKA 25

ARRASATE Txikitxokoa, zabalik

0-6 urteko arteko haurrendako eta euren familiendako zerbitzua. Ez dago begiralerik: 09:00-14:00 eta 16:00-20:00. *Txikitxokoan.*

ELGETA Aste Berdea: erreka garbiketa

Auzolanerako deia. Eskularruak eta katiuskak eramatea aholkatzen da. *Mendizaleen plazan, 10:00etan.*

DEBAGOIENA Mintzapraktika taldeen irteera

Iruña Okan Badaia mendilerroaren inguruan dagoen Santa Katalina lorategi botanikora joango dira. *Norbere herrian, 10:30ean.*

OÑATI 'Altxorren bila'

Familiendako orientazio jolasa, ibilbide irisgarrian dauden zazpi pistak topatzeko. Izena emateko: *arantzazu@gipuzkoanatura.eus* edo 943-78 28 94. *Parketxean, 11:00etan.*

ARAMAIO Herri kirolen txapelketa

Urrezko binakako harri-jasotze txapelketa eta Euskadiko aizkolari txapelketa jokatu dituzte. Sarrerak, hamar euro. *Frontoian, 12:00etan.*

BERGARA '60' erakusketa: gaur da azken eguna

Udal Artxiboko argazkiekin egindakoa. *Aroztegin, 12:00etan.*

ELGETA Baserritarren kooperatiba: batzar nagusia

Bazkideendako hitzordua. *Espaloian, 12:00etan.*

ARETXABALETA 'Paisaia margotzen' erakusketa

Hilaren 30era arte ikusgai. *Arkupen, 12:00etan.*

ESKORIATZA Kamiseta historiakoak salgai

Eskoriatza Kirol Elkartek bere historian zehar erabilitako kamisetak, prakak eta kirol-jertseak salgai ipiniko ditu. *Fernando Eskoriatza plazan, 12:00etatik 14:30era.*

OÑATI 'Losers' antzezlan: sarrerak, agortuta

Aitziber Garmendiarekin eta Jon Plazaolarekin. *Santa Anan, 17:30ean eta 19:30ean.*

ESKORIATZA Oscar Terolen bakarrizketa: sarrerak agortuta

Por comentarlo izeneko ikuskizuna egingo du. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Escupido amor' antzezlan

Aitziber Izquierdoren lana, gaztelaraz. Sarrerak, lau euro. *Zaraia aretoan, 19:00etan.*

ASTELEHENA 26

ARRASATE Sexualitateari buruzko hitzaldia

La sexualidad más allá de las pausas izeneko berbardia egingo du Laura Moran sexologoak, Goienagusiren ikasturtearen baitan. *Kulturaten, 10:00etan.*

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea *Foruen plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea *Herriko Plazan, 12:00etan.*



GLU GLU

ARRASATE 'Botadun katua' antzezlan

Charles Perrault-en izen bereko liburuaren moldaketa, Glu Glu taldearen eskutik. Andrea Covadonga, Jon Casamayor, Sara Barroeta eta Sandra Fernandez Aguirre dira aktoreak. Sarrerak, bost euro. *Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.*

MARTITZENA 27

ARAMAIO Mendi publikoen kudeaketaren plan berria: batzar irekia

Aurrez eman behar da izena: 945-44 50 16 telefonon edo *udala@aramaio.eus* helbidean. *Kultura etxean, 18:00etan.*

OÑATI Irakurketa kluba

Slavenka Drakulic-en *Han ez banengo bezala* liburua oinarri hartutako saioa, Yurre Ugartek gidatuta. *Zinema aretoan, 18:30ean.*

ELGETA Euskaraldia batzordearen batzarra

Telematikoa izango da. *Elgetan, 19:00etan.*

ARRASATE 'Arzak since 1897' dokumentala

Asier Altunaren dokumentala, Juan Mari Arzak oinarri hartuta. *Amaia antzokian, 20:30ean.*

EGUAZTENA 28

BERGARA 'La nueva diplomacia comercial' hitzaldia

Juanjo Alvarezek egingo du berba, Goienagusiren ikasturtearen baitan. *Seminarixoa, 10:00etan.*

ARETXABALETA Odol ateratzea

Bereziki dei egiten diete odol emaila berriei. *Durana kalean, 16:45ean.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Bertako eta sasoiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

ARRASATE 'IKTak eta aisialdi birtuala' hitzaldia

Hizlariak izango dira: Igor Leturia (Elhuyar taldea), Olatz Artola (AZK agentzia), Maiten Junguitu (Game Erauntsia kolektiboa) eta Aiora Mujika (euskal *youtuber*-a). *Kulturaten, 18:30ean.*

BERGARA 'Zaldibar. Zona cero' liburuaren aurkezpena

Ahoztar Zelaieta egilea egongo da ekitaldian. Ostean, solasaldia egingo dute. *Kartzela zaharrean, 20:00etan.*

EGUENA 29

ARRASATE Sasoibide: irteera

Gorostia eta Larratxu ezagutzeko ibilaldia. *Biteri plazan, 10:00etan.*

OÑATI 'Ostegun kontalariak'

6 urtetik gorako gaztetxoendako ipuin kontaketa saioa Maite Frankoren eskutik. Ordu erdiko bi saio egingo ditu; eta saio bakoitzeko hamar ume egon ahal izango dira. *Liburutegian, 18:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserritarren garaioko produktuak erosteko aukera egongo da. *Oxirondon, 18:00etan.*



XATIRO

ARETXABALETA Xatiroren kontzertua

Unai Hernandez Undaren atzean dagoen musikariaren rap doinuak entzuteko aukera. Euskaraz zein gazteleraz egiten du rapa, literaturari, komikiei eta pelikulei aipamenak eginez. Sarrerak, lau euro.
Gaur, egubakoitza, Zaraia aretoan, 22:00etan.

ESKORIATZA Ipuin kontaketa

4 urtetik gorako umeendako saioa. Edukiera mugatua denez, aurrez hartu behar dira gonbidapenak (943-71 31 35).
Zaldibar antzokian, 18:00etan.

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Eduardo Halfon idazlearen *Monasterio* liburuaren gaineko saioa egingo dute, gazteleraz.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia

Bernardo Atxagaren *Etxeak eta hilobiak* liburua izango dute hizpide, Alex Gurrutxagak gidatuko duen saioan. Euskaraz.
Bibliotekan, 18:30ean.

ARRASATE Zinegoak emanaldia

Bilboko Gaylesbitrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoan jaialdiko pelikulak. Ostean, solasaldia.
Kulturaten, 19:00etan.

ÕÑATI 'Selma Huxleyren ikerketa lana artxiboan' bisita gidatua

Õñatiko Udaleko Berdintasun Departamentuak eta Gipuzkoako Artxibo Historikoak elkarlanean antolatuta, euskaraz eta gazteleraz.
Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan, 19:00etan.

ELGETA Maala guraso elkarte: urteko batzarra

Lehenengo deialdia 19:00etan eta bigarrena 19:30ean.
Espaloian, 19:00etan.

ÕÑATI 'La boda de Rosa' filma, zineklubean

Iciar Bollainen pelikula. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ÕÑATI 'Nao San Juan' dokumentala, zineklubean

Albaolan eraikitzen ari diren baleontziaren gaineko dokumentala, Selma Huxley Barkham omentzeko antolatutako jardunaldien baitan. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Lie Detectors taldea

Donostiako eta Errenteriako musikariekin sortutako taldeak emanaldia egingo du Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 30

ÕÑATI 'Selma Huxleyren ikerketa lana artxiboan' bisita gidatua

Õñatiko Udaleko Berdintasun Departamentuak eta Gipuzkoako artxibo historikoak elkarlanean antolatuta, 11:30ean, gazteleraz, eta 12:30ean, euskaraz.
Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan.

BERGARA 'Titiriscopio' ikuskizuna

Arawake taldearen ikuskizuna, Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostraren baitan.
San Martin plazan, 11:30ean.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Akelarre
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Vicky el vikingo
Domeka: 16:30.

BERGARA

SEMINARIXOA

Un acuerdo original
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Mina y el mundo de los sueños
Domeka: 17:00.

ÕÑATI

KULTURA ETXEA

Ane
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Ipar haizearen erronka
Zapatua eta domeka: 17:00

EIBAR

COLISEO

Trolls 2
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

El club de los divorciados
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.

Domeka: 16:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Ane
Zapatua: 17:00.
Domeka: 16:00.

ANTZOKIA

Trolls 2
Zapatua: 16:00.
Domeka: 17:00.

Ane
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

Trolls 2
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 18:30, 19:40, 21:50.
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 20:10, 22:20.
Domekatik eguaztenara: 18:00, 20:10.
Eguena: 18:00.

El club de los divorciados
Egunero, martitzena izan ezik: 17:15, 19:45, 22:15.
Martitzena: 17:15, 22:15.

Monica Naranjo, la huella de la pantera
Egunero: 20:00.

No matarás
Zapatua eta domeka: 17:00.
Egunero: 19:30.
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.

Pinocho
Zapatua eta

domeka: 17:15.

Ane (euskaraz)
Egunero: 20:00.
Egubakoitza eta zapatua: 22:15.

Padre no hay mas que uno 2
Zapatua eta domeka: 17:10.

El ultimo refugio
Egunero: 19:30.
Egubakoitza eta zapatua: 22:10.

Eso que tu me das
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

Akelarre
Zapatua eta domeka: 18:00.
Egunero: 20:15.
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.

Shin Chan en Australia
Zapatua eta domeka: 17:30.

Como perros y gatos
Egunero: 19:50.

FLORIDA

Trasto
Zapatua eta domeka: 12:00.

Pinocho
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

Mina y el mundo de los sueños
Zapatua eta domeka: 12:00.

El pequeño gran lobo
Zapatua eta domeka: 12:00.

Zapatos rojos y siete trolls
Zapatua eta

domeka: 12:00.

Eso que tú me das
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 20:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Akelarre
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30.

Astelehenetik
eguenera: 17:30, 20:00.

Rifkin's Festival
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Falling
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 20:00, 22:30.
Domeka: 16:35, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Como perros y gatos
Egubakoitza: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

Dehesa, el bosque del lince iberico
Egubakoitza: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

Ane
Egubakoitza eta zapatua: 18:35, 20:20, 22:15.
Domeka: 18:35, 20:20.
Astelehena, eguaztena eta

eguen: 17:30, 20:00.
Martitzena: 17:30, 19:30.

No matarás
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:10.
Domeka: 20:00.
Astelehenetik eguaztenara: 17:45, 20:15.
Eguena: 20:15.

Corpus Christi
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:55, 22:20.
Domeka: 16:30, 18:55.
Astelehenetik eguaztenara: 17:30, 20:00.
Eguena: 17:30.

La hijas del Reich
Egubakoitza eta zapatua: 18:15, 20:30, 22:30.
Domeka: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

La voz humana
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:20.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

Trolls 2
Egubakoitza: 16:25, 18:25, 20:30.
Zapatua: 12:00, 16:25, 18:25, 20:30.

Domeka: 12:00, 16:25, 18:25.
Astelehena, eguaztena eta eguen: 17:30, 19:30.
Martitzena: 17:30.

Vicky el vikingo
Zapatua eta domeka: 12:00.

Regreso a Hope Gap

Egubakoitza eta zapatuta: 16:35, 20:15, 22:25.
Domeka: 16:35, 20:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

GORBEIA

Nacion cautiva

Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:20.
Domeka: 19:45.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

El arco magico
Zapatua: 16:30.
Domeka: 12:00, 16:30.

Akelarre
Egubakoitza eta zapatua: 18:35, 20:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 18:35, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Eso que tu me dás
Egubakoitza eta zapatua: 18:45, 22:00.
Domeka: 12:00, 18:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

El club de los divorciados
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua: 18:10, 20:25, 22:35.
Domeka: 18:10, 20:25.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

KRITIKA

Verano del 85 ★★★★★

Zuz.: François Ozon. **Herr.:** Frantzia (2020). **Aktoreak:** Hichame Alaouie, Felix Lefebvre. **Iraupena:** 100'.

Istorio ezkutua

ANTONIO ZABALA

Verano del 85 filmaren hasieran, poliziak Alexis izeneko mutiko gazte bat atxilotzen du. Ez dakigu zehatz-mehatz zer gertatu den, baina mutilak ikusleak abisatzen ditu esanez ikusi behar duten istorioak heriotzarekin zerikusi duela, eta berak gertatutakoan eragina izan duela. Era berean, ia hasieratik hildakoa nor den azaltzen zaigu: David, 18 urteko gaztea.

Filma kontaketa baten berregitea da. Bi mutilak oso desberdinak dira. David amarekin bizi da, eta aita hil

zenetik ikasketak utzi zituen familiako dendan lan egiteko. Egoerak egoera, beti alai, irribarretsu eta laguntzeko prest azaltzen da.

Alexis gazteagoa da, gurasoequin bizi da, eta izaeraz isilagoa, zapuztiagoa eta mesfidatiagoa da. 1985eko udan euren artean maitasuna nola sortzen den ikusiko dugu.

Maitasun istorio idiliko baten aurrean gaudela ematen badu ere, hasieran pertsonaiak esaten duenak, ikerketaren eszenek eta filmaren musikak lasaitasun eta

edertasun horiei tonu kezagarria ematen diote. Alexis zeharo maiteminduta dago, eta sentitzen duen maitasun idealizatu eta perfektu hori obsesio bilakatuko da. François Ozon zuzendariak ondo azaltzen dizkigu gaztearen izaera eta jasaten ari den zurrumbilo emozionala. Hori horrela, ez dauka arazorik pertsonaia muturreraino eramaten; eta ederki egiten du. Izan ere, horrekin, irrika, maitasuna eta obsesioa erabiltzen dituen istorio ezkutuari etekina ateratzen dio.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRÍA

Argiak eta itzalak

Gabonetako argiak jarri dituzte kalean. Beti bezala, goizegi: ezustean harrapatu naute. Gaztaina saltzaileek bezalatsu, artean manga motzean gabiltzanean agertzen baitira Donostian. Baina une honetan dena da hain arraroa eta hain inprobisatua, paisaia surrealisten parte bihurtu dira. *Normaltasun berria*-n edozer izan daitekeelako normala. Norbait gerturatzeko zaigunean apartatzea. Eztula egin duenari gaizki begiratzea. Besarkadak ukondoarekin ematea eta muxuak emotikono bidez, adibidez.

Erakuslehoetan Halloween-eko publizitatea ere ipini dute. Gabonetako iragarkien aurrekari. Hori bai, aurten *online* eskaintza handitu egin da; kate handiena, bereziki. Beharbada, ezingo gara etxetik atera, baina Internetez nahi beste erosi dezakegu. Birus informatikoak ez dira hilgarriak. Bidalketa-zerbitzuak lanez lepo dabilta, konfinamenduaz geroztik.

Aldaketa datorrela diote, baina, momentuz, kapitalismoa eta indibidualismoa eroso daude *normaltasun berria*-n. Horregatik, inportantea da elkarlanari eta aurrez aurreko harremanei eustea. Denda txikien berotasunari, esaterako. Eta hori esanda, gaztainak erostera noa.

EUSKARALDIA, GERTU!

000
EGUN FALTA
DIRA

Ariketara konektatzeko aplikazioa, erabilgarri


Euskaraldiak mugikorretarako aplikazio bat jarri du martxan. Momentuz, izena emateko aukera eskaintzen du eta rolen aukeraketa egiteko argibideak ematen ditu. Azaroaren 20tik aurrera, behin ariketa hasita, bestelako aukera batzuk izango ditu

Karmele Uribesalgo ARRASATE

Erabilgarri dago jada Euskaraldiaren gailu mugikorretarako aplikazioa. Batura Mobilek garatu du, Euskaltzaleen Topagunearen enkarguz, eta Euskaltelen laguntzarekin. Aukera ugari emango dizkie erabiltzaileei; azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den ariketan izena emateko aukera dago *app*-ean, eta, aurrerago, hainbat urrats edo erronka planteatuko ditu.


Gotzon Arzelus bergararra aplikazioa garatzen ari du, eta, azaldu duenez, herritarrek Euskaraldira "kateatzeko" modu bat da: "Aurreko edizioaren azken egunetan, jendeari apur bat kostatu egin zitzaion ariketarekin jarraitzea, eta aurten, hamar egunekoa beharrean, hamabosetokoa izango da Euskaraldia". Hori dela eta, webguneaz aparte, aplikazio bat sortzeko beharra sumatu zuten antolatzaileek.

Bi fasetan banatu dute aplikazioa. Lehenengoa abian da, eta Euskaraldian izena emateko aukera eskaintzen du. Zenbait argibide daude rolen inguruan, *ahobizi* edo *belarriprest* izateko aukeraketa egiten laguntzeko. Behin ariketa hasita ekingo zaio bigarren faseari. Aplikazioaren



Ariketari ekitean, aukera gehiago eskainiko ditu aplikazioak. EUSKARALDIA

eskaintza zabalagoa izango da une horretatik aurrera. Arzelus-ek azaldu duenez, "aholku edo erronka txiki batzuk" proposatuko ditu aplikazioak. Horretaz aparte, argibideak non dauden erakutsiko dute, mapa baten bitartez, eta *fan wall* bat ere izango da, besteak beste, argazkiak igo ahal izateko. Euskaraldiaren antolatzaileek herritarrek



Argibideen mapa.



Aplikazioaren irudi bat.

animatu dituzte aplikazioa deskargatzera, nahiz eta izen-ematea beste bide batzuetatik egin. Arzelusen hitzetan, Euskaraldia "motorrak berotzen" doan heinean, aplikazioaren deskargak ere gorantz doaz. "Gizartea orain-txe ari da konturatzen Euskaraldia badatorrela", nabarmendu du Batura Mobilekoak.

Martxa onean

Arrasateko koordinatzaile Jokin Etxebarriak ere nabari du hori: "Gauden egoeran egonda, jendea beste gauza batzuetara egon da, baina poliki-poliki ari dira enteratzen, eta azken astean gorakada izan da parte hartzaile kopuruan". Izena-ematea "martxa onean" doala azaldu du. Debagoienean, momentuz, 2.500 lagun inguruk eman dute izena; horietatik %10 berriak dira.

Bergarako koordinatzailea da Asier Kortabarria, eta, adierazi duenez, besteak beste, lanean ari dira jendeari azaltzeko rolen aukeraketa egiteko orduan jarrera izan behar dela kontuan, eta ez euskara maila. Horrez gain, azaldu du osasun egoeraren arabera ikusiko dutela bestelako ekintzarik egiteko aukerarik dagoen edo ez.

Lurrunak ez dezala zure begirada lausotu

**LURRUNAREN
AURKAKO GAMUZA
BERRIAK**

9€ bakarrik



Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com